This paper attempts to demonstrate the relationships between dialectology and general linguistics, and especially, the conditions which linguistics has the right to demand from dialectology, as well as the information which dialectology should be able to offer to general linguistics. Dialectology has limited itself, on too many occasions, to taxonomy: it must take into account the bases and methodology of descriptive linguistics. Only then will it be able of reaching the macro-linguistic level. For theoretical and practical reasons, this paper proposes a new framework for explaining the linguistic system within the General System Theory, although this must not seen as reducing the importance of the notion of variation. According to these terms, the contribution of dialectology to linguistics is indispensable to have a better knowledge of the structure of a language and to understand the way it operates.

## RESUME

Cet exposé veut montrer les rapports entre dialectologie et linguistique générale, et en particulier les conditions que la linguistique est en droit d'exiger de la dialectologie, et l'information que la dialectologie devrait être en mesure d'offrir à la linguistique générale. La dialectologie s'est trop souvent cantonnée dans la taxonomie: elle doit prendre en compte les bases et la méthodologie de la linguistique descriptive. Alors seulement elle atteindra le stade du macrolinguistique. On propose ici un nouveau schéma d'explication du système linguistique pour des raisons théoriques et pratiques à partir de la Théorie Générale des Systèmes; la place qu'il faut accorder à la notion de variation n'étant pas la moindre. A ce prix, l'apport de la dialectologie à la linguistique est indispensable pour mieux connaître la structure d'une langue et pour mieux comprendre son fonctionnement.

Kongresu honetarako, Euskaltzaindiak prestatu duen eskemaren Sail baten izenburua hau da: *Dialektologiaren ekarpena Hizkuntzalaritzari*. Ipinita dagoen moduan, izenburu honek ikuspegi bat eskaintzen du; izan ere, badirudi Dialektologiak Linguistikari zeozer dakarkiola, beste gabe.

Hitzaldi hau sail horretan kokatuta dago eta beharrezkoa da, nire uztez, hartuemon horietaz ikuspegi zehatzagoa eta konplexuagoa eskaintzea. Jakin badakigu Dialektologia Hizkuntzalaritzaren adar bat edo azpigai bat dela, zeren inork ez luke sostengatuko Dialektologia, berez, gai autonomoa denik (beste kontu bat da, jakina, atlasgintza eta horretan ez naiz sartuko). Hori delata, argitu behar da non kokatu Dialektologia eta hortik hasiko naiz.

## 1. Dialektologiaren kokagunea

Orain dela gutxi argitaratutako artikulu batean (ROTAETXE 1990) Hizkuntzalaritza Orokorrak azpiarlo nagusi bi dituela erakutsi dut: Mikrolinguistika eta Makrolinguistika. Lehenengoan hizkuntz-azterketarako Mailak ikasten dira, teoriaren aldetik eta praktikaren aldetik, hau da, Linguistika teorikoa eta Linguistika deskribatzailea ditugu Mikrolinguistikan; batean eta bestean Fonologia, Morfonologia, Morfologia, Joskera eta Semantikaren parte bat bereizten dira. Gai horien helburua ezaguna da eta ez naiz horretaz arduratuko.

Makrolinguistikan, ordea, beste gai mota batzuk ditugu: Fonetika, Pragmatika, interdiziplinarrak diren ikasgaiak, Soziolinguistika, Linguistika Aplikatua adibidez, eta Dialektologia ere arlo honetan legoke. Pentsa daitekeenez, azpiarlo bi hauek badituzte elkar lokarriak, bien artean Linguistika Orokorra osotzeko. Artikulu horretan erakutsi nuen Makroren azpigaiek Mikroren funtsezko oinarri batzuk gorde behar dituztela eta honen metodologiari jarraitu; oinarririk garrantzitsuena oso ezaguna dugu: hizkuntza sistema bat da eta, ondorioz, egitura bat erakusten du. Baldintza hauen pean Makroren ikasgaiak Linguistikaren parteak dira.

Bestalde, badakigu Linguistikak, zientzia guztiak bezala (Matematika, salbu) adostasun enpirikoaren froga bete behar duela. Beste modura esanda, hizkuntz azterketak erabiltzen dituen datuek errealak izan behar dute. Alde horretatik, bistan dago Dialektologiaren ekarpena interesgarria izan daitekeela baldintza batzuenpean. Eta zeintzuk diren baldintza horiek ikusi behar da.

## 2. Dialektologiaren helburua eta zeregina

Dialektologiaren hastapenak XIX. mendean izan ziren eta bere garapena mende honen hasieran. «Junggramatiker»-ek edo neogramatikoeak bultzatu zituzten estudio mota hauek, euren lege fonetikoaren ondorioak egiaztatzeko. Eta, ezaguna denez, ondorioek erakutsi zuten, neogramatikalarrien iritziaren aurka, lege horiek ez zirela «itsuak» hitz guztietan era berean betetzen ez zirelako, Hugo SCHUCHARDT-ek 1886ko artikulu famatuan adierazi zuenez

«über die Lautgesetze, Gegen die Junggrammatiker (Lege fonetikoiei buruz, Neogramatikararien aurka)». Beraz, Gramatika historikoarekin (eta bereiziki Fonetika historikoarekin) lotuta jaio zen Dialektologia, eta gramatika historikoaren beharrezko osagaitzat jo zuten gai hori orduko ikertzaileek.

Harrezkero, Dialektologiaren kezkarik handienetariko bat hitzen fonetismoa izan zen (Fonetikaz baliatuz eta ez Fonologiaz, jakina) eta hitzen «bizitza». Lekukotasun bi aipatzeko, hor dugu Frantziako Jules Gilliéron (GILLIERON et ROQUES 1912) hiztegiak, batez ere, arduratzen zena eta Espainian, Ramon Menéndez Pidal, fonetista eta dialektologoa izan zena eta, jakina, gramatika historikoaren ikertzailea. Ikasketa fonetikoaren garrantzia ulertzeko, gomutau behar da garai horretan, 1888an hain zuzen, delako *Association Internationale de Phonétique* (A.P.I.) sortu zela. Eta hitzen bizitzari dagokionez, garai horretako filologo batek, Gaston Paris-ek, alegia, horrela dio: “Chaque mot devrait avoir sa monographie établie avec autant de rigueur que dans les sciences naturelles”. Aipamen honen edukina interesgarria da beste arrazoi bategatik: badirudi Gaston Paris-entzat, orduko filologoentzat legez (Schleicher dugu adibiderik argiena), zientzien eredu zientzia naturaletan topau behar zela; ezaguna denez, dialektologoen iritzia halakoa zen (eta behar bada, oraindino ere bada, batzuen kasuan). Hizkuntzalariorik, ordea, ez genituzke hizkuntz ikastetak zientzia naturaletan sartuko, sozialak direlako.

Dialektologiaren eginbearra dialektoen eta hizkeren datuak edota hatzak (rasgoak) jasotea da, lehenbizi, denboran zehar gonbarazioak ataratzeko, edota beste euskalki baten (edo batzuen) datuekin gonbaratzeko. Gonbarazio honetan datza Dialektologiaren helburua eta helburu hori ez da bat ere arduratzen dialekto edo hizkera bakoitzaren egituraz. Oso sarritan, gainera, Dialektologiak Hizkuntz Geografiak legez hizkuntz datuak interpretatzeko momentuan, kanpoko informazioa hartu du kontutan, irizpide estralinguistiko baliatuz (LACROIX 1969, 220). Argi dago, beraz, Dialektologiaren garapena eta Linguistikarena guztiz aurkakoak izan direla, helburuaren, zeregina- ren eta, jakina, metodologiaren aldetik. Aipatutako idazleak dionez, Dialektologiaren lanak horrela laburtu ahal dira: hitzen zerrenda bat emanda gero, ahaleginak egiten dira korrespondentzia fonetikoak aurkitzeko dialekto desberdinetako hitz zentzukideen unitate fonikoen artean. Zalantza barik, Dialektologiaren estudioak taxonomikoak izan dira, kasurik onenean, eta hiztegi- ra edota fonetikara mugatuak.

Gauzak holan, Dialektologiaren ekarpena interes gutxikoa da Hizkuntzalaritzarako.

### 3. Hizkuntzalaritzak Dialektologiari eskatzen diona

Linguistikan, hizkuntza eta hizkera guztiak sistemak direla hartzen da abiapundutzat; honek esan nahi du edozein hizkuntzatan, elementu guztiak erlazioztatuta daudela eta Linguistikaren eginbearra erlazio horiek azaltzea

dela. Horregatik esaten da ikasketa linguistiko batek hizkuntz egituraren berri eman behar duela. Funtsezko ideia hau Mikrolinguistikaren atal nagusi biei dagokienez gero (Hizkuntz Teoriari eta Linguistika deskribatzaileari), hizkuntz deskripzioek zenbait baldintza bete behar dute osotasunaren aldetik, koherentziaren aldetik eta ekonomia-aren aldetik. Eta baldintza hauek Dialektologiak bereganatu beharko lituzke Linguistikaren parte izateko. Bestalde, badakigu dialektoen datuak jaso eta gonbaratu behar dituela eta, helburu bikoitz honen aurrean betiko eragozpena ageri da: zelan integratu sistema baten barruan dialektoen aniztasuna eta dialektoen arteko aldakuntza. Prolema horri irtenbide bat emateko Dialektologia adar bat sortu zen.

### 3.1. Dialektologia estrukturala

Dialektologia estrukturalaren oinarriak Trubetzkoy-ek<sup>1</sup> adierazi zituen 1931an, bere artikulu ospetsu batean: *Phonologie et géographie linguistique*. Egileak aipatzen zuen isoglosak sailkatu behar zirela irizpide fonologikoen bidez, dialektoetako soinuen artean beharrezko hierarkizazioa ager zedin. Sarritan jazoten denez, ideia hauek askoz geroago izan ziren onartuak eta 1954an Uriel Weinreich-ek proposamen bat egin zuen: *Is a Structural Dialectology possible?* (WEINREICH 1954). Joera berri horren abiapundua zera da: dialektoen fenomenoek ikertuak izan behar dute herriko hizkeretako sistemen markoan, hau da, linguistika estrukturalak eskatutako baldintzetan. Horrez gainera, Dialektologia estrukturalak erkatu beharko lituzke hizkera desberdinetako egiturak edo estrukturalak. Proposamen horren osteko zenbait artikulutan, ikertzaileek kezka eta eskaera bera azpimarratu dute: hizkeren sistema ezberdinen artean ematen diren aldeek eta antzekotasunek aipatuak izan behar dute, hizkera horiek duten diasistema ataratzeko.

Joera honi buruz, irizpideak desberdinak eta aurkakoak dira. Esate baterako, lehen aipatu dudana Jean François Lacroix-ren ustez Dialektologia estrukturalaren eginbeharra guztiz egokia da: “La caractéristique essentielle de la recherche dialectologique contemporaine est de se placer dans un cadre théorique résolument et rigoureusement linguistique quels que soient les facteurs externes (géographiques, sociaux..) pris en considération. Ainsi naît peu à peu une dialectologie nouvelle dont on peut espérer qu’elle parviendra à résoudre nombre de questions laissées jusqu’à maintenant en suspens”.

1. Argi utzi behar da *Trubetzkoy* unitateko azken fonema (y grafemaren bidez ordezkatuta dagoena) sarritan glidetzat hartua izan arren eta, euskarazko interpretazioan, bokaltzat (*Trubetzkoy*-k esaten dute batzuk) ez da ez bata, ez bestea. Errusoaren fonemen banaketak azaltzen duenaren arabera, kontsonante frikaria da (VACHEK 1968, 194). Hori dela eta, euskal ergatiboaren morfema eranstea, beharrezkoa da epentesia (*Trubetzkoy*-e-k). Antzekoa dugu euskararen kasua: bokal baten ostean datozen /j/ eta /w/ kontsonanteak dira katean (ikus ROTAETXE 1978, 67-68).

Luis Michelenak (1976) beste era batez ikusten ditu gauzak *La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas* artikulua arabera, behinik behin. Mitxelena-ren iritziz, dialektologiaren inkestarako tekniketan aurrerakada handiak gertatu arren, “uno se atrevería a afirmar que las bases teóricas de la dialectología no han mejorado, ni mucho menos en la misma medida. Así, no se está hoy más cerca que hace cien años por lo que respecta a la definición y medida de la divergencia dialectal” (319. orr.). Eta Dialektologia estrukturalari buruz, horrela dio: “La transcripción de los sonidos sigue siendo fonética y lo fonológico es a lo sumo algo que, en segundo término, se puede extraer de los datos fonéticos. Los rasgos diferenciales se siguen eligiendo por razones de comodidad; se tienen en cuenta rasgos, no sistemas y el léxico, que sigue constituyendo el componente central de los cuestionarios, va orientado hacia lo etnológico, es decir hacia la referencia. No hay teóricos o prácticos del campo semántico entre los dialectólogos o, si los hay, forman una minoría exigua” (320. orr.). Diasistema nozioari dagokionez, bere iritzia ez da hobe: “Los diasistemas, una de las aportaciones del estructuralismo a la comparación interdialectal, se han mostrado después tal como eran: algo que no es ni carne, ni pescado, que no quiere adherirse a la interpretación histórica tradicional pero que tampoco puede mantenerse en el plano sincrónico...”.

*Diasistema* nozioaren aurkako Mitxelenaren iritzi hau guztiz gogorra da, batez ere kontutan izaten badugu nozio hori erabilia izan zela euskararen batasunerako prozesuan. Hain zuzen ere: *II. Arantzazuko Txostena: Argitzapenak, II, 1. Ze batasun bila galbiltzan/Oinarriak* delako dokumentoan eta II.1.7. Atalean hau irakur daiteke: “Egia da hizkuntza bat sistema dela, eta sistema horren zatiak edo osagarriak ez direla deus sistemaz kanpora. Aitortu beharrean gara, ordea, mamira bagoaz, euskara ez dela oraingoz sistema bat, diasistema bat baizik, eta diasistema horren itxura batera heldu behar dugula, gero mamia batuko baldin badugu” (LARRESORO 1975, 26).

Azken ideia hauek kritikatzeko sartu barik (merezi al du, gaur?) bistan dago kontraesanetik kontraesanera eraman gaituztela goiko lerrook. Horregatik, beste modu batez begiratu beharko diogu arazo honi eta, hasteko, dialektoei buruzko definizio zehatzago bat finkatzen saiatuko gara.

#### 4. Hizkuntza eta dialektoak: hartuemonak

Hizkuntzaren definizioa gerorako utzita, komenigarria da orain zeri deitzen diogun *dialektoa* argitzea. Dialektoaren mugapenak asko izan dira, baina onenatariko bat, nire ustez, Stewart-i zor diogu. Linguista honek hizkuntz barietateak sailkatzeko, zenbait ezaugarri erabiltzen du: *Standardization*, *Autonomy*, *Historicity* eta *Vitality* (STEWART 1968, 537 eta interpretaziorako ROTAETXE 1988, 25-31). Hain zuzen ere, *Autonomia* ezaugarria falta zaion barietatea, horixe da dialektoa. Izan ere, *dialekto* nozioa ez da absolutua, erlatiboa da, beste nozio batekin lotuta dagoelako: *norma* ala *standar* nozioekin,



alegia. Horregatik, dialektoek ez dute autonomiarik eta *heteronomoak* dira. Hau dela ta, goiko akatsa larriago agertzen zaigu. Izan ere, Dialektologiari eskatzen zaiona zera da: ugaritasunaren edo aniztasunaren berri ematea, baina batasun baten barruan.

#### 4.1. Hizkuntzaren barietateak

Egia esateko, akats hori ez dagokio Dialektologiari, hizkuntzari baino. Munduko hizkuntza guztiek barietate mota asko azaltzen dute derrigor: edo euren hitzunak toki ezberdinetan bizi direlako eta, labur esateko, esango dugu barietate hauek diatopikoak direla, edo hizkuntza hori darabilten hitzunek errol sozial ezberdinak bete behar dituztelako (ROTAETXE 1988) eta esango dugu harako barietate horiek diastratikoak direla, edo hitzunak berak estiloz aldatu nahi duelako (barietate diafasikoak) edo komunikatzeko kanal desberdinez baliatzen delako (barietate diamesikoak). Dena dela eta zalantza barik, hizkuntza bizi guztiek barietate mota asko aurkezten dituzte, barietate horiek beharrezkoak izaten zaizkie hitzunei; alde horretatik hizkuntza erreferentzia-multzoa baino ez da (ROTAETXE 1988); munduan, ez dago hizkuntza homogeneorik, hizkuntza artifizialak izan ezik, behar bada. Halan eta guztiz ere, hizkuntza baten bidez, elkarrekin komunikatzen gara hizkuntz komunitate baten barruan. Eta honek esan gura du komunikatzeko sistema bat dugula, barietate ugariak edo -hitz tekniko batez baliatuz- *aldakuntza* (*variation, variation, variación*) izan arren.

Gauzak holan izanez gero, hizkuntz sistema ideia berrikusi behar dugu, derrigor, goian aipatu dugun batasun nozioa zelakoa den zehazteko.

### 5. Hizkuntz Sistemaz

#### 5.1. Sistema itxia

Ezaguna denez, Saussure-ri (1916) zor diogu nozio hori. Bere *Cours de Linguistique Générale* delakoan nozio hau funtsezkoa da hizkuntz elementuek erlazionatuta egon behar dutela adierazteko; jakina denez, ideia berri hori guztiz emankorra izan zen Linguistikaren gaia edo objektua (*langue vs. parole*) finkatzeko.

Sistemari buruz, funtsezko ezaugarriak aipatu zituen Saussurek: “un système où tout se tient” edo “un système que ne connaît que son ordre propre”. Horrek esan gura du Saussure-ren ustez, hizkuntz sistemak itxia izan behar zuela derrigor (*langue*-ren erlazioak eta ez *parole*-renak) eta horregatik sistematik kanpo (*langue*-ren kanpo) jazoten diren fenomenoetaz Linguistikak ez du arduratu behar, *kanpoko linguistikari* edo “*linguistique externe*”ri dagozkionalako. Argi dago fenomeno horien artean *aldakuntza* dagoenez gero,

Dialektologiarako eta Soziolinguistikarako, adibidez, preminatsua den *aldakuntza*-k ez du Saussure-ren sisteman sartzerik.

Sistemaren ikuspegi horren aurka, geroko abots batzuk altzatu dira eta Coseriu-k, adibidez, bere *Sincronía, diacronía e Historia*-n (1973, 147) holan diosku: “la lengua [...] no es un sistema cerrado, sino abierto”, baina bere ikuspegi honen aldeko arrazoi teorikorik eman gabe. Beste adibide bat emateko Martinet-engandik sortutako *Linguistique Fonctionnelle* eskolak *synchronie dynamique* nozioa onartzean (erreferentziak ugariak dira eta berriena, agian, MARTINET 1990) hizkuntz sistema zabalik dagoela onartzen dute, baina, lehen legez, horretarako arrazoi teorikoak falta dira. Saussurek eskaini zuen hizkuntz sistema oso garrantzitsua izan zen eta da; baina komunikazioa azaltzeko ez du balio eta, Claude Hagège zuzen dago zera dioenean (HAGEGE 1985): “Dans la langue ainsi conçue tout se passe comme si personne ne parlait”.

Arazo horretaz, ikerkuntza-lan batean erakutsi nuen nahiko aspalditik hizkuntz sistema ezin izan daitekeela itxia irekia delako eta izan behar duela (ROTAETXE 1985). Tesi honen alde, orduan eskaini nituen frogak mota bitakoak dira: epistemologiarekin lotuta dauden frogak teorikoak eta frogak praktikakoak. Azken hauek goiko lerroetan ageri dira: hizkuntza denei dagokien aldakuntza erreala izan arren, beraren berri ezin dezakegu eman sistema itxia dela onartuz gero; beraz *a contrariis* arrazoiagatik, irekia dela pentsatu ahal eta behar dugu. Froga teorikoak, oraintxe ikusiko ditugu.

## 5.2. Sistema irekia

Sistemetz arduratzen den zientzia *Sistemen Teoria Orokorra* deitzen da edo *General System Theory*, edo *Théorie Générale des Systèmes*, edo *Teoría General de Sistemas*. Ezin dut hemen zehatz eta mehatz azaldu horren edukina, baina sistema guztiak bereizten dituzten ezaugarriak komeni da aipatzea:

-sistema guztiak irekiak dira, eta ez dira itxiak (cf, BERTALANFFY 1968) Ingurune batean bizi (eta funtzionatu) behar dutelako, sistema guztiak ingurune horrekin erlazionatuta egon behar dira; sistema multzotzat har daitekeela onartuz, orduan multzo osagaitzat hartu behar da ingurunea (RINCON 1985).

-sistema guztiak dinamikoak izan behar dira eta ez dago sistema estatikorik (BERTALANFFY 1979).

-sistemaren eta multzoaren arteko paralelismoa onarturik, multzo baten azpimultzoak bereizten diren bezalaxe, sistemaren barruan ere azpisisistemak bereizi ahal dira; egia esateko, sistema azpisisistemek eratuta dago, multzoa azpimultzoek eratuta dagoen legez. Aipatutako dinamismoagatik, azpisisistema hauek elkarregintzan (*interaction*) aurkitu behar dute (WALLISER 1977), edo beste era batera esateko, azpisisistemen artean elkar-trukaketak jazoten dira eta jazo behar dute.

-sistemek *helburu* bat lortzeko funtzionatzen dute (RINCON, 1985) eta helburu hori lortzeko sistemaren parteak koordinatuak izan behar dira (CHURCHMAN 1974).

-*elkarregintza* edo interakzioaren fenomeno hauek ematen dira bai sistemaren parteen (azpisisistema) artean eta bai sistemaren eta ingurunearen artean. Hau da, inguruneak sistemari eragiten dio eta sistemak inguneari eragiten dio; horregatik, aipa daiteke elkarregintza edo interakzioa.

-interakzio prozesu horretan elkar trukutzen dena ezberdina izan daiteke sistema moten arabera. Ikertzaile sistemiko batzuek esan dute sistema mota batzuetan trukutzen dena *informazioa* dela. Gure kasuan, ontzat har daiteke *informazio* nozio hori jazoten den elkarregintza mota partikularra azaltzeko. Jazoten dena hau da: gizarteko fenomeno bategatik edo beste bategatik, hau da, *informazio* mota bategatik, hiztunaren portaera aldatu ohi da eta, berba egiteko momentuan, barietate bat ala beste bat aukeratu du. Argi dago, beraz, ingurunetik etorritako *informazioak* baduela bere eragina hizkuntz sistemaren barruan. Alderantzizko norabidea ere jazoten da: hain zuzen ere hizkuntz sistemaren barruan *informazioa* elaboratzen da (ikus. beheago) eta hortik ingurunera (gizartera) joaten da: esaterako, hizkuntzaren barietate bat edo estilo bat, hizkuntz arrazoiakatik, jatorriago edo prestigioitsuago aurkezten denean, barietate hori erabiltzen duten gizarteko partaideek ere prestigioitsuagoak ageri dira. Norabide bi hauek izendatzeko ikertzaile sistemikoek sortutako terminoak guk ere erabiliko ditugu: ingurunetik sistemara doan eragina *intrantea* izango da eta bestea, *estrantea*.

-sistema hierarkizatuta dago eta, azpisisistema batek sistema osoaren *pilotajea* asumitzen du, kontroleramailea delako (RINCON 1985). Beste era batera esanda, azpimultzo batek zuzendaritza daroa.

Sistemen ezaugarriak interesgarrienak ikusita gero, jakin behar da orain ea hizkuntz sistema batean edo, hobeto esateko, hizkuntz komunikazio-sistemaren (H.K.S.) ezaugarri horiek azaltzen diren ala ez, eta baiezkoan, zer modutan.

## 6. H.K.S. irekia: Ezaugarriak

Hiru puntu nagusi ikutuko dira hemen. Lehenengoz, azaldu behar da zeintzuk diren H.K.S.ren parteak edo azpisisistemak, Sistemen Teoria Orokorren ereduari jarraituz. Horri *egitura* dei egingo diogu eta 6.1. atalean ikusiko da. Bigarrenez, erakutsi beharko da zelan funtzionatzen duen H.K.S.k eta, batez ere, zer hartuemonetan dagoen ingurunearekin. Arazo honetaz 6.2. atalean arduratuko gara. Azkenez, 6.3 partean, H.K.S.ren deskripzioa aurkeztuko dut. Proposatzen dizuedan planteamendu hau zeharo berria da eta, ulermena erraztuteko, transparentzietaz baliatuko naiz (ikus K1 eta K2).

## 6.1. Egitura

Ingurune batean sartuta dagoen eta ingurune horrekin hartuemonetan dagoen multzotzat har dezakegu Hizkuntz Komunikazio-Sistema. Lehenbiziko erlazio mota hori azpimarratu behar da: gizarterik gabe, ez genuke hizkuntzarik (hizkuntza bizirik, jakina) eta hizkuntzarik gabe ez genuke gizarterik (ezagutzen dugun gizartea, behinik behin). Beste modu batera esanda, gizarteak sortarazten du hizkuntza eta hizkuntzak sortarazten du gizartea: erlazioa dialektikoa da.

Multzo horren barruan, hiru *azpisistema* (AS) mota bereizten dira: batzuk periferikoak eta beste batzuk barnekoagoak. Mota bakoitza izendatzeko subindizeak erabiliko ditut eta  $\text{cAS}$ -ak izango dira periferikoak (bat baino gehiago bait dira), besteak  $\text{bAS}$ -a eta  $\text{aAS}$ -a izanik. Ez da ahaztu behar azpisistema mota ezberdinen bidez, hizkuntz sistema barietate ezberdinen berri eman gura dugula (cf. 6.3.) eta multzo osoaren bidez, hizkuntz sistema osoaren berri. Gauzak holan izanik gero, azpimultzo bakoitzean egiten den hizkuntz elaborazioa ez da bat ere berdina izaten beherago aztertuko denez. Ondoko irudiak erakusten du egoera eta ez da esan beharrik eskema edo bisualizazio baten aurrean gaudela, bere abantailekin eta eragozpenekin (ikus K1).


## 6.2. Funtzionamendua

Funtzionamendua ulertzeko, gogoan eduki behar da  $\text{cAS}$  taldekoen eta ingurunearen arteko erlazioa dialektikoa dela eta horrek zera esan gura du:

a) ingurunetik ez dator intranterik, ingurunerantz estranterik ez badoa. Alde horretatik, eremu geografiko bakoitzak informazioa bialtzen dio  $\text{cAS}$  bati eta honek eremuari (egia esateko, eremu horren hiztunei) informazioa bialtzen dio, hizkuntza erabiltzeko momentuan era batez ala beste batez berba egiteko, hau da, dialekto bat (ala beste bat) edo dialekto baten ezaugarri batzuk (ala beste batzuk) erabiltzeko. Barietate sozialei dagokienez, antzeko elkarregintza jazoten da eta, gizarteko (hau da, ingurune) intranteen arabera, barietate bat ala beste bat aukeratzen dute hiztunek, aukera horri dagokion eremu sozialean erabiltzeko.

b) sistemaren barruan, informazio-mota bat *intrantea* ala *estrantea* den jakiteko, erreferentzia-pundu bat hartu behar da. Gure kasuan azpisistema periferikoetatik hasita (lehenak baitira kronologiaren aldetik)  $\text{cAS}$  horietatik hurrengo azpimultzorantz irteten den informazioa *estranteak* izango dira  $\text{cAS}$ -ren ikuspuntutik,  $\text{bAS}$ -ren ikuspuntutik *intranteak* izan arren. Bistan dago, baina,  $\text{cAS}$  horiek ere, *intranteak* hartzen dituztela  $\text{bAS}$  azpisisematik.

$\text{aAS}$ -ri dagokionez, intranteak hartzen ditu  $\text{bAS}$ -tik eta horri estranteak bialdu, erlazio dialektikoa mantenduz. Azpisistema moten artean, bestalde, ordenazio bat dugu, eta honen arabera,  $\text{cAS}$ -ek, esaterako, ez diote estranterik bialtzen  $\text{aAS}$ -ri, ez eta honetatik intranterik hartu ere. Hitz batez, muturretan



K1: SISTEMAREN EGOERA

dauden azpimultzoek ez dute elkar erlazio zuzenik, zeharkakoa eduki arren  $b$ AS-ren bitartez. Funtzionamendu hau ondoko transparentzian (ikus K2) ageri da.

### 6.3. Deskripzioa


#### 6.3.1. $c$ AS

Periferikoak direla eta, ingurunearekin ukipenean daude. Horrek esan gura du azpimultzo hauen (berehala ikusiko dugu bat baino gehiago izan behar) eta ingurunearen arteko elkar-erlazioak estuak direla. Gerorako utziko ditugu  $c$ AS-etatik ingurunera doazen estranteak, gure azterketa sistemara mugatzeko. Esan daiteke, orduan, ingurunearen eragina nabari dela hortik etorritako intrante ugarien bidez. Eta egoera hau ez da bat ere harritzekoa. Izan ere, hizkuntzaren barietate bat edo hizkeraren bat  $c$ AS motakoa izateko, baldintza nagusi bat bete behar du: inguruneari egokitzeko beharra. Hori dela ta,

gorago esan dugu  $c_n$ AS bat baino gehiago direla: hain zuzen ere, ingurunea aldakorra da geografi parametroen edota eremu sozial ezberdinen arabera. Eta ingurune mota bakoitzari moldatu egiten zaizkio barietateak edo hizkerak. Hauen artean nabarmentzen dira barietate diastratikoak eta diatopikoak. Adibideak ezagunak dira: egokitzeko funtzio hori dialektoek betetzen dute eta, toki konkretu baten hizkera erabiltzean, hiztunak erakusten du bere batak ingurune horri moldatu gura dizkiola. Barietate diastratikoaren artean egiten den aukerari buruz, denok dakigu etxean edo lagunekin ez dugula berba egiten administrazioko bulego batean bezala, *gizarte-eremu* bi ezberdin bi direlako; beraz, Dialektologiaren kasuan legez, Soziolinguistikak aztertzen dituen barietateak eremu sozialei egokitu behar zaizkie. Aipatutako kasuan, barietate biak, bata (-formala) bestea (+formala),  $c_n$ AS-koan izaten badira ere (kasu bietan ingurunearekin ukipenean baitaude) ezberdinak izan behar adostasunaren oinarriagatik. Beraz, erregistro sozialak bakarrik kontutan edukiz,  $c_n$ AS bat baino gehiago dugu. Horrez gainera -eta hau da hemen interesatzen zaiguna batez ere- hiztunok toki geografiko konkretu batzuetan jaio edota bizi gara eta toki horien arabera barietate geografiko bat (dialekto bat edo hizkera bat) dugu bernakularra, hau da, jaiotzez barneratua. Hizkuntzaz hizkuntza, dialektoen (edo hizkeren) kopurua aldakorra izan daiteke, jakina denez, baina ez dago dialekto bariko hizkuntza naturalik. Gauzak holan izanik, azpisisistema hauen kopurua aldakorra da; horregatik, aurkeztutako eskemetan kopuru hori mugatua izan arren, pentsatu behar da halakoa izan behar duela:  $c_1$ AS,  $c_2$ AS,  $c_3$ AS ...  $c_n$ AS. Sistema osoaren barruan, azpisisistema hauen kokagunea transparentziak erakutsi du (ikus K1).

Bestalde,  $c_n$ AS-ak azpimultzotzat hartuz gero, *injuntuak* direla aipatu behar da, intersektzioak dituztelako, hau da, elementu amankomunak. Ezaugarri garrantzitsu hau oso argi nabari da dialektoen banaketan: elkar-mugaketarik ez dago, *isoglosak* baino. Jakina denez, Dialektologiak erakutsi du dialektoaren batasuna faltsua dela, gure dialektologorik handiena. Bonaparte Printzea alegia, horretaz ohartu ez bazen ere. Beraz, gure eremuan, azpimultzo injuntuen bidez adierazten dugu barietate diatopikoei dagokien ezaugarri hori (ikus K1).

Inguruneak hartzen dituen intrantei buruz, hitz bi. Azpimultzo hauen hizkerak (edo barietateak) inguruneari eragiten diote estranteen bidez. Honi buruz, gomutau gura dut hizkera edo barietateren batek, zenbait arrazoigatik eta hizkuntz barietate legez, *prestigio*-balioa hartzen badu, balio soziala ere erraz hartzen duela eta bere usuario sozialak, hau da bere hiztunak, prestigio-dun sentitzen dira gizartean, eta prestigioitsu bihurtzen dira besteen aurrean. Hortaz hiztunaren prestigioak gizarteko partaidearen prestigioa dakar. Eta sortzen den erlazioa dialektikoa denez gero, prestigio sozial honek indartu egiten du berriro barietatearen prestigioa. Bide batez, gomutau eragin behar da *prestigio* ezaugarri honetan datzala hain famatua izan den gure artean



K2: AZPISISTEMEN ARTEKO ERLAZIOAK

K= Kontrola  
S/I= Sarrera/Irteera  
I/E= Intrantea/Estrantea

*diglosia* nozioa. Fenomeno hau, jakina denez, sistema baten barietateen artean gertatzen da (FERGUSON 1959) edota hizkuntza ezberdinetakoa barietateen artean (FERGUSON 1959; FISHMAN 1967, beste ikertzaile batzuen artean). Kasu batean eta bestean, ondorio bera jazoten da: hiztunek prestigiodun hizkera (edo hizkuntza) erabili gura dute gizartearen partaide prestigiosu sentitzeko.

Hizkuntz komunitatea elebiduna eta diglosikoa denean,  $c$ AS motako barietate batzuek, (-formal) ezaugarri dutenek alegia, erraz aurkezten dute hizkuntz ukipenean jazo daitekeen fenomeno bat: *kode trukaketa*. Prozedura honen medio, hiztunak ukipenean dauden hizkuntza biak erabiltzen ditu esaldi berean hizkuntza bakoitzaren erregelari (fonologikoei eta gramatikalei) min egin barik, orain dela gutxi ikerkuntza lan batean erakutsi dudanez (ROTAE-TXE 1991).

Azkenik, ez dira nahastu behar ahozko barietateak eta azpisistema hauen barietateak. Hauetariko batzuk ahozkoak izan arren, idatziak ere izan daitezke: dialekto askok idazkera finkatuta dute eta batzuek literatura ona.

### 6.3.2. $b$ AS

Azpisistema honi dagokion barietatea (edo hizkera) bakarra da eta intrante mota bi hartzen ditu:  $c$ AS-etatik eta  $a$ AS-tik; trukez, estranteak bialtzen ditu lehenengoetara eta bigarreneira. Ingurunearekin ukipenik ez dauka eta,  $c$ AS-ak baino askoz gutxiago moldatu behar zaie egoera sozialei edota toki geografikoei.

Hori dela ta,  $b$ AS-ren helburua oso desberdina da: ingurunearekiko adostasuna izan ordez, hizkera "intelektual" bat eskaintzea da, Praga-ko linguisten terminologiari jarraituz (HAVRANEK 1929) eta honek esan gura du "galbache" baten funtzioa duela. Adibidez,  $c$ AS-etatik datozkion intrante ezberdinen arteko aldeak edo diferentziak neutralizatu egiten ditu  $b$ AS honek, jatorrizko marka bariko barietate (edo hizkera) amankomunago bat eskaintzeko.

Guzti honek azaltzen du bere barruan egiten den hizkuntz elaborazioaren mota.  $b$ AS honetan beste azpisistemetakoa elementuak edota rasgoak aurkitzen dira sarritan. Hiztegian, ugaritasun horrek zentzukideak eman ditzake eta kodifikatuagoak diren hizkuntzaren parteetan (fonologia eta gramatika, alegia) zenbait araturen alternantzia. Hori dela ta, barietate hau erabiltzean, hiztunek aukera handiak izan beharko lituzkete, teoriarik, bai hiztegiaren aldetik eta bai gramatikaren aldetik, baina gauzak ez dira horrela gertatzen posibilitate horiek  $a$ AS-ren eraginak murrizten dituelako, beheago ikusiko denez.

$b$ AS-ri dagokion barietatea, ikasia izan daiteke eta izaten da sarritan hiztun askorentzat,  $a$ AS-ren intranteek duten indarraren arabera, berehala ikusiko denez. Aldaketa diamesikoari buruz, hau da *ahozko/idatzia*-ren oposizioari



buruz, esan behar da barietate hau ahozko erabileran agertzen bada ere, idazkera landuan aurkitzen dela batez ere.

### 6.3.3. $\text{aAS}$

Azpisistema honek *pilotajea* edo sistema osoaren *kontrola* darama eta helburu honetan datza bere garrantzia (ikus K2).

Modu bitan ikus daiteke barietate honen hizkuntz edukina. Hitzunaren sistemari begiratzen badiogu, orduan hitzunaren barne-arauak (zein fonologiakoak, zein gramatikalak) kokatzen dira hemen. Beste era batera esanda, hitzuna hizkuntzari buruz duen ezaguera implizitua. Ezaguera horri esker, hitzuna gaitasuna edo kompetentzia du bere hizkuntzaren elementuak (fonologiakoak, gramatikakoak eta hiztegikoak) zeintzuk diren jakiteko eta zeintzuk ez. Era berean, ezaguera horren bidez, hitzuna gauza da bere hizkuntz erreperitorioa -hau da, erabiltzen dituen barietate guztiak- kontrolatzeko. Eta horregatik, “dialektorik txarrena” (batzuen ustez) darabilen hitzuna ere, bere hizkuntza menperatu egiten du, zalantza barik, barneratua duen hizkuntz sistemaren barruan  $\text{aAS}$  eduki behar duelako.

Beste era batez ikus daiteke  $\text{aAS}$ -ren edukina. Hizkuntz komunitate batean, normatibizazioaren prozesu bat izan bada, hortik datorren barietatea, hau da *norma esplizitua* (ROTAETXE 1988, 27), azpimultzo honi dagokio. Hain zuzen ere, barietate horren kodifikaziorako arrazoiak ondokoak izaten dira: hitzunei eredu bat eskaintzea eta, Hizkuntz Politika jarrita dagoenean, gonbarazioaren bidez, beste barietate guztiak kontrolatzea. Norma hori, esplizitua izateaz gainera, formala eta bateratzailea denean (*norma*-ren eta *standar*-en alde ezaugarri hauetan baitatza), orduan  $\text{aAS}$ -ren intranteak boteretsuak izaten dira eta  $\text{bAS}$  barietateari gogor eragiten diote. Honen bitartez, gainera,  $\text{cAS}$  motako barietateei ere heltzen zaizkie intranteak, sistema osoa kontrolatzeko.

Ondorioz, hizkuntz sistema homogeneitaterantz joaten da helburu hori lortzen ez badu ere. Dialektoei dagokienez, halako norma baten eraginak desagiten ditu (*dé-structuration*, Labov-ek dionez; LABOV 1976, 407), prozesu luzeago ala laburrago baten ostean: hasiera batean, barietate hauek prestigioa galtzen dute gizartearen barruan eta apurka-apurka euren hitzunek laga egiten dituzte.

Hori jazoten denean, hizkuntz sistemak barietaterik bizienak -bernakularrak direlako- galtzen ditu eta galtze horrekin, sistema horren usuarioek elkarrengintza mota ugariak baztertu ahal dituzte eta *hizkuntz segurtasuna* (*language security*) galdu. Gauzak holan izanik, azpimultzo honek daroan kontrola zaintzekoa da alde guztietatik.

### 6.3.4. Hizkuntz Sistema Orokorra

Onartzen badugu hizkuntzak sistemak direla, orduan egokitu behar zaie, duda barik, beste sistema guztiei egokitzen zaien azalpena. Hau da goiko lerroetan egin dudana eta aplikazio horren arabera, argi ikusi da hizkuntza naturalak ez direla ez itxiak, ez eta homogeneousak (beste kontu bat da, jakina, esperantoa eta antzeko hizkuntza artifizialak). Azalpen honek dialektoen aldakuntza hobeto ulertzeko laguntzen du, nire ustez, eta horregatik Dialektologiaren barruan interesgarria izan daiteke. Bistan dago, dena dela, hizkuntza deritzanak barietate asko dituela eta izan behar dituela. Alde horretatik, goiko lerroetan esan denez, hizkuntza naturalak *erreferentzia-multzoak* baino ez dira hiztunontzat.

## 7. Ondorioak

Hitzaldi honetan Dialektologiak betidanik izan duen prolema, aldakuntzari dagokiona, alegia, azaltzen ahalegindu naiz.

Horretarako, Linguistikaren eta Dialektologiaren arteko erlazioak aztertu ditugu hasieran. Argi geratu da Dialektologiak ekar diezaiokeena Linguistika deskribatzaileari funtsezkoa izan daitekeela, baldintza batzuen pean.

Hori finkatuta gero, aldakuntza hizkuntzari berari dagokiola ikusi da eta ez bakarrik Dialektologiari. Eta horregatik, aldakuntza horren berri eman dugu hizkuntz sistemaren barruan, Sistemen Teoria Orokorraz baliatuz. Proposatutako hizkuntz sistemaren deskripzioa eta funtzionamendua berriak dira eta, dudarik gabe, oraintsu arte onartuak izan direnak baino askoz konplexuagoak eta, agian, gaitzagoak. Baina zientzia guztietako prolema sakonak gaitzak izaten dira aztertzen eta konpontzen. Eta bistan dago prolema sakon hauetariko bat lengoaiarena eta hizkuntzena dugula, konturatzen ez bagara ere, denok hizkuntza bat, gutxienez, menperatzen dugulako, horretarako ahalegin bereizirik egin barik.

### Erreferentziak

- ARENS, H., 1976, *La Lingüística. Sus textos y su evolución desde la antigüedad hasta nuestros días* (2 t.), Madrid: Gredos.
- BAXOK, E., 1982, "Hizkuntz geografia", UZEI, *Hizkuntzalaritza/1. Hiztegia*, 215-233, Donostia, Elkar.
- BEDARD, E. et MAURIS, J. , 1983 (éd.), *La Norme linguistique*, Québec: Conseil de la Langue Française et Paris: Le Robert.
- BERTALANFFY, L. von, 1968, *General System Theory*, (frants. itzul. *Théorie Générale des Systèmes*, Paris: Dunod, 1973).
- 1979, *Perspectivas en la Teoría General de Sistemas*, Madrid, Alianza Universidad.
- CHURCHMAN, C.W. , 1974, *Qu'est-ce que l'analyse par les systèmes?*, Paris: Dunod.
- COSERIU, E., 1973, *Sincronía, diacronía e historia*, Madrid: Gredos.
- FERGUSON, Ch., 1959, "Diglossia", *Word* 15: 325-340.

- FISHMAN, J. A., 1967, "Bilingualism with and without Diglossia; Diglossia with and without Bilingualism", in *Journal of Social Issues*, vol. XXIII: 29-38.
- (ed.), 1968, *Readings in the Sociology of Language*, The Hague/Paris, Mouton.
- GARVIN, P., 1983, "Le rôle des linguistes de l'École de Prague dans le développement de la norme tchèque" eta "Appendices", in BEDARD E. et J. MAURAI, 1983.
- GILLIERON, J. et M. ROQUES, 1912, *Etudes de géographie linguistique*, Paris: Librairie Honoré Champion, Editeurs.
- HAGEGE, Cl., 1985, *L'homme de paroles*, Paris: Fayard.
- HAVRANEK, B., 1929, "Thèse 3 du Cercle Linguistique de Prague", TCLP, in GARVIN, P., 1983.
- LABOV, W., 1973, *Sociolinguistics Patterns*, (frants. itzulp.: *Sociolinguistique*, Paris: Editions de Minuit, 1976).
- LACROIX, J.F., 1969, "Linguistique géographique et dialectologie", in MARTINET, A., 1969, 215-224.
- LARRESORO, 1975, *Euskara batua zertan den*, Oñati: Edit. Franciscana Aranzazu.
- MARTINET, A., 1969, (sous la dir. de) *La Linguistique-Guide Alphabétique*, Paris: Denoël.
- 1990, "La synchronie dynamique", *La Linguistique* 26, Paris, 90-2, 13-23.
- MICHELENA, L., 1976, "La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas", *Revista Española de Lingüística* 6-2, julio-dicbre. Madrid: Gredos. 309-324
- RINCÓN, J. M., 1985, *Diseño e informatización de los sistemas de información económica*, Bilbao: UPV/EHU.
- ROTAETXE, K., 1978, *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Durango ((Bizkaia): L. Zugaza ed.
- 1985, *Lingüística General y Teoría General de Sistemas* (Trabajo de Investigación para Concurso a Cátedras de Universidad), argitaratu barik.
- 1988, *Sociolingüística*, Madrid: Ed. Síntesis.
- 1990, "Microlingüística y Macrolingüística", in *Actas del Congreso de la S.E.L. XX Aniv.: 1069-1079*, Madrid: Gredos.
- 1991, "Description et valeurs pragmatiques de l'alternance basque-espagnol", in EUROPEAN SCIENCE FOUNDATION, 1991, *Network on Code-Switching and Language Contact. Papers for the Workshop of Brussels (nov. 90): 227-251*, ESF, Strasbourg.
- (prentsan), "Principe téléologique, variétés de langues et système linguistique", in *Actes du XVIII Colloque de la Société Internationale de Linguistique Fonctionnelle (Praha, 9/10/12-17)*.
- SAUSSURE, F. de, 1916, *Cours de Linguistique Générale*, Paris, Payot, 1969.
- SCHUCHARDT, H., 1886, "Über die Lantgesetze. Gegen die Junggrammatike" [Lege fonetikoei buruz. Neogramatikararien aurka], in ARENS H., 1976, 481.
- STEWART, W.A., 1968, "A Sociolinguistic Typology for describing National Multilingualism" in FISHMAN, J.A. (ed.), 1968, 531-545.
- VACHEK, J., 1968, "Some remarks on 'Glides' in Phonological Analysis", in *Travaux linguistiques de Prague, 3 (Etudes dédiées au VIè. Congrès de Slavistes)*: 189-202, Academia, Editions de l'Académie Tchecoslovaque des Sciences et Paris, Librairie C. Klincksieck.
- WALLISER, B., 1977, *Systèmes et modèles*, Paris: Seuil.
- WEINREICH, U., 1954, "Is a Structural Dialectology possible?", *Word* 10, 1954, 388-400.

# **DIALEKTOLOGIA ETA LINGUISTIKA TEORIAK**

Xabier FALCON ORMAZABAL  
Deustuko Unibertsitatea

## **SUMMARY**

This paper deals with the relationships, and contributions between dialectology and linguistic theories, and, in particular, 19th Century linguistics, structuralism, generative grammar and finally, socio-linguistics. Several examples will illustrate this point of view.

Special emphasis will be given to the relationship between dialectology and sociolinguistics and their contribution to theoretical linguistics.

## **RESUME**

On traite ici des relations et des apports entre dialectologie et théories linguistiques, en particulier la linguistique du 19e siècle, le structuralisme, le générativisme et enfin la sociolinguistique. Plusieurs exemples montrent ces relations et apports.

On marquera surtout les relations entre dialectologie et sociolinguistique et leur apport dans la théorie linguistique.

Dialektologia egiteko era edo metodologia linguistika teoriaren joeren arabera izan da, noski. Araberako hori da txosten honen gaia. Dialektologiak badu eragina hizkuntzalaritzan, baita ere. Dialektologia eta linguistika teoriaren elkarrekiko eragina hartu beharko genuke kontutan ikuspegi osoa goa eman nahi izanez gero. G. Rebuschi jaunak heldu dio gaiari ikuspegi batetik, hizkelki ezberdintasunaren eragina linguistika teoriengan. Nik beste alderdiaren ikuspegia azaldu nahi dut txosten honetan: linguistika teoriaren egitekoa dialektologian.

Hizkuntzalaritzaren kondairan aitortzen diren linguistika teoriak edo joerak XIX. mendeko linguistika mota, Estrukturalismoa, Linguistika Sortzaile Bihurtzailea eta, azkenik, Soziolinguistika dira. Aldez aurretik esan beharra dut teoriak edo joerak garaian garaiko edo lekuan lekuko zientzia egiteko "ikuspegiak" direla. Horretarako, teoria bakoitzak bere programazioa egiten du garaian garaiko eta lekuan lekuko planteamentu eta interesen arabera:

XIX. mendean, batetik hizkuntzen arteko ahaidetasuna eta, bestetik, hizkuntz bakoitzaren historia eta ahaidetasunen bilakaera dira aztergai. Linguistikarako programa hau zehaztu eta osatu egiten da belaunaldi batetik bestera. Gramatikalarari Gazteen (Junggrammatiker) teoriaren aurkako higiduratzat jo izan da dialektologiaren hasera. Zenbaitentzat, besteak beste, arkaismoen gordailutzat hartu izan dira hizkelkiak, Indo-Euoperaren aintzinako formen berreraikuntza lanak zirela-ta. Garai haietan eman zitzaizen hasera hizkuntz atlasei. Euskara bera orduko hizkuntzalaritzaren higidura nagusi honen aztergaia izan zen, Bonaparte Printzeari esker.

Hitza eta hotsa dira, batez ere, hizkelkien aztergaiak. Metodologia, alde-raztailea edo konparatista; eta helburua, hizkuntz bakoitzaren dialektoen eremuak isoglosen bidez mugatzea, ahaidetasuna adierazten duten zuhaitz adarren antzera, azken finean. Badago, bada, parekotasuna konparatismoa eta dialektologiaren artean, nahiz eta batzuk hitz bakoitzak bere kondaira berezia duela baieztatu eta beste batzuk, fonetika legeak eta analogia direla-ta, hizkuntzen bilakaera sistematikoa dela frogatzen saiatu.

Estrukturalismoaren garaian, hizkuntzalari estrukturalistak eta dialektologoak elkarrengandik urruntzea adierazten du U. Weinreichek: batetik, estrukturalismoaren kredoarengatik ezinezkoa zaiolako joera horretako hizkuntzalariari dialektologian aritzea; bestetik, dialektologia ez dagoelako estrukturalismoaren arabera behar bezala jantzia. Estrukturalismoaren barruan 'balioa', 'funtzioa' eta 'sistema' dira kontzeptu nagusiak. Azterpidea edo metodologia, taxonomia (hau da, hizkuntz maila guztietako elementuen bereizketa eta sailkapena). Datuen azalpen paradigmatikoa da Saussuraren eta bere ondorengo hizkuntzalaritzarako programa. "Daitekeena ote da dialektologia estrukturala?" galde egiten du Weinreichek aipatu gabe utzi ezinezko

bere idazlan ezagunean. Zilegi ote zaio estrukturalistari dialektologian aritzea, hau da, sistema ezberdinen arteko datuen azalpen paradigmaticoa egitea?

Baietz dio Weinreichek *Is a structural dialectology possible?* idazlan horretan. Estrukturalisten eragozpen teorikoak gaintitu omen litezke eta, baita ere, dialektologo tradizionalak baliatu behar omen liriteke estrukturalismoak eskeintzen duen teoriak. Bestela, okerreko ikerketa sort omen liteke. Asmatutako honako adibide hau ematen du dialektologia tradizionalaren arabera batetik eta, bestetik, dialektologia estrukturalistaren arabera egindako datu beretsuen azterketa eta azalpenen arteko aldeak adierazteko:

Eman dezagun 'man' delako hitzaren ahoskera hauek jaso ditugula lau informanteengandik:


- |          |           |
|----------|-----------|
| 1- [man] | 1 = 2     |
| 2- [man] | 3 = 4     |
| 3- [mån] | 1,2 ≠ 3,4 |
| 4- [mån] |           |

Materia bakarrik kontutan hartuz, besterik gabe, 1 eta 2 gauza bera direla esan liteke eta baita 3 eta 4 ere. Eta lehenengo biak eta azkeneko biak, bata bestearengandik bereziak. Dialektologo tradizionalak bi talde hauen artean ipiniko luke 'man' hitzari legokiokeen isoglosa. Demagun, ordea, lehenengo informantearen hizkelkian, baina ez bigarrenarenean, bokalak luzeak izatea ezaugarri bereizgarri dela eta, orduan, bereizketa egin litekeela [man] eta [mån] artean; hirugarrenaren hizkelkian, berriz, sudurkarien arteko [a] alofono hutsa dela, baina ez laugarrenarenean. Hau da, ez 'etika', baizik eta 'emika' kontutan hartuz:

- |                |           |
|----------------|-----------|
| 1- [man] /mån/ |           |
| 2- [man] /man/ | 2 = 3     |
| 3- [mån] /man/ | 1,2 ≠ 3,4 |
| 4- [mån] /mon/ |           |

Gauzak horrela, 2 eta 3 informanteen erantzunak berdintsuak liriteke, eta oraingoan bereizketa guttienez hirukoitza litzateke, lehen ez bezala.

Dialektologia tradizionala eta estrukturalistaren arteko bereizketa bakoitzak datu horiekin egingo lukeen maparen bidez adierazten du Weinreichek:



1. ir

Irudi Tradizionala

Estrukturalista

Adibide honekin argi utzi nahi du Weinreichek zer alde dagoen dialektologia tradizionala eta estrukturalistaren artean, erakutsiz nola izango litzatekeen datu beretsuen azterketa eta azalpena, materia soilik ala elementuen arteko oposizioak eta sistema osoa kontutan hartuz gero.

Aipa ditzaket hemen, tarte bat eginaz, Karmele Rotaetxeren tesi lana, G. N'Diayen Amaiurko hizkerari buruzkoa eta Joxe-Agustin Arrietaren Mutrikuko hizkerari buruzkoa. Bide honetako iker-lanak beharrezkoak iruditzen zaizkit euskal dialektologia eta hizkuntzalaritza barruan, gehiago jorratu beharko litzatekeen bidea, beharbada.

“Etika” eta “emika” arteko bereizketa aipatu dugu alde nabarmenena bezala haserako dialektologia eta geroagoko estrukturalismoaren artean. Dena dela, ‘etika’-ko datuak erabiltzea berrikuntza handia izan zen dialektologiaren aldetik izkribuzko datuak erabiltzen zituen orduko hizkuntzalaritzaren aurrean.

Linguistika Sortzaile Bihurtzailearen higidura dugu XX. mende honen bigarren zatian. ‘Emika’ barruan dago estrukturalismoa eta LSBren arteko alde nagusi bat, abstrakzio mailan, alegia. LSBren ikuspegitik lau alderdi hauen arabera bereizten omen dira hizkelkiak bata bestearengandik, fonologia maila dela-ta:

- 1) azpiko egituran bertan. Hau da, pronostikorik gabe agertzen diren elementuen arabera;
- 2) azpiko egiturei dagozkien erregela multzoaren arabera;
- 3) erregelen erabilpen-inguruen arabera; eta
- 4) erregelen erabilkeraren arabera.

Keyserek (1963) *Review of the Pronunciation of English in the Atlantic States* idazlanean aurkezten dituen datuak dira orain aipatutako aldeak azaltzeko adibide gisa erabiltzen direnak (cf. Saporta 1965). Labur-labur, EEBBko Atlantiko aldeko Estatuetakoa lau hirietako hizkelki hauek dauzkagu: Charleston, New Burn, Winchester eta Roanoke. Besteren artean, /ai/ eta /au/ diptongoei dagozkien ahoskeraren araberako alde batzuk daude lau hiri horien hizkelkien artean. *Five, twice, down* eta *out* hitzak hartuz, honela litzateke hizkelki bakoitzeko ahoskera, /ai/ eta /au/ diptongoak direla-ta:

	/faiv/	/tuais/	/daun/	/aut/
Charleston	ai	ɛi	au	ɛu
New Burn	ai	ai	æu	æu
Winchester	ai	ɛi	æu	ɛu
Roanoke	ai	ɛi	æu	æu

Fonologiako erregelatan datza alofono hauen erabilketa hizkelki bakoitzean. Hauek dira erregelak:

K

*rising-igotzea:* a → ɛ / \_\_ B [-ahos] (1)

*fronting-aurreratzea:* a → æ / \_\_ u (2)

Rochestereko hizkelkiari (1) erregela dagokio; New Burnsekoari, (2)a; Winchester eta Roanoke hirikoei, biak dagozkie, baina ez era berean: (1) eta gero (2) Winchesterekoari, eta alderantzizko eran, hau da (2) (1)aren aurretik, Roanoke hirikoari.

Linguistika Sortzaile-Bihurtzailearekin ikuspegi berria ematen zaio Hizkuntzalaritza osoari eta, honen barruan, Dialektologiari. Estrukturalismoaren abstrakzio maila areagotu egiten du LSB-ak. Adibide batez saiaturako naiz hau azaltzen, Harrisen *Spanish Phonology* lanetik hartua: *estoy, estás, está, estamos, estáis, están* aditz formen lehenengo hiru eta azkenekoa (*estoy, estás, está, están*) anomalotzat jo behar dira espainolezko konjugabideko eta hiztegiko formen aurrean, azentua dela-ta. Salbuespenak salbuespen, azken aurreko silaban daramate azentua espainolez n#, s# edo bokalez amaitzen diren hitzek (adib: *sueño, temas, duermen*); eta azken silaban, n#, s# edo bokalez amaitzen ez direnak (adib.: *mandar, obedecer, constituer*). Horiek horrela, bitako bat: salbuespen gisa hartu behar ditugu *estoy, estás, está, están* formak ala nolabait argitu. Hauxe da Harrisek ematen digun argibidea (eta balio digu adibide honek, azpiko egituraren formulazioa eta erregelen erabil-



pena direla-ta, diakronia eta sinkroniaren uztartzea nola egin litekeen ikusteko):

ahoskera *estoy, estás, está, estamos, estáis, están*

azpiko egitura: *stoy stas sta stamos stais stan*

*Systematic phonemic*seko adierazpen honetan, forma horiek azenturik gabe eta, gainera, estrukturalistentzako fonema litzatekeen haserako #e gabe izango genituzke. Ondoren bi erregela beharko genituzke agerpen fonetikoaren edo ahoskeraren berri emateko, *e* protetikoarena eta azentuatzearena:

$\emptyset \rightarrow e / \# \text{ — } s + K$  (1)

gaur egun ere espainerak indarrean duen araua, mailebuek erakusten duten bezala (*stop, ski, Spain*), eta

azentuatze araua(k) esan bezala (2)

(azentuatze arauen formulazioaren xehetasunak une honetan ez zaizkigu axola, ezta *estoy* formaren yren paragoea ere).

Eta orain arte azaldutakoarekin, honela moldatuko ginatete anomaloak ziruditen forma horiekin:

A.E.: *stoy stas sta stamos stais stan*  
L'importance de la phonétique dans la mise en évidence des variétés dialectales que possèdent les langues est un fait bien connu, non seulement parce qu'elle constitue tout un aspect du système de la langue d'une part, mais aussi par les changements qui sont de son fait dans les autres domaines de la langue que sont la morphologie, la syntaxe et le lexique, d'autre part. En basque même, beaucoup de réalisations différentes et de variations phonétiques peuvent être relevées dans chaque dialecte et sous-dialecte, et bien des différenciations qui apparaissent en morphosyntaxe sont simplement de surface, quand finalement leur raison d'être et leur explication n'est autre que d'ordre phonétique. Aussi, il paraît utile et nécessaire de se donner un programme qui, selon la méthode des atlas linguistiques, puisse relever le fonctionnement phonétique de la langue, et en même temps, par l'examen des variantes et de leur étendue diatopique, permette d'accéder à des conclusions plus générales et de mieux cerner le système phonétique de la langue basque.

## Sarrera

Historia ezagutzen duguneino, hizkuntzaren kezka eta hizkuntza barnetik ezagutzeko irrika betitik izan du gizonak. Baina hizkuntzaren azterketan gauzak barrukoz kanpo ipini ziren, hizkuntza bere bakartasunean aztertu beharrean, hizkuntz fenomenoak eta ezaugarriak hizketen ugaritasunean aztertzen hasi zenean. Oraino gehiago aldatu eta aberastu zen hori, maila zientifikoz begiraturaz, edozein lurraldetako hizkeraren aniztasuna jaso, aztertu eta kartografiatzen hasi zenean. Horrela dialektologiak urrats haundia eman zuen, azterketa metodoa izatetik, geografia linguistiko edo hizkuntz geografiara eta, beraz, atlasgintzara hedatu baitzen.

Urruti gelditu dira G. Wenker-en lehen urratsak atlasgintzan<sup>1</sup>. Honen lanaren eraginez “dialektoen mugak” kontzeptua eta dialektoarena bera ere, hain finkoak eta garrantzitsuak ziren arren, kolokan ipini ziren; eta gero ere, gure mende honetan, horrela jarraitu dute edo, beharbada, oraindik kolokago. Ordutik atlasgintzari ekin zaio asko edo gutxi, lurralde denak ahalegindu direlarik berea egiten. Baina, atlasak egiterakoan askotan xedeak errealitatetik kanpora atera dira, ahaztuz zein den haien balioa.

Atlasen helburu nagusia kontutan hartu behar da lehenengo eta behin, atlasetan eginiko lanen balioa eta ikuspegi zehatza behar bezala jaso ahal izateko. Atlas batek bilatzen duena, hain zuzen ere, lurralde bateko -lurralde haundia beti- hizketaren lekukotasun linguistikoa ematea da. Baina lekukotasun hori ez da ez zehatza ez eta sakona ere. Hasteko, idiolektoetan oinarritzen da, leku bakoitzeko hiru lekuko gehienik jasotzen bait dira, eta, bestalde, galdekizuna ere ezin daiteke luza, amaiera behar baitute egitasmoeak. Horiek horrela direlarik, bada, orain arte egin izan diren atlasak fenomeno zehatz batzuen informazioa eskainiko dute, ez besterik. Lan monografikoetara jo behar da nahi ta nahi ez hizkuntz aldakien egitura sakonago ezagutu nahi bada. Gauza ezagunak diren arren hauek, beharrezkoa da ez ahaztea ondoren esan behar ditugunetarako.

Errealitate hau horrela izan da eta horrela jarraitzen du izaten, batere aldaketarik gabe, eremu haundietako atlasetatik lurralde txikietakora pasatu den arren. Egun, lurralde historiko batean, “herrialdea” deituan esaterako, kokatzen denean atlasaren eremua, espezializatuagoa izanen da, etnografia baztertuz hizkuntzaren mailei arreta berezia eskainiko dio eta, batez ere, homogenotasuna edo bateratasuna bilatuko du. Eremu haunditakoak ere izan daitezke sare estuan eta zati askotan jasoak, hizkuntzak eta dialektoak ongi bereziz, baina informazioa beti ere axalekoa, mugatua eta murrizta izango da.

1. 1881. urtean argitaratu zuen korrespondentziaz jasotako datuen lehenengo emaitza, *Sprachatlas von Nord- und Mitteldeutschland*, Strasburg. Bertan argitaratzen diren sei mapetatik lau morfologiari zuzenduak dira eta beste biak, berriz, fonetikari.

Hitz batez, ezin denez dena arakatu, atlasen ikuspegiak sintetikoa izaten beharko du jarraitu eta utz diezaiegun lan monografikoei beren egitekoa betetzen. Hau ez dut kritika bezala esaten, zein den lan hauen muga eta zer eska dakiekegun ez ahazteko baizik.

### Maila fonetikoa eremu haunditako atlasgintzan

Hizkuntzaren maila guztiak garrantzitsuak badira ere, zer esan maila fonetikoari buruz? Morfosintaxian eta lexikoan bertan agertzen diren desberdintasunak itxura hutsezkoak izaten dira maiz, eta hizkuntzaren aniztasuna askotan fonetikazko aldaketetan oinarritzen da. Horregatik bada, hizkuntza edo hizketa baten jasoketa egiten denean bidezkoa dirudi erabilera fonetikoa ere batzea, hizkuntz atlasgintzako metodologian kontutan hartuz maila hau, bidebatez haren hedadura diatopikoa aztertuz eta ondorio nagusi batzuetara iristeko bideak zabalduz, sistema fonologikoa ahal den neurrian finka ahal izateko.

Orohar, orain arte egin diren atlasei begirada bat bota ondoren, esan beharko genukeena hauxe da: batzuetatik besteetara desberdintasunik izan bada ere, erabili diren irizpide eta tratamenduetan ez zaio maila fonetikoari behar zen garrantzia eman eta hizkuntz atlasetan, gehienetan behintzat, bigarren tokian gelditu izan da.

### Aitzindariak

Garrantzitsuak dira aitzindariak aztertu nahi dugun maila honi dagokionez. XIX. mendean eta neogramatikarien eraginez, hizketen “lege fonetikoak” ezagutu nahian fonetika aztertzeari ekiten zaio eta lege horiek nola gauzatzen diren leku zehatzetako hizkeretan edo direlako “patois”etan jasotzen ahalegintzen dira. Ingurumen honetan sortzen da Gilliéron-ek eginiko *Petit Atlas phonétique du Valais roman (sud du Rhône)*<sup>2</sup>, non berrehun galderetako galdekizunaren bitartez Valais roman-en egiten den hizkeraren ezaugarri fonetikoak jasotzea bilatzen baitu. Horretarako berberak pertsonalki lurralde honetako berrogeita hiru lekutan jasotzen du informazioa hagitz sare estuan. Ez dago dudarik lan honen bitartez oinarri tinkoak jarri zituela, gero eginen duen ALF-en helburua aldatzen badu ere.

Fonetikaz ari garenez bidezkoa da aipatzea Ch. Guerlin de Guer ikertzailea ere, Normandia-ko hizkera aztertuz atlasa egin baitzuen<sup>3</sup>. Are gehiago,

2. 1880, Champion, Paris. Benetan harrigarria gertatzen da garai hartan zein begi zoliaz Gilliéron-ek egin zuen lan honen kartografiaketa eta emaitzen aurkezpena. Ikus lan honen azalpen laburra eta zehatza POP (1950, 183-187). Metodologia berdinez eta pausu berdinak emanez, antzerako lana egin zuen zazpi urte beranduago M. Wilmotte-ek: 1887. “Phonétique wallone, Canton de Fexhe-Slins”, *Rev. des pat. gallo-rom.* I, 23-28. or.

3. Hiru lan dira ikertzaile honen lan nagusienak eta hirurak ere oso garrantzitsuak guretzat: 1899, *Essai de dialectologie normande: la palatalisation des groupes initiaux gl, kl, gl, pl,*

lehenengo atlas fonetiko delaren esan daiteke, hizkuntza orohar ez baina fonetika bakarrik aztertzen baitu<sup>4</sup>. Beharbada atlas fonetiko deitzea ere larritzateke halere, Normandia-ko patois-en egoera jasotzeko pentsatu zuen fonetika azterketa honetan, 272 lekutara zabaldu zuen lana eta hasierako posizioan gertatzen diren talde kontsonantikoen ebakera, batez ere, jaso zuen hitz herrikoietan oinarrituz<sup>5</sup>.

Bide bertsutik jarraituko du, ALF-en eragina agertzen bada ere, Ch. Bruneau-ren lanak. Ardennes lurraldea sakonki aztertu zuen kartografiaketaz ere baliatuz. Lanik garrantzitsuena fonetikari eskaintzen dio<sup>6</sup>. Aski sare hedatua erabili edo hartu zuen, 93 herritan jaso baitzuen eta, nola lekukoen hautaketan nola inkestak egiteko metodologian, oso irizpide aurreratuz mugitzen<sup>7</sup>. Lana oraindik interesgarriagoa gertatu zen fonetika esperimentalaren erabili zuelako bertan. Rousselot-en laborategiaz baliatuz, fonografoa, errejis-tratzeko zilindroa eta ahosapai artifizialak erabili zituen. Horrela, bada, mapak ezin interesgarriagoak gertatzen dira, informazio analitikoarekin batera sintetikoa ere azaltzen dutelako. Azkenik, Bruneau-ren lanak eta materialak fonetikaren aldetik interesgarriak gertatzen dira, eta ez hainbeste morfologia eta lexikoaren ikuspegitik, azken hauek bigarren mailan gelditzen baitira.

Bada aipagarria den egitasmo bat, 1929. urtekoa dena hain zuzen, W. Pessler-ek Europa osoa hartuko zuen hizkuntzalaritzako atlas egitea eskatu baitzuen garai hartan, baina ez zuen behar zuen laguntza eskuratu. Berriz ere era horretako proposamena 1936. urtean egin zen, urte horretan Copenhaguen antolatutako Hizkuntzalarien Nazioarteko Kongresuan, *Association Phonétique Internationale*-ko elkarteak, Europa-ko hizkuntza eta hizketa guztietan jasotzeko galdekizun fonologikoa gertatzea eta jasotzea onartu baitzuen, baina, Bigarren Gerrate Mundialagatik, dena bertan behera gelditu zen.

*bl, étudiée dans les parlers de 300 communes du département de Calvados, Boullon, Paris, 1901. Le parler populaire dans la commune de Thaon, Paris, 1903. Atlas dialectologique de Normandie, Paris.*

4. Horrela dio Pop-ek (1950, 81): "L'Atlas dialectologique de la Normandie doit être considéré plutôt comme un *Atlas phonétique* que comme un *Atlas linguistique*. Le questionnaire ne tient compte que de *problèmes purement phonétiques*".

5. Hona zer zioen aipatu dugun bere lehenengo lanean (1899, 3): "Les mots appartenant à la classe phonétique étudiée ne font pas tous partie du vocabulaire des paysans. Tantôt l'idée ou la nuance d'idée qu'expriment ces vocables est inconnue du peuple; tantôt le mot attendu est remplacé par une autre forme, intéressante pour l'étude du lexique, mais dont la phonétique ne saurait tirer quelque profit".

6. Bi lan dira nagusi: 1913, *Etude phonétique des patois d'Ardenne*, Champion, Paris, bere dotoregoko lan tesia izan zena eta, 1913, *Enquête linguistique sur les patois d'Ardenne*, Champion, Paris.

7. Informazio zehatza nahi izanez gero, ikus POP (1950, 87-93).

**Bideak urratu zituzten lehenengo atlas batzuk****ALF**

Frantzia-ko hizkuntz atlasa Gilliéron-ek egin zuenean<sup>8</sup> urruti gelditzen ziren Valais roman-eko hizkeraren maila fonetikoak jasotzeko ezarri zituen xedeak; halere, artean neogramatikarien eraginak bizirik jarraitzen zuen eta gramatika historikoak ere bai. Horrela aisa ulertzen da hitza eta honen bilakera eta deskribapena izatea xederik nagusiena. Fonetikaz baliatzen zen bai, baina aipaturiko helburua lortzeko ongi zetorkion neurrian eta ez gehiago. Batzuetan jotzen zen ikuspegi diakronikoz aurreko egoeretara, baina hizkuntzaren estratoak jasotzeko eta zaharra berritik bereizteko biltzen ziren datu diakronikoak, ez deskribapen fonetikoak egiteko. Hala eta guztiz ere, toki berezia egin behar zaio atlas honi, benetako atlas linguistikoa izatez gain, ondoren egin ziren beste askoren aitzindaria izan baitzen. Edozein modutan, Gilliéron-ek gertatu zuen galdekizunean, hitz solteak jaso ziren eta berak zioenez, hitz herrikoien zerrenda zentzuaren eta esanahiaren inguruan gertatua izan zen, azken buruan, “établir les lois phonétiques des parlars”<sup>9</sup>, hizketen arau fonetikoak ezartzea, alegia, bilatzen zuelarik. Edozein modutan, Gilliéron-en atlasean, eta haren ereduari jarraituz, ondoren egin ziren beste lurraldetako atlasetan ere, ez da fonetika sistema baten deskribapena bilatzen eta aztertzen, ez eta hotsen gertakizunak nolakoak diren azaltzen ere. Hitzen bilakabide eta banaketa diatopikoak dira interesgarri gertatzen zaizkienak, eta ez beste deus.

Fonetika, beraz, azterketarako tresna eta bitarteko bihurtzen dute, eta ez da inola ere aztergai. Gilliéron-i ondo etorri zitzaion, esaterako, bukaerako *-ll* hotsa *-t* bihurtzen dela egiaztatzea, isoglosa zehatza markatzen duelarik gainera fenomeno horrek; honela *cattus* eta *gallus*-en hitzen arteko homonimia txuliatzeko fonetika aldaketa horrez baliatu zen, ez, ordea, fenomeno bera fonetikaren aldetik aztertzeko.

Baina fonetikaren ikuspegia bera baldintzatua izanik, jasotzeko era ere ez zen ona izan. Honen lekuko A. Dauzat-en hitzak ekarri nahi ditugu, zeinetan, “Atlas linguistique de la France par régions” lanaren egin beharra arrazoitzekoan, hitz orokor eta denentzat berdinak direnen bitartez baizik ezin daitekeela hotsen bilakaera jaso defenditzen bait zuen, ALF bera ere kritikatzu<sup>10</sup>.

8. 1902-1910, *Atlas linguistique de la France*, Paris. 1920 mapez osaturiko 36 liburuxka dira. Hau izan zen lanik garrantzitsuen, hurrengo hamar urteetan Gilliéron eta Edmont honen inguruan beste material batzuk argitaratzen joan baziren ere.

9. Apud Pop (1950, 117).

10. “Il ne faut pas perdre de vue que les évolutions phonétiques des sons ne peuvent être examinées sur tout le territoire d’une langue quelconque qu’à l’aide des mots *uniformes*”. Apud Pop (1950, 137).

Gilliéron-en atlasa egin zenetik, bada, eztabaidatua izan da fonetikari eman behar zaion garrantzia. Eta ez fonetika hutsari bakarrik, fonetika esperimentalari ere bai. Fonetika esperimentalaren aita izan zen Rousselot abadea kritikatu izan da materialak jasotzen eta aztertzen zehatzegia zelako eta, jakina, metodo horrez baliatuz gero, inkestak egiteak luzeegi joko luke, berak dena tresnez egiaztatu behar izaten zuelako eta artikulazioko xehetasun txikiena ere errejistratu behar izaten zuelako. Egia esan, hainbeste xehetasunek lan monografikoetarako zeregina gehiago dirudite. Alabaina, lan inpresionista hutsa egitea gonbeni ote da, beraz? Edo bereizi egin behar ote da maila fonetiko atlasgintzan jasotzen diren beste mailetatik?

## ALPI

“Atlas lingüístico de la Península Iberica” izan da gure lurraldetik hurbil gelditzen den beste eremu haunditako egin, edo erdizka egin izan zen atlasa<sup>11</sup>. Bertan, ALPI-n alegia, eta T. Navarro Tomás, fonetista aipatua, izan zenez zuzendaria eta galdekizunaren prestatzailea, garrantzi berezia eman zitzaion maila fonetikoari; izan ere, hain zehatz eramateagatik fonetika alderdia, atzeratu zitzaion hainbeste atlasa burutzea. Dena den, garai hartan Espainia-n beste hizkuntzalarien artean agertzen zen bezala, Navarro Tomás-en jokabidea ere, neurriren batean, joan zen mendeko neogramatikarien irizpideetara hurbiltzen zen.

Atlas honetan fonetista baten eskua ageri da, bai zuzendaritza lanean, bai galdekizunean ere, maila fonetiko oso zaindua eta begiratua dagoelako. Honegatik kritikak jaso ditu, batez ere galdekizunean maila lexikoa urria delako<sup>12</sup>, eta baita fonetikari arreta gehiegia eskaini diolako ere<sup>13</sup>. Izan ere, fonetikari eta traskribaketa motari dagokienez zenbaterainoko xehetasunetara jaitzen den honako hitz hauek ongi agertzen dute:

se hizo hincapié en la oscilación y tendencias del timbre de las vocales en los frecuentes casos en los que se apartan más o menos del tipo medio que se les suele atribuir

(Navarro Tomás 1975, 12)

11. T. Navarro Tomás-ek hartu zuen zuzendaritza, eta galdekizuna 1923. urtearen inguruan gertatu zuen, Amado Alonso-ren laguntzarekin. Penintsulako hiru hizkuntza erromanikoak batzeko gertatua, gaztelera, katalana eta gailego-portugesera. 1931-1936 urteen artean jaso ziren inkestak eta azken urte honetan hasi zen gudak apurtu zituen egitasmo guztiak. Gerra ostean, 1962. urtean ale bat eta bakarra argitaratu zen emaitza fonetiko kartografiatuekin, 75 mapez hornitua. Ikus egitasmoa eta lanaren aurkezpena T. Navarro Tomás-ek berak eginik: 1923, “Noticias. Atlas lingüístico de España”, *RFE* X (112 eta hur.); horrez gain, 1975, *Capítulos de geografía lingüística de la Península Ibérica*, ICC, Bogotá. M. SANCHIS GUARNER, 1953, *La cartografía lingüística en la actualidad y el Atlas lingüístico de la Península Ibérica*, Madrid.

12. Gai honi buruz ikus, esaterako, M. Alvar-ek egiten duen kritika, *JORDAN* (1967, 449-553).

13. Oso kritika zorrotza Diego Catalán-ek egiten dio (1989, 235).

Zalantzarik gabe zehatzegia iduritzen zaigu: /e/ fonemari dagokionez, esaterako, hogeitasei gertakizun desberdin zenbatu ditugu. Baina gehiago oraindik batu ditu Diego Catalán-ek (1989, 234):

...las notaciones pretenden captar matices fonéticos de una delicadeza extraordinaria. Así, por ejemplo, figuran en el alfabeto fonético 22 sibilantes fricativas (sin contar las relajadas correspondientes), y, si mis cálculos no son errados, la combinación de las distinciones *acentuada - átona - relajada, cerrada - abierta - dobleabierta, oral -seminasal - nasal, normal - media con tendencia a mixta - mixta y sonora - semisorda -sorda* nos da 243 variantes de *u* (sin incluir la *ü* y 4 variedades de semiconsonantes y semivocales posteriores).

Guzti honek agertzen du zenbateraino izan zen fina eta zehatza traskribaketaren zorrotasunari dagokionez, baina bada gehiago, doinua ere zaindu baitzuen eta puntu honetan aitzindaritzat har genezake, Sanchis Guarner-ek (1953, 56) dioenez jasotzen ditu:

los gráficos de entonación en sus diferentes tipos (enumerativa, interrogativa, subordinativa, etc.), pues pese a la importancia que tiene la entonación como elemento caracterizador y estructural de la lengua y los dialectos, no se le ha prestado apenas atención en los Atlas ni casi tampoco en los estudios de Dialectología.

Fonetika esperimentalak ere aplikatu zuen atlasean Millardet-ek Landes-  
etako atlasean erabilitako metodologiak baliatuz eta, bidebatez, metodologia bera hobetuz; horrela bada, hirietako hizketak kimografoaz, palatogramaz eta diskoen grabaketez izan ziren erregistratuak. Hizkuntz espainiarraren fonoteka edo artxibo fonografikoa ere sortu zuen.

Galdekizunari dagokionez, aldiz, beste atlas guztiak bezala, honek ere fonetika historikoan oinarritutako fenomenoak jasotzea bilatzen du, eta artikulaketaren aldetik interesgarriak gertatzen diren fenomenoak ere jaso nahi zituen. Honi esker, eta argitaraturiko materialak urriak izan arren, gazteleraren fonetika aztertzeko, bai ikuspegi diakronikotik bai sinkronikotik, aukera oso onak eskaintzen ditu.

### **Beste atlas batzuk**

Aipatu ditugunak baino eremu haundiagoa jasotzen duten hizkuntz atlasak ere egin izan eta egiten ari dira: hainbat estatu eta hizkuntza hartzen dituzten atlasak. Ideia hau, batez ere geografia linguistikoan metodo erkatzailea aplikatu beharretik sortu zen. Atlas hauen artean bi iduritzen zaizkit aipagarriak, bata Errusieraren dialektoen Atlas Linguistikoa, irizpide fonologikoetan oinarritua eta horregatik guretzat interesgarria eta Europako Atlas Linguistikoa bestea. Azken hau estrukturalismoaren ikuspuntutik planteiatua eta bi galdekizunez osatua dago: laburtua bata, onomasiologikoa dena, eta hizkuntzaren sail guztiak hartzen dituena bestea, bertan fonologia ere sartzen delarik. Dena den, atlas honek helburu bereziak eta propioak ditu: hizkuntza desberdinak jaso eta erkatu, horien egiturak erkatu, eta hizkuntzen tipologia

eta unibertsalak bilatzea lirateke nagusienak<sup>14</sup>. Aipagarriak dira baita ere, fonetikari garrantzi aparta eskaintzen dion Québec-eko hizkuntza mintzatua-  
ren DULONG-en lana (1969); eta bereziki fonetika eta fonologiak huts-hutsik  
eginiko atlasak, hala nola, Ingalterra-ko Eduard Kolb-en *Atlas of english  
sounds*, bi aletan dagoen atlasa.

### Atlas linguistikoak eskualdeka

Denboraren iraganaz atlasgintzan ere gauzak aldatuz joan dira eta hiz-  
kuntzalaritzaren bilakabideak arlo honetan ere eragina du, hizkuntz atlasetan  
estrukturalismoaren presentzia nabaria baita. Jokabidearen aldaketa hizkun-  
tzaren arlo guztietan ageri bada ere, guk, beti bezala, fonetikoak soilik ikusiko  
dugu. Fonetika eta fonologia ordurarte, hots estrukturalismoa etorri arte, ez  
zuten garrantzia eta tokia hartzen hasten dira. Alderdi fonetikoak eta baita  
fonologikoak ere jasotzeko berariz gertatzen dira galdekizunak. Batetik, fone-  
men arteko aurkakotzak jasotzeko asmoz, eta bestetik sistemen artekoak ere  
bai, askotan egiteko hauek benetan gauza zailak diren arren.

Eskualdeka egiten diren atlas hauen eredurik onena Frantzia-ko eginiko  
*NALF*, *Nouvel Atlas Linguistique de la France par régions*, (1942) da. A.  
Dauzat-en eskutik 23 zatiketa egin ziren atlas hauek jasotzeko, denak aurrera  
eraman ez baziren ere, Ipar Euskal Herrikoa, esaterako. Hauetatik gaskoiera-  
rena komentatuko dugu, gure interesetarako hurbilen gertatzen baita.

Bide berdintsua hartu zuen M. Alvar-ek *NALF*-en urratsei jarraituz,  
Espainia-ko Estatu-ko lurralde gehientsuetan atlasak osatzen ari baita<sup>15</sup>.  
Hauetako lehenengoa *ALEA* izan zen eta G. Salvador-en hitzak (1977, 53)  
onartuz, esan beharko da atlas hau izan dela:

El primer atlas lingüístico que introdujo en su cuestionario una serie de preguntas orienta-  
das a delimitar las áreas de unas determinadas oposiciones fonológicas, las existentes entre  
vocales abiertas y cerradas en Andalucía Oriental (Españia-n eginiko lehenengoa esan  
nahiko du, alegia).

Halere, Alvar-en atlas guztietan oinarrizko galdekizun bakarra jasotzen  
da, tokitik tokira aldaketa batzuk egiten badira ere. Bertan, galdera gehienak  
lexikoari zuzenduak dira; gero maila morfo-sintaktikokoek jarraitzen diote eta  
azkenik, beti kopuru irizpidearen arabera, fonetika dator, gertakizun diakroni-

14. A. WEIJNEN, 1976, *Atlas Linguarum Europae - Premier questionnaire*, Assen,  
Amsterdam. Fonetikari dagokionez, berriz, ikus: A. WEIJNEN, 1977, "Aspects phonologiques de  
l'Atlas Linguarum Europae", *Actas del V CIELM*, Madrid, 415-436. or. Dena den, atlas honen  
xehetasun guztiak ezagutzeko kongresu honetan aukera ezin hobea izanen dugu, zuzendaria bera  
baitator; horregatik ez gara gehiagotan sartuko.

15. *ALEA*, *ALEICan*, *ALEANR*, *ALESan*, *ALEM* Estatu mailakoak, eta, horiez gain,  
*Atlas Lingüístico de los Marineros Peninsulares*, *ALMP*, *Atlas Lingüístico de España y  
Portugal*, *ALEP*, eta *Atlas de Hispanoamérica* ere aipatu behar dira.



koak jasotzeko asmoz, fonetika historikoko arazoak dituztenak bait dira jasotzen diren hitzak.

Hauen parean, oso bide desberdinetik eraman eta egin bada ere, baina galdekizunaren egituraketan antza duelarik, *Atlas Lingüistic del Domini Catalan* aipatu beharko litzateke. Hemen ere fonetika arloak toki gutxi eta bera alderdi historikotik hartzen du<sup>16</sup>. Deitoratzen dut, bestalde, gailegoen atlasaz aipamenik ezin egina, ez baitut, orain arte, ezagutzeko aukerarik izan.

## Metodologia

Edozein atlas burutzerakoan hartu behar den lehenengo erabakia transkribaketa motarena da. Transkribaketa fonetiko ala fonologikoa?

Atlasgintzaren historiari begiraturaz, galdera hau ez zuen planteiatuko Gilliéron-ek, esaterako, egun fonologia deitzen duguna ez baitzen garai hartan ezagutzen eta Trubetzkoy-k fonologiaren oinarriak finkatu arte ez baitzen horrelako arazorik sortzen. Geroztik, ordea, erabaki behar den puntua da eta aski eztabaidagarria izan dena, bestalde.

Gauza bat agertzen da garbi: ezin daitekeela fonologiarik egin, aurretik fonetika mailan ez badira gertakizun desberdinak eta aldakiak ondo ezagutzen. Hori dela eta, maila teoriko batetik, atlasen bitartez hizketen maila fonologikoa finkatzera iritsi beharko litzateke bai, baina ezin da horrelakorik egin aurretik hizketa mailako galdekizun fonetikoak ez bada ondo jaso. Horretarako, lehenengo galdekizun fonetiko zehatza gertatu behar da honako hauek kontutan hartuz: errealizazio fonetikoak, aldakiak, neutralizazioak, banaketak, maiztasunak eta hizketa ondo ezagutzen lagun dezakeen dena, baita bikoteak jasotzeko galderak paratzen ere ahaleginduz.

Beste maila batean gertatzen dena, baina ez horregatik interes gutxiagokoa, galdekizuna prestatzean ongi jakin behar da zer jaso nahi den, hau da, hitz soltean gerta daitezkeen fenomenoak bakarrik edo esaldi barneko gertakizunak ere jaso behar diren. Egia esan, deskribapen zehatza egin nahi bada, kate mintzatua ere aztertu behar da eta horretarako galdekizunean zenbait testu eta esaldi labur behar dira, grabaketa askeen nahiz grabaketa arteztuen bidez jasotzeko. Hortaz, eta laburbilduz, galdekizun fonetiko-fonologikoak bate-

16. Ikus, nahi izanez gero, J. Veny, 1973, "Dialectologie", in *La Linguistique catalane, Actes et colloques* n° 11, (Colloque International organisé par le Centre Philologique et de Littérature Romans de l'Université de Strasbourg, 1968), Paris. Galdekizuna, berriz, 1965. urtean argitaratu zen: *Atlas lingüistic del Domini Catalan. Questionari*, Barcelona.

Bestalde, hitzaldian esana, zuzendu behar dugu, ez bait da, nonbait, guk uste genuen bezain murrizta arlo fonetikoari ematen zaion tratamendua. Dialektologiako Kongresu honetan partaide izan zen J. Veny jaunak esan zidanez, fonetika berari zuzentzen zaion arlo zehaztetik kanpo, galdekizun osoan fonetikari arreta berezia ere eskaintzen omen zaió eta, beste maila linguistikoein batera, fonetika ere jasotzen da. Beraz, lerro hauek gerta daitezela hitzaldian esandakoa osatzeko eta, bide batez, Veny jaunari nire esker ona adierazteko.

tik, eta grabaketa askeek nahiz arteztuek bestetik, osatuko lukete jaso beharko litzatekeen materiala. Horrekin agertzen zaigu nolarebait, fonemen sistema finkatzeko bidea, eta, nahi balitz, baita atlas osoaren traskribaketa fonologikoa egiteko posibilitatea ere.

Fonologian oinarrizten diren atlasek egintza prozesua askoz ere zailagoa dute, azaldu dugunarekin hizketa baten sistema jasotzen delako, baina hizketa asko direnean atlasak batzen dituenak, nola iritsi sistema fonologikoa eskatzen duen abstraziora? Hizketa bakoitzaren sistemari dagokiona traskribatuz? Eta horrela egingo balitz, nola finkatu atlasa egin aurretik hizketaren eremua? Beste bidea litzateke, ordea, hizketa guztien diasistema jaso eta horren arabera traskribaketak egitea. Baina honek, ez dago dudarik, diasistemak eduki dezakeen errepresentatibotasuna onartuko balitz ere, informazio asko izkutuan utziko luke. Nolanahi ere, ezin daiteke uka hizkuntzaren beste mailetakoa informaziorako, lexikorako batez ere, oso mesedegarri gertatzen dela fonologiaren baliatzea, materialen aurkezpenean asko errazten eta bakantzen baita informazioa, fonetikak sortzen duen ugaritasunetik oso alderantziz.

Dena dela, traskribaketa fonologikoz egin diren atlas ezagunenak, arau normatiboaren sistema segituz egin dira orohar, eta erraztu egin dute prozesu dena, baina, jakina, eskaintzen duten informazioa askoz ere mugatuagoa da.

Atlas fonetikoek, berriz, informazio zehatzegiaren arriskua daukate, eta askotan, axaleko eta itxura hutsezkoak baizik ez diren xehetasun eta bereizketan oinarriz, benetakoak ez diren edo errealtateari erantzuten ez dioten hizkuntz eremuak sor edo ikus daitezke. Kasu hauetan traskribaketa fonetiko orekatua bilatu behar da, atlasak eskaintzen dituen datuak nahasgarriak ez baina fidagarriak gerta daitezzen.

Aipaturiko Gilliéron-en hasierako atlasa eta hizkuntz erromanikoak jaso dituzten atlas guztiak, traskribaketa fonetikoz eginak dira. Fonologikoa dira, berriz, besteen artean, Kanada-koa, E.S.S.B.-koak eta Bulgaria-koa.

Badira tartean gelditzen direnak ere, hau da, alderdi fonetiko eta fonologikoa kontutan hartuz eta biak zainduz egin direnak. Hauek, izan, fonetikoak dira batez ere, baina fonologiako zatiren bat ere jasotzen dute eta ondorioak ere ateratzen dira mapa sintetikoaren bitartez. Azken urteotan egiten ari direnek, eskualdeak eta lurralde txikiagoak hartzen dituzten atlasek bide honi jarraitzen diote. NALF-ekoek, esaterako, edo Estatu Espainolean Alvar-ek egin dituen batzuek.

### **Arlo fonetikorako galderen kopurua galdekizun orokorrean**

Atlas baten egitasmoan galdekizunaren luzeera planteiatzerakoan, lurraldearen hedadurarekin eta inkestatuko diren guneen kopuruarekin jokatu behar da, hortik jarraituko baita egitasmoaren iraupena. Bestalde, materialeen aur-

kezpena eta neurria ere aipaturiko erabakiekin harreman estuan daude, denek dutelako, azken finean, zerikusirik egitasmoaren einkortasunarekin.

Hori dela eta, galdekizuna ezin da antolatu nahi izango litzatekeen sakontasunez. Galdekizunean, bat izanik ere, maila bakoitzari, fonetikari, morfologiari, sintaxiari eta lexikoari, alegia, bere zatia eskaintzen zaio, denen artean galdekizun bakarra osatuz. Gehienbat, fonetika eta sintaxia izan dira galdera kopuru murriztena izan dutenak.

Guk arlo hau aztertzeko euskararen inguruetako hizkuntz atlasak begiratu ditugu, eta maila bakoitzari zenbat eskaintzen dioten eta maila bakoitzaren ehunekoa atera ditugu. Honako atlas hauek begiratu ditugu: ALEANR, ALG, ALEA, ALDC, ALEICan eta ALPI. Erkagarri hartu ditugun mapa hauen artean denboraren aldetik distantzia haundiak daudela eta irizpideak ere aldatu direla ohartzen gara. ALPI, esaterako, ikuspegi historizistarekin egin zen eta azkenengoak estrukturalismoaren bidetik jasoak izan dira. Halere, interesgarria gertatzen da azaltzen dituzten emaitzak elkarren artean erkatzea.

	Fonetika	Morfol.	Sintax.	Lexik.	Denera
ALEANR	190 % 11,11	100 % 5,84	112 % 6,54	1308 % 76,49	1170
ALG	155 % 6,15	453 (Aditza) % 17,49	300 (M-S) % 11,91	1608 % 63,98	2517
ALDC	34 % 1,62	115 % 5,48	19 % 0,90	1927 % 91,98	2095
ALEA	173 % 9,29	91 % 4,8	77 % 4,1	1521 % 81,60	1862
ALEICan	199 % 16,5	91 % 7,6	19 % 1,5	891 % 74	1200
ALPI	281 % 33,93	130 % 15,70		417 % 50,36	828
				833 % 66,96	1244

(ALPI-n agertzen diren bi zenbakiak maila lexikorako egin zituzten bi galdekizunak adierazi nahi dituzte; hori dela eta, galdekizunen arabera eman dira portzentaiak).

Ikusten denez, maila lexikoa da ardatz nagusia. ALDC-ek ematen diolarik kopururik haundiena, %91,98; eta urriena, berriz, ALG-k, %63,88rekin. Maila fonikoari begiratuz, ALPI-k eskaintzen dio gehien %33,93 galderekin;

ALEICan-ek jarraitzen du %16,5-ekin; eta gutxien eskaintzen diona ALDC da, %1,62 portzentaiarekin bakarrik, hau da, 2095 galderatetik 34 baino ez<sup>17</sup>.

Atlas hauek galdekizun fonetikoari eman dioten tratamenduari begiratzuz, honako datu hauek jaso daitezke: ALEA-ren 173 galderatetik, 21 bokalentzat eta diptogoentzat dira, eta kontsonanteentzat 152, bertan fonetika sintaktikoa ere sartuz; eta portzentaiak berdintsuak dira Alvar-ek eginiko beste atlasetan ere, ALEAN eta ALEICan-en alegia.

Esan dugu ALPI-n ehuneko jasoagoa hartzen duela galdekizun fonetikoak, nola galdekizun luzean nola laburrean ere. Galdera gehienak gaztelaren fonetika historikoa ikertzeko asmotan jarriak dira: *abeja*, *abrevadero*, *abuelo* gisakoak, alfabetoki sailkatuak<sup>18</sup>. Dena den, bada beste hitzik ere artikulaketa moduak jasotzeko jarriak: *aire*, *baile*, *diario* erakoak. Edozein modutan, beti etimologia berdina duten hitzak jarritz emaitza erkagarriak jasotzeko.

ALG-ek 155 galderatetik %6,15, honako banaketa honekin: 83 fonetika diakronikoari eta 72 fonologiari, mapa sintetiko hagitz interesgarriak eskainiz.

ALDC-k, azkenik, espres jarriak, 34 galdera baino ez dio fonetikari ematen, eta denak fonetika sintaktikoa jasotzeko dira.

### **Maila fonetikoa jasotzeko gure saioa**

Hizkuntzaren mailen artean fonetikak duen garrantziaz mintzatu gara hasieran, baina gure hizkuntzari bereziki dagokionez, beti uste izan dugu euskararen fonetika-fonologia maila arreta bereziz jaso behar dela, batetik euskara hainbat lekutan galtzear dagoelako eta, euskararen normalkuntza bilakabidea hedatuz eta gotortuz doan heinean, urte gutxi barru gehien aldatuko den arloa fonetikoa izango delako bestetik. Bestalde, morfologia, sintaxia eta lexikoa bera ere, neurri on batean, literatura idatziaren bitartez kontserbatu ohi da, ez, ordea, arlo fonetikoa, aldakiekin batera galtzorian jartzen baita. Ez dago esan beharrik ere hortik datorrela gure asmoa eta ahalegina, metodologia bat zabaldu bidenabar euskal atlasean maila hori jaso ahal izateko<sup>19</sup>.

Jarraitu genuen metodologia hiru alderdi nagusitan banatu genuen:

#### **1. Galdekizun fonetiko-fonologikoa gertatu.**

17. Ikus goian 16. oharra.

18. "El propósito de esta sección del ALPI es mostrar la geografía de 'los fenómenos fundamentales articulatorios de fonética histórica' en el ámbito peninsular; por ello, en el cuestionario 'se procuró emplear conceptos que, para facilitar el cuadro comparativo, se expresaran con palabras de la misma etimología en las distintas lenguas y dialectos hispánicos'", Diego CATALAN (1989, 235).

19. Egin nuen tesiak *Euskal Atlas Linguistikorako ekarria: fonetika galdeki:una eta haren erabilpena; datu bilketa eta kartografiaketa Nafarroa-ko zenbait lekutan zuen izenburu bezala.*

2. Eremu geografiko mugatuan, Nafarroa-ko hogei herritan hain zuzen, erakusbide gisa, inkestak jaso.

3. Jasotako datuak traskribatu.

4. Datuak kartografiatu.

Azkenik, eta helburu nagusia aurreko pausuekin erdietsia izan arren, emaitzen analisi linguistikoa eta diatopikoa, beste helburu garrantzitsu bat lortu nahiez: azterturiko eremu geografikoaren sistema fonologikoa eratu.

### Galdekizunaren prestaketa

Horiek horrela izanik eta kontutan hartuz inguruetako hizkuntzen atlasak ere 3000 bat galderatakoak direla, egoki iduritu zitzaigun kopuru hori suposatzea euskararentzat ere, eta horietatik 300 bat, hau da, %10 fonetika-fonologia sailari eskaintzea. Mitxelena-k ere 1950. urtean, CSIC-en izandako bileren ondorioz, kopuru horretako galdekizuna gertatu zuen<sup>20</sup>.

Aurregaldekizuna kuestioetara lotuz gertatu genuen, fonemen azalpenak, aldaketak, banaketak, e. a. hiru multzo nagusitan eratuz: bokalismoa, kontsonantismoa eta ezaugarri suprasegmentalak, azentua batez ere. Denak fonetika sinkronikotik jasoak, baina, bidebatez, fonetika historikoari dagozkion fenomeno garrantzitsuenak ere jasoz. Hitz batez, hizkuntzaren azterketa dialektala egiteko fonetika deskribatzailean oinarritu genuen lana, gertaera bereiztaileak jasoz, eta kasu guztietan gaurko egoeran gertatzen diren aldaketak jasotzen ahalegindu gara, geografia beti kontutan hartuz, gertakizun guztiak jaso ahal izateko. Hori dela eta, kasu edo fenomeno bakoitzerako hainbat adibide ipini genituen eta, zenbait hotsen fonematasuna dudazkoa zenean, bikoteak ere jarri genituen. Orohar, 845 galderatako aurregaldekizuna gertatu zen, horrez gain ezaugarri suprasegmentalak jasotzeko esaldiak eta hitzak ere kontutan hartu behar direlarik.

Aurreinkesta euskalki guztietan jaso genuen eta bildutako materialak traskribatu ondoren erkatu eta aztertu egin genituen. Horren ondorioz, aurreinkesta garbituz eta bakanduz, galdekizuna 325 hitzetakoa bihurtu zen. Galdekizunak bi atal ditu: batetik, galdekizunaren sail nagusia, euskalki guztietan jasotzekoa, eta, bestetik, bi eraskin, bata Iparralde osorako 17 hitzetakoa, aspiraketa, leherkari aspiratuak jasotzeko alegia, eta bestea, 28 hitzetakoa, "ü" bokalari dagokiona Zuberoa-n eta Ekialdeko behe-nafarreraz egiten den tokietan jasotzekoa. Beste hitzen bat ere sartzen da tartean bokal sudurkariak biltzeko asmoz.

20. Askotan aipatu izan du Mitxelena-k egitasmo hau, ikus besteren artean, 1964, "El atlas lingüístico vasco", *Presente y futuro de la lengua española* I, Madrid, 427-442. or. eta 1965, "La actividad lingüística en el campo vasco", *Communications et Rapports du I Congrès Int. de Dialectologie Générale* IV, Lovaina, 224-232. or.

Berehala ohartu ginen galdekizun fonetikoan ez dagoela sintagma luzeak batasunez jasotzerik, aldatu egiten direlako hainbat elementu pertsonatik pertsonara eta toki batetik bestera, eta erantzunen balioa ezabatua edo murriztua gelditzen zelako ondorengo azterketarako. Bestalde, ezaugarri suprasegmentalak ere baztertzea erabaki genuen, ez baitute atlasek tokirik egokiena eta ziu-rena aurkezten azentua eta entonazioa jasotzeko.

Galdekizun honekin beste aurreinkesta bat ere egin genuen inkestatu behar genuen Nafarroa-ko lurraldean bertan, horrela galdekizuna frogatua eta finkatua gelditi zedin. Horren ondorioz, 300 hitzetan utzi genuen galdekizuna, Iparraldean jaso behar diren eranskinak erantsiz. Hala eta guztiz ere, edozein zalantza argitzeko edo eta erabaki zailenak egiaztatzeko, batzuetan aurreinkestak ere errepikatu behar izan ziren. Egia esan, lana burutu ondoren ohartu ginen garbien metodo honen badaezpadakoaz alde batetik eta garrantziaz bestetik.

Honela lortu zen galdekizuna jasotzeko neurritan uztea; horrekin batera, grabaketa askeak eta aske bideratuak edo arteztuak ere jaso genituen, galdekizunaren bitartez jasotako erantzun erdi bortxatuak egiaztatu eta grabaketa askeen bitartez erkatu eta kontrastatzeko.

### **Lekuak eta lekukoak**

Inkesta jasotzeko hautatu ziren Nafarroa-ko hogeit hamar herriak azpieuskalki eta aldaki desberdinetan hedatuak bilatu ziren, datuak erkatzerakoan ondorio aberatsagoak atera ahal izateko. Hortaz, bi euskalkitakoak jaso ziren, lapurterakoak, eta guretzat, nagusia zena, Iparraldeko goi-nafarrerakoak, azken honetan lau azpieuskalki bilduz: Ultzamakoa, Baztangoa, Bortzirietakoa eta Arakilgoa.

Lekukoei dagokienez, toki bakoitzean hiru informatzaile hartu ziren. Halere, informatzaile nagusia, leku bakoitzean, bat baino ez da izan eta mape-tan ezarri genuen informazioa lekuko nagusiari dagokio. Bigarrena osagarri bezala hartu zen eta hirugarrena emaitzak kontrastatzeko.

Bide hau kontserbatzaile eta egungo metodologia dialektologikotik atzeratua dela pentsa daiteke, eta arrazoiz gainera. Baina aztertu ditugun besteen esperientzia txarrekin, informante ugari erabiltzearen zailtasunak eta ezin gaindituzko oztupoak alegia, betiko bideari heldzea gomendatu ziguten<sup>21</sup>.

21. LOPE BLANCH-ek (1985, 399), Mexico-ko atlas linguistikoa egiterakoan, hiru variable hartzea kontutan erabaki zuen: adina, sexoa eta maila sozio-kulturala, alegia. Berak argi aski azaltzen ditu horren bidez bilatzen zituen xede nagusiak: "Obtener muestreos fundamentales de polimorfismo lingüístico de las hablas mexicanas; superar la desconfianza o inseguridad que me producen, en algunas ocasiones, las respuestas obtenidas de un informador único; y, detectar fenómenos que pudiesen apuntar a factores sociolingüísticos como determinantes de ellos".

Alabaina, ezin fisikoak alde batetik eta zailtasunak bestetik, utzierazi zioten hasierako plan-gintza hau.

## Mapen idazketa

Mapetan informazioa emateko dauden sistema desberdinen artean, gero irakurtzeko eta interpretatzeko errazena hautatu genuen, toki bakoitzeko erantzunak dagokion tokian ezartzen dituen sinboloen bitartez. Maparen azpian jarri genuen jasotako informazioa beti lehenengo lekukoari dagokiona da, jakina. Bigarren lekukoaren informazioa lehenbizikoarenetik aldatzen zen kasutan, oineko oharretan ezartzen da, betiere aldatzen zena funtsezkoa zenean eta mapan jasotzen zen fenomenoarekin zerikusirik zuenean. Hirugarren lekukoarena mapen analisisan baizik ez da erabiltzen.

Mapa bakoitzeko informazioa ordenatzeko erak ere desberdinak dira, baina hautatu genuena berezi xamarra gertatzen da. Guk gertatutako zerrendetatik fenomeno bakoitzaren bilakabidea ezagutzeko aukera ematen da; bestela esan, fenomeno linguistikoaren eboluzioa jarraitzen da, mapan gertatzen den informazioak horretarako biderik ematen badu, jakina. Arriskutsua da, bai, metodologia hau, batetik, euskararen fonetikaren historian oraindik hutsune aunitz dagoelako fenomeno askoren berreraikitzea egin ahal izateko; eta, bestetik, erantzun bakoitzaren barnean hizkuntz fenomeno bat baino gehiago gerta daitekeelako bilakabide desberdinekoa. Hori dela eta, batzuetan mapetan ager daitezkeen eboluzio formak harrigarriak gerta daitezke, baina kontutan hartu behar da mapa bakoitzean azaltzen den fenomenoaren bilakabidea bakarrik zaintzen dela; eta lexema berean gerta daitezkeen beste edozein fenomenok ez duela zergatik aurrekoarekin zerikusirik izan beharrik ez eta batera gertatu beharrik ere. Esan dezadan, 459 mapek osatzen dutela lan hau.

## Mapen automatizazioa

Ordenadoreen erabilpena ikerketa linguistikoan 60-ko hamarkadan hasi bazen ere, orain dela gutxi arte erabilpena eta laguntza mugatua izan da, datuak zenbatzea, ordenatzea eta maiztasunak zehaztea izan baita eginkizun nagusia<sup>22</sup>; egun, gero eta aplikazio probetxugarriagoak eta interesgarriagoak ateratzen zaizkio teknika honi, gure kasuan atlasgintzarena esaterako. Arlo honetan teknika konputazionalak beranduago sartu badira ere, ez dago dudarik oso beharrezkoak gertatzen direla, atlas bat egiteko hain dira haundiak erabiltzen diren kopuruak eta materialak, ezen ia ezinbestekoa gertatzen baita ordenadorearen erabilpena eta horrek dakarren onura ere neurtezina da. Ordenadoreak atlasgintzan probatzen eta ordenadoreekin baliatuz saioak egi-

22. Lehenengotariko saioa geografia linguistikoan egin zen, U. Weinreich-ek 1962-ean aplikatu zuen informatika yidish hizkuntzari buruz egin zuen lan soziologikoan, *Antropological Linguistics* IV, 6-22; Houk-ek 1967-ean saio bat egin zuen: "A computerized Statistical Methodology for Linguistic Geography: a pilot Study", *Folia Linguistica* I, 80-95. Fonetikaren eragari hartan hasi ziren. Lanik ezagunena eta lehenengotarikoa Flanagan-ena, 1962. dela esango nuke: "The use of computer for research in phonetics", *Actes du 4ème Congrès International des Sciences Phonétiques*, The Hague, Mouton, 149-154.

ten aspalditxotik hasiak dira; lehenengo-lehenengoak Europa-ko atlasaren plangintza egin zen garaioak lirateke, batez ere kartografiaketa mailan pentsatuz<sup>23</sup>. Behin baino gehiagotan aipatu dugun Kanada-ko Atlasa ere informatizatua dago. Gugandik hurbilago gelditzen den Santander-eko atlasean informatikaz baliatu ziren Alvar-ek dioenez, artean teknika gibelatuxea erabili bazuten ere, fitxa perforatuez eta plotteren bitartez mapak eginez.

Atlasgintzaren inguruan eta informatizazioaz baliatzen ari direnetik, betiko formatotik kanpo beste itxura bateko atlasak ere egiten dira, hau da, datuak ez mapetan baizik zerrendetan ematen direlarik. Gure ustez, horrelako zerrenda informatikoak oso interesgarriak izaten dira eta informazio haundia ere eskaini dezakete, baina ez dut uste atlas dei daitezkeenik, atlasek eskatzen duten baldintzetatik kanpo gelditzen direlako eta atlasek eskaintzen duten informazioa ere ezkutuan gelditzen delako, hala nola lurraldeetako hizketen ikuspegi orokorra eta informazio batua edo, bestela esanez, begiz eta osotasunez jasotzen den informazioa bera. Horrelako zerrendak mapen osagarriak izan daitezke, jasotzen den hainbeste informazio eta mapetara pasatu ezin daitekeena zerrenden bitartez eskainiz. Edonola ere, ezin uka atlasgintzaren automatizazioaz baliatzeak, geroari begira, zeinen aukera onak ematen dituen informazio zehatz eta txukun hori aztertzeke eta aprobetxatzeke.

Guk ere abantaila honetaz baliatu nahi genuen. Horretarako transkribaketa fonetiko zegoen informazioa kodeturiko datuetan sartu genuen datu basean, betiere ordena finkatu baten arabera. Lehen esan bezala, mapetan azaldutako informazioa bilakabide fonetikoaren arabera azaldu nahi baikenuen, honako arazo hau sortu zitzaigun: nola diseinatu programa gero ordenadoreak datu horiek behar bezala ordenaturik prozesatu zitzaiz? Egia esan, arazoa ez zen teknologikoa, teknologiak edozein gauza hartzen baitu, arazoa gure aurririzpidean zetzan, linguistikoa zelako. Geuk ere zalantza haundiak izanik bilakabideak seinatzeko, nola ordenadoreari agindu finko, sistematiko eta mugiezinak eman? Horregatik, bada, ordena finkatuan sartu genuen informazioa. Horrek ez du inola ere eragozten, nahiz gero mapagintzarako eman ziren pausutan bezala, nahiz aurrerago egin nahiko balitz edozein lan mota, nahiz analisi programetarako, nahiz datu estatistikoak jasotzeko edo beste edozein lanetarako, han dauden datuez baliatzea eta haiei probetxua ateratzea.

Bestalde, mapen diseinurako erabili dugun lan informatikoak bi alderdi tekniko ditu, alde batetik erabili den tresneria<sup>24</sup>, eta mapak egiteko programak bestetik. Programa hauek hiru taldetan banatzen dira:

23. Ikus, besteak beste, HEEROMA, K.: 1956, "Vers un atlas linguistique européen", *Orbis* V, 339-348; PUTSCHKE, W.: 1972, "Planung einer Projektdurchführungs automatische kartierung des Atlas Linguarum Europae", *Germanistische Linguistik* VI, 547-577.

24. Hardware ekipoa, ordenadore pertsonalekoa, honako elementu hauekin: unitate zentrala, UBM-ko PS / 2,80 ereduakoa, 80386 prozesadorea 80387 koprozesadore matematikoarekin eta 2MB-ko memoriarekin eta EPSON SQ-2500 inpresora 24 puntutako tintazko iniekzioarekin.



1. Datuen basearen eragintzarako programak, zeintzuk dituzten herrigune bakoitzeko datuak eta 459 lexemen ahoskerak. Esan bezala, standardizatu gabeko sinboloak sartzeko zenbait kode erabiltzen dira.

2. Diseinuko programarako aginduak sortzeko programa. Programa honek datuen basea eta ordenadorez lagundutako diseinuko programa komertziala elkartzen ditu. Zailtasun haundiena programa honetan dago, datuen baseko datuetan (letrak eta kodeak) oinarrituz, programa standardentzat ulergarri izan behar diren marrazkiak egiteko agindu sail bat, agindu multzoa finkatu behar duelako. Horregatik, prozesu osoa programa honetan automatizatzen da; zenbait datu landugabetan oinarrituz, aginduak ematen dizkio agindu horien arabera mapak marraztu behar dituen programari.

3. Ordenadorez lagundutako diseinuko programa (CAD). Programa komertzial honek mapak edo planoak egiteko aginduak pertsona batengandik hartzen ditu, baina gure kasuan lehen azaldu dugun aginduen programatik hartzen ditu, honela mapen diseinuaren bilakabide osoa erabat automatizatu gertatzen delarik datuen basean oinarrituz.

### **Jaso ditugun ondorioak**

Behin bukatu ondoren, uste dugu lanak eskaintzen dituen materialek hizkuntzaren aldetik ekarri bat suposatzen dutela, baina, horrez gain, lana bera metodologiaren aldetik ere baliagarria gerta daiteke, datuen analisi eta sistematizate, prozesatze eta kartografiatze faseak batez ere. Bestalde, materialen eta kartografiaketaren informatizazioari dagokionez, bide berria ireki dugula uste dugu, euskal informatiko batek prestaturiko datuen basetik zuzenean kartografiaketarako nahiz plotteraren nahiz beste lagungarriren beharrik gabe, programa berria gertatu zigulako.

Halere, beti izaten da interesgarria horrelako kasuetan agertzen diren hutsagiteak edo bidean sortzen diren akatsak errebisatzea eta aztertzea, batez ere esperientzia baliagarria gerta dadin ondorengoentzat eta hurrengotarako, gauzak burutu ondoren agertzen direlako garbien nolakoa behar zuen izan lanak edo nola joka beharko litzatekeen lana hobeagotzeko.

Gurean ere aurkitu dugu horrelakorik eta azaltzera goaz garrantzitsuenak behinik behin. Tokiei buruz uste dugu inor ez dela konforme izaten jasotzen edo hedatzen duen sarearekin, eta guri ere beste hainbeste gertatu zitzaigun, batez ere hertsia goa izatea nahi izango genukeen. Dena den, sarea erabaki eta antolatzerakoan gauza batek du, gure ustez, aparteko garrantzia: hizketa bereziak erkatzeko, elkarren artean hurbileko tokiak hautatzea beharrezkoa gertatzen dela esango nuke. Guk aztertutako lurraldean Oronoz-Mugairi eta Oieregi, Aniz eta Berroeta, Arrarats eta Eratsun eta Beramendi lekuekin egin dugu eta emaitza ezin hobeak jaso ditugu. Tamalez, ez genuen jaso Urdazubikoa Zugarramurdi-koarekin erkatzeko, edo Zubieta-koa alboko

Ituren-goia jaso arren, Bortzirietakotik eta Bertitzaranakotik desberdindu egiten delako azken hau.

Lekukoei dagokienez, adinaren aldakia garrantzi haundikoa dela ohartu ginen, eta jasotzen den informazioa adinaren arabera aldatu egiten da, eta horregatik adin desberdinetako lekukoekin jaso behar da informazioa guk aztertu dugun mailan behintzat, horrela hobeki erantzuten diolako adinaren aldaki honek gaurko egoerari.

Traskribaketari dagokionez, hasiera-hasieratik garbi genuen fonetikoak egin behar zela. Horren ondoren eta emaitza kartografiatuen aurrean, analisia egin bidenabar hizketa bakoitzeko sistema fonologikoa ezagutu eta fonemak eta artxifonemak finkatzen saiatu ginen. Traskribaketak entzumenezkoak egin genituen eta horren ondoren analisiak, artikulatorioak eta diakronikoak, eta akustikoari ere, saio bat baizik izan ez zen arren, ekin egin genion.

Analisi mailan aski gauza politak aurkitu genituen. Nabarmenena ahoskeran gertatzen den aniztasun handia edo, beste erara esanez, hizketako gertakizunen batasunik eza. Bestalde, oso eraginkorra gertatzen da fonetika mailan enuntziario eraren eragina. Ahoskera zaindu eta begiratutik ahoskera laxora dagoen aldaketa hain izaten da kasu askotan handia, non hots desberdinak gertatzen direla dirudien. Honen ondorioak aberatsak dira. Batetik, polimorfismo kasuak aipatu behar dira. Polimorfismo lexikoa alboratuz eta fonetikoan geldituz, bi motatakoak ager daitezke, banakakoa eta soziala, alegia. Lehenengoak hizketa laxoarekin bat egiten du, kasu gehienetan oso ahoskera puntualak izaten direlarik eta hiztunaren errejistro bikoitzari dagozkionak. Soziala, berriz, sistema fonetikoaren egoerarekin lotzen da eta bereziki *status* finkorik ez duten forma fonetikoetan aldaketak eta txandaketak sortzen ditu: hurbilkariak, sabaikoak, yod hotsaren gertaerak lirateke fenomeno honekin harreman estuan gertatzen direnak. Hizkera laxoaren eraginez ere hotsen artean aldaketa ugari gertatzen dira, hots afrikarien igurzkari bihurtzea, kontsonante albokarien eretroflexutasunaren galera, dardarkarien asibilaketa lirateke fenomenorik arruntenak eta ohizkoenak.

Dena den, ondoriorik nagusia, datuak traskribatzerakoan, analisi akustikoaren beharra dela esango genuke. Objektibotasuna eta errealtatea zaindu nahi izanez gero, sonografoaren premia agerian gelditu zitzaigun, aunitzetan guk traskribatu genuena eta azterketa akustikoaren ondoren jaso genuena ez baitzetozen bat. Horrek berekin beste ondorio bat ere badakar eta ez garrantzi txikiagokoa: orain arte eginiko eskemak hautsi egiten direla neurri batean, eta eratutako arau fonetikoek berrikusi beharra dutela eta ezarritako zenbait isoglosek ere bai.

Azkenik burutapen linguistiko batzuk ere egin nahi genituzke. Gure lana mugatua izan bada ere, agerian utzi du euskarak inguruko hizkuntzekin erkatuz egitura morfologikoa desberdina badu, fonetikoak ere berezia duela eta

horrek analisi aproposak behar dituela. Bestalde, euskal hotsen bildumari begiratu, ohartu gara hots batzuk arreta berezia behar dutela azterketa sakona eginez, kasuan kasuko testuingurua eta banaketa kontutan hartuz, premia larrian daudelako beren egoera eta azalpena zein den garbitzeko eta, horren ondorioz, sistema behar bezala osatzeko eta jarri izan zaizkien muga geografikoak birraztertze, hala nola, gorunzko diptongoek, ezpain-hortzetako igurz-kari ahoskabearen ebakerak, zenbait kontsonante taldek, eta sabaiko kontsonanteen sailak.

### Aipamen bibliografikoak

- CATALÁN, D., 1989, *El español. Orígenes de su diversidad*, Paraninfo, Madrid.
- DULONG, G., 1969, *Enquête dialectologique et phonétique du français parlé au Québec*, (2 ale), Presses de l'Université de Léval, Québec.
- IORDAN, I., 1967, *Lingüística románica*, Madrid (itzulp., berregitea eta oharrak, M. Alvar-enak).
- IVIĆ, P., 1963, "Dialectologie et atlas linguistiques", *Orbis* 22, 117-131.
- KOLB, E., 1979, *Atlas of English sounds*, Francke Verlag Bern, Switzerland.
- KRETZSCHMAR, W., 1988, "Computers and the American Linguistic", in A. R. THOMAS (ed.), *Methods in Dialectology*, 200-224.
- LOPE BLANCH, J. M., 1985, "La información lingüística de los atlas lingüísticos", *Actes del XVI Congrès International de Lingüística i Filologia romániques*, (III. alea), Palma de Mallorca, 399-405. or.
- NAVARRO TOMÁS, T., 1975, *Capítulos de geografía lingüística de la Península Ibérica*, I.C.C., Bogotá.
- POP, S., 1950, *La dialectologie. Aperçu historique et méthodes d'enquêtes linguistiques* (2 ale), Lovaina.
- SALVADOR, G., 1977, "Estructuralismo lingüístico e investigación dialectal", *RESEL* 7-2, 36-47.
- SANCHIS GUARNER, M., 1953, *La cartografía lingüística en la actualidad y el Atlas de la Península Ibérica*, C.S.I.C., Instituto Miguel de Cervantes, Madrid.
- SÉGUY, J., 1965, "Essai de cartographie phonologique appliqué à l'Atlas Linguistique de la Gascogne", *Actes Xè. CILPhR* III, 1029-1050.
- WEIJNEN, A., 1977, "Aspects phonologiques de l'Atlas Linguarum Europae", *Actas del V Congreso Internacional de Estudios Lingüísticos del Mediterráneo*, CIELM, 415-436. or.

## **HONDARRIBIKO HIZKERA ROQUE JAZINTO SALAZARREN PREDIKUAN (1778)**

Juan Antonio LETAMENDIA  
Txomin SAGARZAZU

### **SUMMARY**

This lecture examines the dialect of Fuenterrabia, (Guipúzcoa) in the light of a sermon during lent in 1778, recently published and the work of Roque Jacinto de Salazar. This document, the oldest written in this dialect, presents features of an essentially phonetic-phonological and morpho-syntactic nature which are described to us in comparison with dialectological literature on this dialect and with the direct knowledge we have of this dialect today.

### **RESUME**

Cette communication examine le dialecte de Fontarabie (Guipuscoa) à la lumière d'un sermon de carême de 1778, récemment publié et oeuvre de Roque Jacinto de Salazar. Ce document, le plus ancien qui soit écrit dans ce parler, présente des particularités essentiellement d'ordre phonético-phonologique et morpho-syntaxique que nous décrivons par comparaison à la littérature dialectologique sur ce parler et à la connaissance directe que nous avons du parler actuel.

## 0. Sarrera

Bonapartek Hondarribiko hizkera aztertu zuenean ez zuen bere aurreko testigantzarik ezagutu. Orain, Satrustegiri esker, Roque Jazinto de Salazar hondarribiarraren predikuaren aukera dugu. Bertako hizkeraren lehenbiziko testigantza delako hautatu dugu, eta, Biltzar honetarako hain zuzen ere, Bonapartek emandako zenbait hizkuntz ezaugarri ageri-agerian dituelako.

*Orotariko Euskal Hiztegia*n agertzeak eta Satrustegiz gainera Alfontso Irigoyenek eta bestek predikuaren zenbait ezaugarri aztertu izanak testuaren axola adierazten du, Hondarribiko lehenbiziko testigantza izateaz gain, Gipuzkoako ipar-goinafarreraz ere lehenengoetakoa baitugu.

Gure lana, testua Hondarribitik bertatik irakurtzea izan da eta aurrekoen ildotik bertako hizkeraren ezaugarrietan sakontzen jarraitzea, Bonapartegandik hasita gaur arte ditugun erreferentziaz baliatuz. Fenomenoen hedadurari antz ematen ere saiatu gara nolabait. Argitaratu ahal izateak lanaren luzera laudenera murriztera behartu gaitu, aipamenen eta hornidura kritikoaren kaltetan batipat. Izango da betarik noizpait atal batzuk osoago emateko.

## 1. Auzia eta predikugilea

Salazarrek 1778.eko garizuman egindako hitzaldia dugu aztergai. Eskuizkribua Iruñeko Artzapezpikutegiko Artxiboan dago eta J. M. Satrustegik argitaratu zuen lehen aldiz *FLVen* (1979, 287), bide batez auziaren eta hizkuntz berezitasunen berri zehatza ematen zigularik.

Salazar bikarioa eta herriko agintarien arteko gatazkak lehendik zetozen Hondarribiko Udal Artxiboan ikus daitekeenez (E-4, 35-6, *Exped. Parroquia: Preeminencias*). Oraingo honetan, auzian ageri denez, Salazarrek azken sei urteetan ez omen zuen betetzen igande eta jaietan predikua egiteko obligazioa, testuak dioenez “mingañian traba eta moteltasuna” zuelako, zeregina Pedro Antonio Díaz Zamorano *theniente*aren gain gelditzen zelarik (84. folioa). Hori zela eta, herriko agintariek auzitara jo eta epaileak Salazarrek egin behar zuela predikua erabaki zuen. Horrela egin zuen martxoaren 22an, baina bertan adierazitakoak iraingarriak zirelakoan edo, berriro eraman zuten auzitara agintariek. Honi esker gorde da platika sumarioko gainerako agiriekin batean.

Salazarrek “kartapazio” batetik irakurri zuen predikua. Ez dago horren garbi, ordea, nork idatzi zuen bera. Díaz Zamoranoren testigantza gogoan hartuz Satrustegik bigarren hau jotzen du egile posibletzat (1979, 297). Hona zer dioen Díaz Zamoranoren aitortenak (84. fol.):

...y que efectivamente consultó [Salazarrek] al deponente [Díaz Zamorano], y con intervención suia dispuso, y escribió d(ic)ho vicario en lengua bascongada, el exordio, que la Ciudad parte contraria llama preambulo, (...)

Y que no quitó, ni añadió palabra alguna à d(ic)ho Preambulo, pues à haverlo hecho lo hubiera conocido facilmente el deponente por hallarse impuesto en èl muy radicalmente.

Hortaz, kontutan harturik aurreko sei urteetan Díaz Zamoranok egin zituela hitzaldiak, ez litzateke harrigarria prediku hau ere berorrek idatzia izatea. Eskuizkribuko letra, hala ere, Salazarrena dela uste dugu, antzekoa baita bataio-liburuetan bere sinaduraz datozen agiri gehienetakoa, guzietakoa ez bada ere. Nolanahi den, hondarribiarrak genituen biak, Donostiako Elizbarrutiko Histori Artxiboan dauden bataio liburuetan egiazta daitekeenez.

Salazar, Pedro de Salazar errege eskribaua eta Maria Josepha de Alcayaga-ren semea, 1734.eko irailaren 11n jaio zen Hondarribian (*Libro 5º*, 1714-1738, A-1-7). 1752 eta 1754.ean bi benefizio-erdi erdietsi zituen eta 1761.ean benefiziatu berriena zen. 1762.ean bikario izendatu zuten eta horretan iraun zuen hil arte (1793). Euskara predikuetan erabiltzearen aldekoa omen genuen, 1777.ean bere ardurapeko sermoiak euskaraz egitea eskatu baitzuen eta horrelaxe onartu zioten; geroago, ordea, hiriko prediku guztiak ere euskaraz izatea eskatzen duenean ezezkoa jasoko du.

Díaz Zamorano ere, Juan Antonio Díaz Zamorano eta Rossa de Mar[z]ito Ugar[z]iz-en semea, Hondarribian jaio zen 1742.eko abenduaren 28an (*Libro 6º*, 1739-1774, A-1-8). Predikuak euskaraz egiteko zuen gaitasunaz zalantzarik ez dago, auziko lekukotasunaz gain, 1764.ean eman zioten kapeilautzaren betebeharren artean hitzaldia zenbaitetan euskaraz egin beharra zegoenez gero.

Ikusiko dugunez, predikugileak ongi bereganatuak zituen Hondarribiko hizkeraren ezaugarriak.

## 2. Testuaren finkapena

Testua, esan bezala, 1979.ean eman zuen argitara lehenbiziko aldiz Satrustegik *FLVen*, eta berriro 1987.ean, beste hainbat testu interesgarriekin batera, *Euskal Testu Zaharrak* deitu bilduman.

Argitalpen biak erkatuz gero ageri diren aldeak gogoan harturik *FLV*-ekoa hobesten dugu, bigarrenaren iturburu delako eta jatorrizko eskuizkribuari hertsiago lotzen zaiolako. Hala ere, geure aldetik xehetasun batzuen irakurketa berria proposatzen dugu, oraingo hau ere behin betiko irakurketa izango ez den arren.

Deus baino lehen, esan dezagun jatorrizkoaren idazketa-akatsekin batera (*Demoniuaguen Pricipiaren* (9), aurreko orrialdean *Demoniuaguen Principiaren* (8); *zistutela* (11), orrialde berean *situsten*), aurki genitzakeela traskribatzailearen zuzenketak: agerikoren bat (*Belbezuren (sic)* (11)), eta adierazi gabe egindakoak (*hipocresia* (5), jatorrizkoan *hiprocesia*; *erreinu* (10), jatorrizkoan *Ereinu*, baina orrialde berean *ereinuac* (10), jatorrizkoan *Ereinuac*). Halaber, kopiagilearen hutsen bat edo beste, ordezkatzeko zenbait: *zitzon* (7), *zition* jatorrizkoan; *zuben* (8), *zuten* jatorrizkoan; *dezala* (3), jatorrizkoan *bezala*; *malagruac* (9), *milagruac*; *eguskia* (9), *egusquia*; *denboran*

(9), *demboran*; *Inperiu*a (10), *Imperiu*a. Eta azentuak eragindako irakurketak: *oñelacoa* (1), *ônelacoa* jatorrizkoan; *Gezón* (7), *Gizon* jatorrizkoan.

Badira, beste aldetik, geure modura irakurri ditugun zenbait grafema:

1) *n̄* batzuk eskas ditu *FLV*-eko bertsioak: *nai baldin baduzu* (3), jatorrizkoan, *naibaldiñbaduzu*; *jaquin* (3), *jaquiñ*; *sinistuarazozeco* (7), *siñistuarazozeco*.

2) *g / q*: jatorrizkoan *FLV*-eko bertsioan baino adibide gehixeago irakurtzen ditugu *g*-rekin: *diaurrarenaquin* (8), *diaurrarenaguin*; *predicacioarequin* (9), *predicacioareguin*; *quencia* (12), *guencia* (nahiz lerro berean *quenzen* idatzi).

3) *s / z*: fonetika atalean berriro agertuko den arren, bada hitz beretan bi txis-tukarien arteko alternantzia, zenbaitetan egileak zein idatzi duen erabakitzea zaila gertatzen delarik. Hala ere, baditugu *FLV*-ekiko ezberdin irakurtzen ditugun zenbait adibide: *Eliza* (7), *Elisa*; *baicican* (7), *baisica*; *baizica* (10), *baisica*; *baizic* (12), *baisic*; *icusinaia* (12), *icuzinaia*.

*Capitularrac* (1), gure irakurketari jarraikiz *Capitulariac* litzateke, jatorrizkoaren tildearen arrastoari jaramon eginez gero, behintzat (cf. gaur egungo *páriak*; Irungo Azcùeren *Martireac* (Ondarra 1987, 306); Irungo 1854.eko *Pillarea* (Satrustegi 1987, 243) eta Lesakako 1857.eko *millare* (Satrustegi 1987, 259)). *Judienac* (11), berriz, garbiegi bereizten ez dugun arren, genitiboaren kasu marka gabe irakurtzen dugu: *Judicuac* (edo *Judieuac*?).

### 3. Hizkuntz azterketa

#### 3.1. Fonetika-fonologia

##### 3.1.1. Azentua

Oso adibide gutxitan ageri da azentua testu honetan: berrogei bat aldiz. Azentuaren agerpen eskas hori ikusita pentsa zitekeen balio berezlea izan zezakeela, baina horrelakorik ere ez dago.

Hualdek eta Sagarzazuk (1991) Hondarribiko egungo sistematzat proposatzen dutenarekin erkatuta zenbait ondorio atera daitezke:

Salazarren adibideak, orhar, bat datoz Hondarribiko azentuak eta Bidasoaldekoak duten ezaugarri nagusiarekin, alegia, azentuaren kokagunea lexema da, eta beraz, ez dugu azenturik izango sekulan hondarkian -ez mugatzailean, ez kasu-markan-. Adibidez: *ón.ian* (1), *ón.ic* (2), *gorpús.eco* (9), *âmoriu.ac* (5), *ózazun.aren* (9), *óbligacio* (1).

Predikuan, izen eta adjetiboetara begiratuz gero, betetzen da araua. Bi silabaz goitikoetan, ordea, ez da betetzen egungo sistemarako proposatzen den beste arau bat, honela dioena: bi silabaz goitiko hitzetan lexema kontsonantez bukatzen bada, azentua azkeneko silaban joango da (*osasún, ezagún*); bokalez bukatzen bada, azentua azkenurreko silaban joango da (*alába, berrikéta*). Predikuan, berriz, *âmoriuac* (5), *ózazunaren* (9) eta *óbligacio* (1) ditugu (*amóriyua, osasúnaren* eta *obligazíyo*, gaur egun).

Erakusleen sailean denetarik dago, hots, egungoarekin bat datozen etsenpluak: (*h*)*urá* (1, 8, 10), *onélatan* (2), *onélaco* (5), baina ez datozenak ere bai: *ónec* (8), *óni* (1); egun *onék*, *onéri* ebakiak.

Aditzetako adibideak ez datoz bat egungo praktikarekin, izan ere *úste* (1, 2) eta *íraungo* (10) ematen baititu, eta egun bigarren silaban, ezkerretik, dute azentua: *usté* eta *iráungo*, aditz nagusi gehienek bezala. *Ba-* dela eta, baldintzazkoa denean egun bezala egiten du, tonikoa: *au bálizaque... izango lizaque* (1, 2). Baiezko *ba-* ere egungoaren modura dakar, alderantziz, atonoa, alegia: *gausa onetan badíre inorancia asco* (3).

Ezezko perpausetan *ez* atonoa dugu predikuan, tildea adizkiak daramalarik: *Está* (2), *estú* (8). Egungo erabileran ere atonoa da eskuarki: *está*, *estú*, *etzió*, *etziót*, *etzákiet*, *etzáken*, *etzákitten*. Eskuarki diogu, zeren eta *-ela* atzizkia hartzen duenean tonikoa baita: *esán du éztakiyela* (eta *éztakiyelà*); *esán du éztula lána bukátu*; *esántzuen étzakiyela*; *esántzuen éztula lána bukátu*.

Azentuarekin erlazonaturiko silaba postonikoaren *sinkopa* ere ageri da testuan: *ecusco* (2), baina *erorico* (10) ere bai. Adibide bakarra den arren, egungo joerarekin bat dator. Hondarrribian, protonikoak eta postonikoak desagertu egiten dira maiz. Eta hori erruz gertatzen da partizipioari *-ko* ezartzen zaionean: *erorko*, *ikuxko*, *etorko*, *ekarko*, e.a (Letam. 1991, 42). Bonapartek ez zuen Hondarrribian jaso baina Bährrek *EI*-n bai (*EI* 29). Bonapartek Nafarroan, Arantzian, jaso zuen eta gipuzkeratik bereizten duen fenomenoa dela esan zuen. Echaideren adibideak ere ugariak dira. Mitxelenarentzat goi nafarreraren ezaugarri nabaria da (1976, 253).

### 3.1.2. Bokalismoa

#### 3.1.2.1. Bokal berdinketak

Bokalismoan aurkitzen dugun indukzio mota bat artizki faktitiboaren asimilazioa da, *e-ra-* > *e-re-*: *ereman* (1), *ereguiten* (1), *erecuzi* (6). *Era-* ez dugu behin ere predikuan.

Mitxelenak (1977, 2.9) esaten digunez, Uhlenbeck-ek aipatu zuen aurreko *e-* horren eragina Leizarragarengan, *eredoski*, *erekarri* eta *ereçarri* erabiltzen baititu: *eredosquiten* (Mat. XXIV, 19; Marc. XIII, 17; Lvc. XXI, 23); *eredosqui* (Lvc. XXIII, 29); *ezteçaçuela erekar* (Lvc. III, 13); *erekarten duqueitelaric* (Pier. II II, 1); *ereçarri vkan drauca* (Lvc. VI, 48), e.a. Hala ere, *erabili*, *eracutsi*, *eradan*, *eragotzi*, *eraguin*, *eraichequi*, *eraiqui*, *eraitsi*, *eraman*, *eraquin* (irakin), *eraunci*, *eratchequi*, *erauci*, *eraunsi* eta *erautsi* (Aresti 1973, 61). Haranederrek ere *eredoski* (Mat. XXIV, 19). Lafittek bere gramatikari “598.- Conjugaison du verbe *ereman*” dakar, eta teoriarik ez ezik idaztean ere erabiltzen zuen. Azkuek hiztegian *ereman* dela eta *AN*, *BN*, *G*, *L* aipatzen dizkigu, *eredoskitzaille* ere Duvoisinaren eskuizkributik, baina Axularrengan ira-



kurtzen duen *eregin* (1a.-190-1) guk *eraguin* ikusten dugu faksimilean: *ceren beharrac anhitz gauça eraguin deçaque*.

A. M. Echaideren inkestetan (262. galdera) *ereman* erantzuna Itzaltzu, Orbaizta, Aezkoako Iriberry, Luzaide, Auritz, Etxalar, Urdazubi eta Zugarramurdi ikusten dugu. Beste askotan *emán*, Hondarribian gaur egun esaten den bezala.

Hondarribian, *erekútz*i eta *béyaki akúlluakin ereíñ* entzun daitezke, zein maiztasunez ez dakigula, ordea.

Antzeko asimilazio fenomenoak aurkitzen dugu predikuan, *o-e-e > o-o-e*, bihurturik, behin bakarrik agertzen den *podore* hitzean: *Belzebu Demoniuaguen Principiaren virtute eta podoriarequiñ* (8). Forma ez da arrotza Goi-Nafarroako idazleen artean. Beriaynen *Tratado-an facultade eta podoreau* (7v) eta *podorea* (8) ditugu. Satrustegiren *ETZetan*, Etxalarkoan (1749) *podore gucia* (78); Ororbiakoan (1758), *demonioan astucie, eta podorea* (94); Lakuntzakoan (1838), *Guztis Podorosoaren* (230); eta Lesakakoan (1857), *zeben podorian duzubela* (255). Lizarraga Elkanokoarengan *Badu podóre, ta badu amóre* (1984, 133,1) eta *podóre infinito*a (33, 4). Elizondoko dotrinetan, *podoreaiquin* Echeniquerenean (Salaburu 1986, 822); bestean, *podore gucia* (Salaburu 1987, 455, 455, 456, 456, 458, 463) eta *Podore soilaz* (461). Gipuzkoan ere, Oikiako Dotrinar (1759) *podorotsu-* (Lakarra 1987b, 4, 4, 5, 8, 14, 22, 23), eta *podorio-* (4, 23, 27). Irungo Azcúeren sermoi batean (1783?) *podorea* (Ondarra 1987, 1.1.2). Hitzaren erabilera Larramendiren eraginez murriztuko zen Hegoaldean Burgosko Dotrinar (1747) datozen *aal guciaren jabea, aaltia, aal gucicoa* e.a. hobetsiz (Lakarra 1986, 1987a). Dena den, Hondarribiko predikuan datorren *jaquiundia*-k (10) Larramendiren eragina orduko ere ez zela arrotza frogatzen digu. Bilintxen eskuizkribuetan hitz zerrenda batean *podoria* eta *podoriyos* datoz (Zavala 1978, 76, 77). K. Mitxelenak, *bertako eta kanpoko indarren podorioz* idatzi zuen (1988, 339). Lapurteraz, Argaiñaratzek *Breuiarioa*-n (1665) *podorean* (149), eta *Dotrina*-n *bothoretsu* (236). Gasteluçarrek *Erakuts zer duzun podore* (1983, 145). P. Altunak Haranederren *Evangeli*o Saindua-ri ezarritako hiztegiari *podore* eta *podorosqui* jaso dizkigu.

Hondarribian gaurko egunean *ariyan podóriyuan* entzuten da, besteak beste. Bokalak berdintzeko joera honek bizi-bizirik dirauela ere esan dezakegu, *nolakoa, holako, sekulako* eta *opinioa*-ren orde, esaterako, *nólokwa, óloko, sékuloko* (Letam. 1990, 43) eta *oponiyua* (Artola 1981, 296) entzun daitezkeelarik.

### 3.1.2.2. Hiatoak

#### a) Bokal armonizazioak

Testu honen ezaugarri nabari bat hiatoei dagozkien fonetismoak ditugu: bokal armonian gertatzen diren disimilazioak eta epentesiak. Herri hizkerari

dagokionez, aurreratuko dugu lehenak, *ea > ia*, *oa > ua* disimilazioak, berdintsu gertatzen direla gaur egun Hondarribian, *ue > ube* epentesia, berriz, ez dator bat gaur eguneko jardun arruntarekin. Bonaparte fonetikan zerbaitetaz arduratu bazen hiatoez izan zen eta hark jasotako datuak bat datoz gure uste horrekin. Ohar bakarra azentuaren aldetik egingo genuke, Bonapartek *á, íá, iyá, uá, uá* ematen bait du Hondarribia eta Oiartzunerako (1868), eta, Hondarribian behintzat, *alába* (baina *neská*), *sémia*, *lusía*, *tókiya*, *mendíya*, *kóntua*, *txokúa*, *sónua* eta *burúa* erabiltzen dira, gaur egun bederen. Besterik gerta daiteke, eta gertatu ohi da, hitza hizketan “erabilia” izan gabe inkesta batean “aipatua” denean, silabak enfasi bereziz markatzen direlarik. Bonapartek berak *illargíya*, *alába*, *sémia*, *mendíya*, *otsúa* [ts-z] (baina *otsuá* Irunen) eta *burúa* (Irunen, *buruba*) jaso du beste eskuizkribu batean, gainera bi hitzetan “chante” idatzirik, entonazioari dagokiona segur aski (*Contestaciones*).

Dena den, Bonaparteren lanaren alde makurra aipatuz, Mitxelenak dioenez, hiatoen fenomeno hauek, oso barreiatuak direlarik, ez dira egokienak eremu etengabe eta ahalik zabalena mugatzeko, *a + a* elkartearen salbuespenaz (1988, 325).

#### **a + a > a**

Hondarribiko hizkeran *-a + a > -a* dugu gaur egun, Euskal Herri gehienean bezalaxe, eskualde jakinetan izan ezik: bizkaieraz eta Gipuzkoako eremu zabaletan (*ea*, *ia*, *ie*), Burundako gipuzkeraz (*ia*), eta zaraitzueraz (*ara*). Bonapartek ere *alába* jaso zuen Hondarribian (61. eskuizbr.), *Observations*-en honen berri ematen ez badu ere, eta Bähr-ek ere *arriba EI-n*.

Hondarribiko berezitasuna, predikuan ez bezala, gaurko egunean *-a* organikoa kentzeko joera larrian datza, joera Gipuzkoako beste lekuetan baino bortitzagoa delarik. Horren arabera *rái bat* (raya bat), *síl bat* (silla bat), *pálori* (pala hori) eta antzekoak entzun daitezke Portuko hizketan normalean. Halere, Holmerrek *bi arraultza* (A,6,F12) eta *bi arrátza* (A,6,F12) dakar, baina *bi labán* (A,7,F12) ere bai. Mendiburuk ere baditu horrelakoak Azkuek azaldu zigunez (*Mend. adizkiak*, 160): *Ait eternoa* (I. 169-14), *asm al diteken baño gauz andiago bat* (I. 59-10), *ala bad ere* (I.99-16), *Fest andi* (II. 252-19), *lots guzia* (II. 54-18), *gure Jesusen kutx edo ark eder* (III. 365-7), *Eliz bat* (III. 361-3), *ezpat zorrotz bat* (III, 211-20), e.a. Hala ere, P. Altunak erakusten digunez, Mendibururen apokopeak ez dagozkio *-a* bokalari bakarrik, gainerako bokalak ere erraz ezabatzen baititu (*I. argit. gabeak I*, LXXII). Joera honek eragiten dituen ultrazuzenketak ere ez dira falta Hondarribian, *erantzúna bat*, *proposamena bat*, e.a. entzuten direlarik (Letamendia 1990; Hualde-Sagarzazu 1991, 144).

*a* organikoa kentzeko joera, prediku honen arabera, berria dugu Hondarribian. Badirudi XVIII. mendearen bukaeran *-a* organikoa ongi man-

tentzen zela platikako *elisa*, *gausa*, *familia* eta *inorancia* lexemen lekukotasunaz: *eliza onetaco Vicario* (1), *Elisa Ama Santuac* (7); *ez da gausa francoagoric* (2), *gausa onetan* (3), *gausa gustien gañian* (3), *Au da gausa bat chit lastimagarria* (6), *zer gausa on izan alditaque* (10); *familia batian* (10), *familia arc* (10), *familia artan* (10), *inorancia asco* (3). Salbuespena *achahui au* (1) dugu. Prediku honetako esaldi osoa *Orotariko Euskal Hiztegia*-n jaso da dugu eta hitzaren sarreran honela dio: “La forma más usual en la tradición vizcaína es de todas formas *atxakia*. En alto-navarro sólo la hemos encontrado en Lizarraga, en la forma *atxeki* (v. tbn. *LE Doc* voc.), y en un texto de Fuenterrabía”. Testua, aztertzeko ari garen hau dugu, noski.

Predikuan *-a + a* elkartea oso gutxitan dugu eta zenbaitetan ez dakigu segur mugatua ala mugagabea den. *Esperanza*, adibidez, zerrenda koordinatu batean mugatuztat hartu dezakegu aurreko hitzaren arabera, *biartu lau gausa*, *señ didaren fedea*, *esperanza*, *caridadia*, *eta obra onac* (2), baina antzeko beste batean mugagabetzat: *fede esperanza eta Caridadesco actuaquiñ* (4). *Ordena* bietara har liteke hurrengo koordinazio honetan: *here [bere] ordena eta obligacioa* (1). *Dotrina confirmaseco* (6) mugatua dugu segur aski. Gainerakoak *ia*-z bukatuak ditugu eta maileguak dira: *adoraciua eta reuerencia* (5), *hiprocesia [sic] eta embusteria* (5), *O gure miseria!* (6) eta *Ceruco gloria* (12). Azken hauetan, gaurko egunean, *-iya* izango genuke maizenik: *embusteriya*, *miseriya*, e.a., baina sermoi guztian ez dago inoiz *-y*- epentesirik.

### e + a > ia

Hondarribian *e + a > ia* jaso zuen Bonapartek, *semia*, eta, Irun eta Oiartzunen, berdin jaso zuen honela zioen: “C’est ainsi que *seme*, *begi*, *otso*, donnent lieu à *semia*, à *begiya* et à *otsúa* partout”. *Partout* hori hiru herrioi dagokie, aurretik Arano eta Goizuetako joerak berexi baitizkigu, lehenengoan bigarreanean baino disimilatzeko joera handiagoa dela esanez: “Il paraît donc que la permutation de *e* et de *o* n’est qu’exceptionnelle à Goizueta, tandis qu’elle serait plus fréquente à Arano,” (1877a, 155 eta 153). Bähr-ek ere *luzia* bildu zuen *El*-n.

Holmerrengan (1964) ere honelako adibideak ditugu Hondarribiko testuetan: *betía* (A,4,F6,7), *fráilia* (A,7,F12), *kostúmbria* (A,7,F12), *atía* (A,7,F12), *emákumia* (A,7,F12); *béstiak* (A,4,F6,7; A,6,F12), *neskámíak* (A,7,F12), *usókomíak* (A,7,F12), *gosíak* (A,7,F12); *izénian* (A,1c,F8), *egúnian* (A,4,F6,7; A,6,F12), *átzian* (A,5,F6,7), *bátian* (A,6,F12), *atían* (A,1c,F8; A,7,F12), *tàrtian* (A,6,F12), *komédorian* (A,7,F12), *fantzenian* (A,7,F12); *semíari* (A,1c,F8), *neskámíari* (A,7,F12), *fráiliari* (A,7,F12). Eta bokal armonizazio berriaz, beste hauek ere ematen dizkigu: *birien* (A,6,F12) eta *gábien* (A,4,F6,7).

Bordariren hitzaldian (1981) maiz aurkitzen dugu disimilazio hau *e-z* bukaturiko lexemetan eta kontsonantez bukatuen inesibo singularrean, batez ere: *gurúzia* (298), *jéndia* (297), *obia*, *h* gabe eman zigun jatorrizko izkribuan (301), *tórria* (298), *guría* (297), *ordía* (296), *txokolátia* (302), *biríak* (298), *abántian* (302), *ártian* (295, 295, 297, 297, 301), *bitártian* (295, 299), *erárian* (edadean) (303), *difánian* (doanean) (296), *kanpanttórrian* (296), *betíak* (303), *birían* (298, 299), *etxían* (300), *urtían* (297), *kuskúsian* (302), *bátian* (301), *mutúrrian* (298), *puntálian* (296), e.a.

Hondarribian *bear* monoptongatzeko joera handia dago eta hortik *bar* (eta *hjar*) sor daiteke, Bordarik dakarren bezala, *iñ bar dizut* (302), edo *ber* (eta *hjer*) Holmerrek jasoaren arabera: *imberduzu berriz eraman* (12,A, 2), *imberdugu kumplitu* (12,A, 2). Sermoian ere aurkituko dugu horrelako bat: *jarriver direnian* (5).

Bonapartek Euskal Herrian zehar jaso zuenez (1868), *ea > ia*, Bizkaiko kostaldean Mundakako itsas adarrean Bermeotik Muruetara dugu behintzat (Elantxobetik Ondarroara ez du deus esaten), Bizkaiko ekialdean (Markina, Elorrio, Durango), Gipuzkoako bizkaieran, gipuzkeraren iparraldean, Azpeitia (Azkoitian, *-ie*), Hernani eta Tolosako bariatateetan. Baita Gipuzkoako goinafarreraz: Irun, Hondarribia, Oiartzun, Lezo. *Phonologie*-n, Aranon eta Goizuetan *ea* eta *ia* dakartza bientzat, baina *Observations*-en (152, 153) esaten digunez, Aranon disimilaziorako joera badago ere, Goizuetan salbuespena da. Nafarroan, Bortzirietatik hasita hegoaldera jaisten da, Lizaso gehiena hartuz. Burundan ere *ia* dugu. Lapurteraz, itsasaldean eta Saran, *ia* dugu, ez ordea, Urdazubi, Zugarramurdin eta Ainhoan (Baztanen bezala *ea* egiten baitute), orobat *ia* dugu behenafarreraz (Beskoitze, Uztaritze, Baigorri, Bardoze, Arberua, Garazi eta Amikuzen) eta zubereraz. Erronkarin ere *ia*, baina Aezkoa eta Zaraitzun *ea*.

Platikan 80 bat *ea* bildu ditugu, salbuespen gutxiz, *ia* bihurturik (%87). Hiru multzotan sailkatu ditugu.

a) Lehen sailean *-e-z* bukaturiko lexemak ditugu, 33 aldiz: *artian* (7, 10, 10, 11), *aurrian* (5), *Pricipiaren* [Principerean] (8, 9), *bestiaren* (10), *bestiac* (8), *bidebaguiac* (2), *caridadia* (2), *chismiac* (11), *confesoriari* (12), *criadoria* (4), *enfermedadiac* (11), *eriozian* (2), *expecialidariarequin* (5), *gendiac* (8), *guendiaz* (5), *humildadiarequiñ* (5), *legia* (3), *naigabiac* (11), *pecadoriarequiñ* (7), *podoriarequiñ* (8), *sacerdotiaqui* (2), *Salomonen jaquiundia* (10), *Señaliac* (8), *vanidadia* (6), *virtutiarequin* (11, 12), *virtutiarequiñ* (11), *virtutiarequin* (8), *virtutiaren* (9). Hala ere, ondoko 6 hauetan, ez da disimilaziorik gertatu: *fedeac* (2), *seméac* (11), *semeac* (11), *virtutearequiñ* (11), *virtutearequiñ* (11), *virtuteac* (4). Sail berean 9 aditz izen ere sartu ditugu: *abajacia* (9), *adiziagatic* (10), *adorazia* (5), *geldizia* (9), *izatia* (1), *onrrazia* (4), *predicazia*

(1), *guencia* (12), *quenzia* (7). Eta hauetan 3 ditugu disimilatu gabe: *amazea* (3), *ematea* (4, 5).

b) Bigarren sailean kontsonantez bukaturikoak ditugu, inesibo singulararren morfema daramatela. 7 aldiz: *bacochian* (3), *batian* (10, 10), *gañian* (3), *mingañian* (1), *minganian* (1), *ónian* (1), baina, *gañean* (9). *-(e)n* daramaten hamar aditz forma jokatuak ere hemen sartzen ditugu: *botatu zubenian* (7), *Aguindu cionian* (1), *amazen denian* (6), *ezaten diotenganian* (5), *moteltasuna dudanian* (1), *adizera ematen dugunian* (4), *ereguiñ niñ hubenian* [niñubenián] (1), *jarriver direnienian* (5), *juntazen garenian* (4), *ecuzi zutenian* (8).

c) Azkenean lexema barruko disimilazioak ditugu, *bear* eta *deabru*-rekin bakarrik aurkituak, 11 guztira: *biardiren* (2,3), *biarrac* (1), *bota biar* (12), *conuencitu biar* (12), *eguin biar* (6), *jaquin biar* (3), *Juan viar* (5), *lajatu biar* (5), baina *jarriver* (5), *biartu* (2), *diaurrarenaquin* (8).

Beraz, gehien-gehienetan disimilazioa dugu, Bonapartek jaso zuen bezala eta gaurko egunean ere ebakitzen den bezalaxe.

#### **o + a > ua**

Bonapartek Hondarribia, Irun eta Oiartzunen *ua* armonizazioa jaso zuen, *otsúa* (Irunen, *otsuá*), eta horrelaxe entzuten da gaur egun ere. Goizuetan, berriz, *oa* dugula esaten digu. Aranon *otsua*, *ardua*, *juan* eta *artua* (Hondarribian bezala), baina Goizuetan *otsoa*, *mandoa*, *usoa*, *osoa*, *yoan* eta *artoa* (1877, 152).

Holmerrek bere aldetik ere honelakoak jaso zituen Hondarribian: *urtékua* (A,4,F6,7), *nóbiyua* (A,4,F6,7), *gogúa* (A,7,F12), *gaisúa* (A,7,F12); *gizájua* (A,7,F12), *déndakuak* (A,5,F6,7), *zeguan* (A,7,F12), *zijuán* (A,7,F12), *juam-beartzute* (A,1c,F8) eta ondoren, monoptongatuz: *jun* (A,6,F12).

Bordariren hitzaldian adibide hauek bildu ditugu: *gogúa* (299), *zolúa* (zuloa) (303), *astúa* (302), *auñázua* (302), *Birásua* (296), *áyua* (302), *lítua* (299), *astronómua* (297), *kastillánua* (301), *monagíllua* (300), *bisabuélua* (298), *oponíyua* (opinioa) (296), *itxásuak* (303), *tanborréruak* (299), *errománuak* (296), *kaputxínuak* (299), *alajáinkua* (299), *arrítzekua* (296), *ókenekua* (301), *gerókua* (296), *izénekua* (297), *masállekua* (300), *oáñgua* (oraingoa) (297), *mórukuak* (298), *óyetakuak* (301), *púnta-púntakuak* (297), *bestélakuan* (301), *xéntimuan* (299), *erréxagua* (296), *garbíyaguak* (296), *juaz* (300), *sagárduarenak* (299), *kasínu ártan* (297), e.a.

Aipatu berri ditugun *juan* eta *jun*-ez gainera, *joan*-en beste bilakaera bat, ezaguna hainbat tokitan elkarrengandik urrun badaude ere (Elgeta, Unanua, Bakaiku, Inbuluzketa, Oroz-Betelu, Aezkoa eta Zaraitzun; ikus Echaide 1989, 250. eta 295. galderak), *joan* > *juan* > *jwan* > *fan* dugu. Hondarribian, Holmerrek jaso zuen, *fantzen apáizana* (F5, A, 1c) *fantzenian* (F12, A, 7), *fántzirán* (F12, A, 6), *fánitzen* (F6, B, 11), *fángo nítzela* (F12, A, 6), *negúa*

*fánda* (F6, C, 2), eta Bordariren hitzaldian ere agertzen da: *fákiyaz* (301), *difánian* (296), *fantzen* (301), *fángo* (295, 300), *fáz* (298, 301), *fázte* (301). Era berean *Joakin Fakin* esanda entzun daiteke Hondarribian. Satrustegik dioenez Sakanako hizkera duen Aralarko sermoi batean ere *fatias bere veguis desengañatzera* irakurtzen dugu (Satrustegi 1987, 190).

*oa* > *ua* disimilazioaren eremuak, Bonaparterengan, *ea* > *ia*-renak dira gutxi-gora-behera, maizago dugula, halere, *oa ea* baino. *ea* dagoen toki guztietan *oa* dugu, baina alderantziz ez da horrela gertatzen. Gernika, Zornotza, Urbina eta Lukon *ie* genuelarik, *oa* esaten digu Bonapartek; Mungian, Murgian, Laudion, Arrankudiagan eta Durangon, *ia* genuelarik, *oa* dakar ere. Orozko eta Baranbion, *ea*, baina *oba*. Nafarroan, Uharte-Arakilen, *ie* baina *ua*. Beraz, *ua*, Bizkaiko kostaldean dugu (Bermeotik Muruetara, bederen), Ekialdean Markinan eta Elorrión, Gipuzkoako bizkaieraz; Gipuzkoan Azpeitiko, Hernaniko eta Tolosako barietateetan; Gipuzkoako goi nafarreraz (Hondarribia, Irun, Oiartzun, Arano); Nafarroan Bortzirietatik Hegoalderantz (Berako barietatea, Lizasoko ekialdea eta Uharte-Arakil, Etxarri-Aranatz eta Burundan), baina Intzako barietatean *oa*; lapurteraz ere *ua* (baina Zugarramurdi, Urdazubi eta Ainhoan *oa*, Baztanen bezala); behe nafarreraz ere *ua* (Uztaritze, Beskoitze, Urketa, Baigorri, Arberua eta Garazin), baina Zuberoatik hurbil *ua* eta *ia* (Domintxine, Ithorrotze eta Olhaibin). Zuberoan *úa*, *u~a* eta *ía*. Erronkarin ere *ua*, baina Aezkoa eta Zaraitzun *oa*.

Predikuan, zalantzaren bat eduki dezakegu zenbaitetan lexemak bucran *-u* ala *-o* daraman ez baitakigu, nahiz eta batzuetan testuan bertan agertzen zaigun lexema soila bere horretan: *Vi adorazio otatic* (5), *Aimbeste amorio* (6), *demonio basuec* (10), *odio* (7) eta *milagro ándiac* (9).

Hemen ere 58 aldiz gertatzen da disimilazioa (% 86.6): *adoraciua* (5), *adoraziua* (5), *adulaciuc* (11), *amoriuc* (5, 5), *Demoniua* (7), *demoniua* (7), *Demoniuc* (8, 11, 11, 11, 11, 12), *demoniuc* (7, 8), *Demoniuguén* (8, 9), *Euangeliuc* (12), *Evangelium* (6), *Imperiua* (10), *Juan viar du* (5), *Juizuan* (9), *lendabisicua* (4), *milagruac* (9), *naciocuc* (11), *odiuc* (11), *oraciua* (6), *predicasiuareguiñ* (10), *projimua* (8), *proposituarequin* (7). *Jaincoicua* (*Jangoicua* eta *Jaungoicua*) hitza 31 aldiz aipatzen da eta lexema soila dugu batean izan ezik, *Jaincoico on bati* (6), disimilaturik dugu denetan: *Jangoicuc* (1); *Jaincoicua* (3, 4, 4, 4, 4, 5, 5), *Jaincoicuc* (3, 4, 5, 6), *Jaincoicuari* (4, 4, 5, 5), *Jaincoicua*ren (3, 5, 6, 10, 10, 12), *Jaincoicua*ren *quiñ* (6); *Jaungoicua* (1), *Jaungoicuc* (1, 1, 2), *Jaungoicua*ren (1, 2, 3).

*oa* bere horretan, 9 aldiz dugu (% 13.4): *bendicioac* (2), *Ebreoac* (9), *Hebreoac* (11), *francoagoric* (2), *geiagocoac* (2), *gozoagoac* (2), *ónelacoa* (1), *obligacioa* (1), *predicacioarequin* (9).

Disimilazio hau ere bizi-bizirik dago gaurko egunean, eta egungo hondarribieraren ezaugarri gisa gogoratu behar dugu bukaerako *-u /-o* alternantzia

beste euskalkietan baino *-o* gehiago dagoela bukaeran oso arruntak direla honelakoak: *ordobátak* (ordu batak), *libro bat* (liburu bat), *zoló bat* (zulo bat), *katillo bat*, *kató bat*, *kapélo bat*, *minúto bat*, *itxó bat* (itsu bat), *bi díro* (bi diru, bi txanpon), *letxó bat* (letxuga bat), *oláto bat*, *sóño aundíya*, *palláko bat* (palaku bat), *domisteko bat*, e.a. baina, normalean, *órdua*, *líbrua*, *zolúa*, *katíllua*, *katúa*, *kapélua*, *minútua*, *itxúa*, *dírua*, *letxúa*, *olátua*, *sóñua*, *pallákua* e.a. ebakitzen direla.

Beraz, predikuaren datuak bat datoz egungo jardunarekin eta duela mende bat Bonapartek bildu zuenarekin.

## b) -b- epentesia

Bonapartek dioenez epentesis hau Irunen gertatzen da, ez, ordea, Hondarribian (kritika gogorra egiten dio hau dela eta, Vinsoni San Mateoren pasartearen Irungo itzulpenean jasotzen ez direlako). Predikuan, berriz, badaude, forma gramatikaletan batez ere (aditz laguntzailea eta izenordainetan): *duben* (5 aldiz), *zuben* (4), *zituben*, *niñubengan*, *zubec*, *zuben* eta *bazubequiñ*. Izenetan, berriz, salbuespentzat har dezakegun agerpen bakarra dugu, *zuba* (sua), gainerako guztietan *ua* baitakar (*buruac*, *ceruan*, *Maizua*, *munduac*, *mutua*, *pecatuac*, *santua*, e.a.).

*au* diptongoaren kontsonantizazioa ere behin agertzen da, *abrera* (aurre-ra) hitzaz: *abrera procuradezagun mututazun au guencia* (12) gaurko egunean, normalean behintzat, *áurrera* entzuten delarik, baina Holmerrek Errenterian *a`br`eti`k* jaso zuen: *abretik ondo itz éin ta átzetikan saldu* (Holmer 1964, 153)<sup>1</sup>. Mendiburuk ere badu horrelakorik: *emendik abrera* (1904, 120), eta Lizarraga Elkanokoak ere bai: *Alzinatuago, abrerago* (Urt 373), dena den 1846ko argitalpena asko aldatu zuen Iturriagak eta gogoan hartu behar da Ondarraren oharra. Joera fonetiko bera aurkitzen dugu itsasaldeko lapurteraz (*h*)*aurride* > *abride* kontsonantizazioaz. Argaingaratzek *Abride edo urkho dakar* (1910, 166), Haranederrek *bertce bi abride* (Mat., IV, 21), eta Mihurak *Jesusen abrideak* (270). Gogora ere BN eta Z-ko *ebri* 'euri'.

Epentesiaz, beraz, ez datoz bat XVIII. mendeko prediku honen datuak eta Bonapartek handik ehun urtera jasotakoekin, dena den Bonapartek bokal armoniaz aipatua *ua* > *uba* epentesia da, ez *ue* > *ube*.

Hala ere, baliteke XVIII. mendean epentesia gertatzea Hondarribian, inguruetan normala baitzen, itsas aldeko lapurteraz, Mendebaleko goi nafarretaz eta Iparraldeko gipuzkeraz, baita Markina eta Otxandio aldean ere. Honen berri emateko hainbat adibide eskaini daiteke.

1. Honela dio Holmerrek: "En ciertos dialectos parece haberse transformado el diptongo *au* en *ab* ante una *r*'o *r*. Comp. aurretik *a`br`eti`k* (R1, "primero", adv.; por *aur`e`tik*), gaur *gab(r')* (R1; "hoy"), jauregi *xabr`egi* (R3; "palacio")" (Holmer 1964, 36).

Lapurteraz, *b* epentesia, *Nabigacioneco*-an (1677) ikusten dugu, Urruñako udaletik Hondarribira bidalitako gutunetan eta Donibanetik (1788) Bera-ra bidalitakoetan. *El*-k ere *eskuba* emango digu Donibanen. Itsasaldeko autore kultoek kontsonantizazioa erabiltzen dute, ez, ordea, epentesia. Argaignaratzen *Breviarioa*-n (1665), adibidez, *arabaz* (arauaz, *Deb.* 1), *gabaz* (1, 148), *garabez* (198)<sup>2</sup>, *ceben* (zeuen, 121), *cebei* (232), e.a. ditugu. Haranederrek ere *cebonec*, *cehoc*, *ceben*, e.a. Honek, hala ere, ez du esan nahi hizketan epentesirik ez zegoenik. Pierre d'Urtek hiztegian *basium*-en ordain gisa, *mussuä* dakarrelarik, honela dio ondoren: “*dic mussuba*” (III, f.275).

Bortzirietan ere bazen. XVII.ean Etxalarren Elizaldetarren gutunetan dugu (Mitxelena 1964c, 75-86), eta Sanzberroren testuan ere bai (1749; Satrustegi 1987, 78). XIX. mendean, Berako ordenantzetan (*FLV* 37, 275-281). Berako euskaraz Bonapartek eragindako *Canticum*-en lau itzulpen daude eta, aldeak alde, lauetan ditugu epentesiak eta kontsonantizazioa: *zazube*, *Aingerubak*, *Zerubak*, *Suba*, *Gabak*, *Espiritubak*, *yustuben*, *Santubak*, e.a. Laugarrenean, “Corrigée par le P. Fidèle, capucin” (57-1, 2C6 mkf.), ohar jakingarri bat egiten zaigularik: “Le peuple prononce toujours *zube* mais les predicateurs en chaire disent *zazube*”. Muruzabalgo paperen artean, Langarikarenean agertzen da (17...; Satrustegi 1987, 140). Honen berezitasuna diptongoaren ondoko epentesia dugu: *aubec*, *auben*, *aubetan*, *aubequin*, *gaubes*, e.a. Eta ezaugarri bera dugu Aralarko predikuan (1833; Satrustegi 1987, 186) eta Lakuntzako dotrinan (1838; Satrustegi 1987, 229). Aralarkoan, gainera, sandhietako epentesiak ditugu: *Santubau*, *ispiritubau*, *jaquinsubonen*, *escubonequi*, e.a. Harrigarriagoak dira Echeverrirek Zugarramurdiko izkribuan (1875; Satrustegi 1987, 291) utzi dizkigunak *oa* > *uba* bihurturik: *Elizacubac*, *Jangoicuba*, *S. Francisco Salecubac*, *buratsuba*, *ondoriyuba*, *Ysraelgo Pueblubac*, e.a.

Gipuzkoako goi nafarreraz “El sermón del mandato” izenekoan dugu (1761; Satrustegi 1987, 116). Bertan diptongoaren kontsonantizazioa aurkitzen dugu (*abec*, *Cristabac*) eta epentesia (*duben*, *dituben*, *zube*, *zuben*, *munduban*, e.a.). Orobat Azcúeren Irungo bi sermoietan (1783?; Ondarra 1987), Irun-Hendaiakoetan (1931-31; Ondarra 1990) eta Irunen ere 1854.ekoan (Satrustegi 1987, 240). Baita Bonapartek eragindako *Canticum*-en Irungo itzulpenean ere: *zerubaken gañian*, *justubaken animak*, e.a.

2. *Garabez* hori *garau* + *z* dugu. Ikus Azkueren hiztegian *garaba*. Etxeberri Ziburukoak *lausengu garabez* dakar (1669,18). Gasteluçarrek *Garabik trublatu* (1983, 68), *plazer garabik* (160). *Garabik eztuk gutitzen* (176). P. d'Urteren hiztegian ere *Ezta gorphûtçeco parte garabic* dugu ‘*nulla pars corporis*’ (Urkizu 1989, I, 396), *garabi*-rekin nahasiz ‘f. grue. g. grúa’ itzul-tzen bazaigu ere (I, 233). *El*-ko 42. galderan (*garau* + *ik*): *garabik* (Sara), *gabik* (Ituren, Zubieta), *gaubik* (Betelu, Lekunberri, Bakaiku, Lakuntza).



Gipuzkoan, adibide ezagun ugari aurkituko dugu XIX. mendeko bertsolarietan, Bilintx, Xenpelar, eta Pello Errotarengan, adibidez, eta nahi adina J. Kruz Zapiirain erreteriarren Santa Jenobebaren bizitzan. Adierazgarria dugu Bilintxen bertso batzuetan datorren oharra: “*Debecatuba dago, canta obec, iñorc moldeco letraquiñ paperian ezarrizia, beren zortzalliaren baimena bague, bara onenchen bere beriac dirare, eta ontan faltatzen dubenac izango du leguiac aguintzen duben castiguba* (Zavala 1978, 180, 186, 238). Bilintxen puntu sorta batean ere *gaba, gabiraba, ballaba, billaba, cristaba, sancristaba* eta *cacaba* datoz beste eskuizkribu batean (*Ibid.*, 282). Diogun bidenabar fonetismo hauek maiz ugariagoak direla bertsolarien eskuizkribu jatorretan inprentazko bertsopaper “orraztuetan” baino. Donostiako antzerki lanetan gogora, besteak beste, M. Soroaren *¡Au ostatuba!* eta *¡Abek istillubak!* tituluak. Gipuzkoan barrena XVIII mendean baditugu honelakoak Azkoitiko *El borracho burlado*-n (1764). Bonapartek, eskualdeagatik harrigarria bada ere, *Canticum*-en *Dial. Guipuscoana Goyerriensi* delako itzulpenean ere jaso zituen honelako fonetismoak (1991-I, 45-59). Ez, ordea, *Dial. Guipuscoana centrali* (1991-I, 69-83) eta *Dial. Guipuscoana litterali* (1991-I, 69-83) direlakoetan.

Mende berean Markinako idazleengana hurbil gaitzke Mogelen (1745-1804) eta Frai Bartolomenen (1768-1835) epentesiak gogoratzeko, hauetan ere, Nafarroako batzuetan aipatu dugun bezala, diptongoaren ondoko epentesia dugularik (*cristiñauba, zamauba, enparauba*, e.a.). Epentesis eta kontsonantizazioa dugu *Canticum*-en *Biscaina Marquinensi* (1991-I, 23-35) eta *Biscaina litterali Marquinensi* (1991-I, 44-58, 69-83) itzulpenetan: *egizube, Gabak, Oñaztubak, murubak*, e.a. Epentesia Otxandioko itzulpenean ere, *Berenkatu eisube, Angerubek, Serubek, Sube, Oñestubek*, e.a.; ez, ordea, diptongoaren bigarren elementuaren kontsonantizazioa, *gaubek*, alegia, ez *gabek*, eta *ganaubek*, baina *Jaune serbiuten dauenak* (ez *daubenak*) (1991-I, 45-59, 68-82). Ez dugu epentesirik *Biscaina litterali potius centrali* (1991-I, 44-58) eta *Biscaina generalis* (1991-I, 68-82) direlakoetan.

Arazoa behar bezala aztertzeko ongi berezi behar dira, beraz, batetik diptongoaren erdibokalaren kontsonantizazioa eta, bestetik, *u*-ren ondoko epentesia. Lehenaren arabera *kristaba, gaba, labak, abek* eta *Paben* aurkitzen dugu, eta bigarrenaz *kristauba, gauba, laubak, aubek, Pauben, zubek* edo *buruba* aurkituko ditugu. *El*-k ere bi eratako galderak prestatu zituen fenomeno biak jasotzeko. Gertatuz gero, epentesia ugariagoa da, noski, diptongoa oso gutxitan dugulako. Lapurdiko kostan, Bortzirietan, eta Gipuzkoako ipar-ekialdean biak gerta daitezke batean (*kristaba, giristino* edo *kristio* ez denean, eta *mundaba*, alegia).

Gaurko egunean epentesiak aurreko mendeetan baino hedadura mugatua goa duke, gaitzesten zuen idaztarauen eraginez segur aski, kontsonantizazioaren klitxe lexikalizatuak, berriz, bere horretan irauten dute. *eu-* > *eb-* aldaketa

Euskal Herri osoan gertatzen da. Horrela ditugu gipuzkeraz *elbi* (< *euli*) eta *ebi* (< *auri*), zubereraz ere *ébi* (Larrasquet, FHV 4.7c), *ebia eraits ahala*, *ebiñi*, *ebi txarraka* (Casenave-Harigile, *Hizt.*), *ebri* (Azkue, BN, S), baina epentesiaz ere *eubri*. Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Zaraitzun (*h*)*eben* (< \*-*au-en*, FHV, 9.8), *keben* erronk., *geben* aezk., (*h*)*emen* bihurtuko dena. Goinafarreraz *ebec* erakusle plurala, Lizarragak eta erabilia. Mendebalean ere Txorierriko *eberdi* (< e(g)werdi). *au-* > *ab-* aldaketaz, *aba* (*ahoa*) dakar Azkuek erronkarieraz, Hondarribian bezala; *gabon*, berriz, nonnahikoa dugu.

Hondarribian gaurko hizkeran kontsonantizazioa bai baina epentesirik ez dela gertatzen uste dugu, predikuan bestela ikusiko dugun arren. Hondarribian, hitz arruntak ditugu *lábak* (EI, 40. galdera), *bakallába*, *kristába*, *ixau-txába*, *sankristába*, *billába*, *gába*, *ába*, e.a. Azkuek *pau* baina *paba* jaso zuen Hondarribian hiztegiaren dakarrenez: “Paba da sarearen kortxoari lotzen zaion egur luze bat, arraiaren pisua jasotzekoa; zenbaitan bi *pau* jartzen dira”. Arrunta den *dabéneko* ere *da(g)oeneko*-tik (> *daweneko*) sortua dugu, segurki. Zenbaitetan hitz mugatua lexema bihur daiteke eta horrelaxe jokatu: *gábaro* (EI, 41), *lábatan*, *ábatik*, e.a. Hiatoa dagoenean, berriz, joera handiagoa ikusten dugu goranzko diptongoaren alde epentesiaren alde baino: *sántzwen* (esan zuen) eta *bátzwek* normalagoak dira gaur egun, gure ustez, *zuben* edo *batzube* baino, azkenekorik ez baitugu jaso baina besteetatik ugari. Egia da Holmerrek Mendianborda baserrian jaso zituela horrelakoak (*órduban*, *muratuba*, *naiduben*, e.a.) baina, hain zuzen, bertako amona, María Zamora Olazabal, Irungoa zen, honetan ere Bonapartek zioena egiaztatuz. Eta Holmerri horrelakoak eskaini zizkion beste lekukoa, Joakin Lizaso “Ontoria”, Aizarnakoa omen zen, jakin dugunez. Bordarik ere bere hitzaldian kontsonantizazioa dakar, baina ez epentesirik: *ítzakin ere ába bustítzen dugú* (301), *aba xabalik* (299), *irundárren ábotan* (296), *dabéneko* (303), *neré átta Parrókiko Sankristaba* (300), e.a. baina beti, *nuen* (299), *nittuen* (299) *zuen* (297, 301), *zuén* (298), *zun* (299), *zittuen* (299), *duénak* (303), *zuék* (295), *bátzuek* (297, 303), *bátzuen* (297), *kóntua* (299), *kútsua* (297), *txétua* (298), *órduan* (297, 299), e.a.

### c) ia > iya

Epentesiez ari garelarik harrigarria da *u* duten hiatoetan ezpainkaria ezartzen duen bezala *i* dutenetan yod sapaikaria ez tartekatzea Hondarribiko mintzairan bestea baino askoz erabiliagoa izaki. Hona hemen adibide batzuk Bordariren hitzaldian bilduak gaurko joeraren adierazgarri: *iyá iyá* (301), *Ondarrabíya* (297), *Donostíya* (297), *íngriya* (302), *erríya* (296) *aundíya* (301), *ttikiya* (299), *berríya* (299), *ugáriya* (297), *izugárriya* (296), *eskrapóiyak* (301), *ateráldiyak* (299), *belárriyak* (296), *bizíyak* (299), *guzíyak* (299, 299), *asíyak* (298), *dantzáriyak* (297), *bertsoláriyak* (297), *garbíyaguak* (297), *ókiyago* (hobekiago) (302), *aldíyan aldíko* (301), *tókiyan* (296, 297),

*erdíyan* (297), *nagúsiyan* (297), e.a. (baina *bigár* (302), eta *bigarko* (303)). Bonapartek ere *illargíya* jaso zuen (egun *illárgiya*). Platikan, berriz, maiztasun gehienekoak baizik ez aipatzearren honelakoak aurkitzen ditugu: *andia(c)* (2), *chiquiac* (8, 9), *egusquia* (9), *familia* (10, 11, 11), *gucia(c)* (1, 2, 3), *gustia(c)* (7, 10, 10, 10, 11), *miseria(c)* (6, 11), *Nagusia* (4), *arrazoia* (4), *Beguiac* (2), e.a., beste horrenbeste bildu genezakeelarik.

#### **d) -g- epentesia.**

Bitxia gertatzen da, bestalde, sermoian zazpi aldiz datorren *g* belarearen epentesia zehar osagarria duten laguntzaile iragangaitzetan: *zaigolaric* (4), *zaigon* (4), *saigona* (4), *zaigona* (5, 5, 5), *ezizaiguela* 'ez zitzauela' (9) baina *zizaion* (1). Iragankorretan, ordea, ez da honelakorik agertzen: *dioguna* (4), *diogunac* (4), *diotengan* (5), *die* (11), *diet* (2), *niola* (1), *cionian* (1), *ezion* (1), *cioten* (8, 9), *ziotenaqui* (6), *zition* (7), *ciotosten* (8), *zien* (9, 10, 10), *ziten* (2).

Gipuzkoako beste testu batzuetan honelakoak aipatzen dizkigute Oregik (1972, 358), Satrustegik (1987, 33), Irigoyenek (1987, 20), Sarasolak (1983, 77) eta Lakarrak (1985, 251) bederen, *Bretainako kantana* (1491-1510?) (*digoe* 'diote'), Azkoitiko gutunean (1596) (*digot*, 'diot'), Ochoa de Arinen *Doctrina*-n (1713) (*digo*, *zigon*, e.a.) eta Larramendirena omen dugun Azkoitiko sermoian (*digo*, *digot*, *digodala*, *cigon*, *ezpacigoen*, e.a.). Denetan, epentesis gabeko formak normalagoak badira ere.

Hondarribiko predikuaren berezitasuna paradigmari dagokio. Hondarribian *nor-nori* formetan bakarrik agertzen baita, besteetan, berriz, *nor-nori-nork* formetan edo *esan*-en trinkoari dagozkionetan.

Horra, bada, XVI. eta XVIII. mendeetan gertatu eta XIX. menderako galdua zegoen joera fonetiko baten testigantza jakingarriak.

### **3.1.3. Kontsonanteak**

#### **3.1.3.1. Txistukariak**

Txistukarien neutralizazioa, bizkarraurrekoak eta apikariak nahasiz, Mikoletaren garaietarako (1653) gertatua zen Bizkaiko mendebalean eta XVIII. mendean Gipuzkoan barrena zabaldu omen zen (Mitxelena 1977, 282; 1985, 283). Ondorioz sei fonematako egitura laukora murrizten zaigu. Prediku honetan ageri denez XVIII. mendearen bukaerako Hondarribian ere gertatzen zen nahasteka eta seguraski inguruko itsasaldean finkatu da fenomenoaren muga.

#### **Afrikatuak**

Afrikatu apikaria /ç/ izan behar lukeena hiru aldiz baizik ez da agertzen, bizkarraurrekoaren grafia beraz emana, z-z: *erecuzi* (6), *lozas* (7) eta *Jaquinzun* (10). Beraz, ez dira bereizten. Gaurko egunean bezalaxe, *itzásua*, *lótza* eta *erakútzi* entzuten baita normalean Hondarribian. Bonapartek, guk dakigula, ez du afrikatuen arazoa aipatzen.

**Frikariak.**

Frikariak, *s/z*, ere nahasten dira predikuan, gaur egun bezalaxe, eta nahastea hau nolabait sailkatzen saiatu gara.

*t* aurretik *z > s* bihurtzen da: *batuste* (11), *situsten* (11), *tuste* (11), *citios-ten* (8), *zitusten* (9), *zistutela* (11). *Gucia* idazten du beti, adibidez, baina *gustia*. Berdin egiten du Lizarraga Elkanokoak *araci*-rekin: *adiaraci*, *adiaracizué*, baina *adiarásten* eta *adiarastecó*. Hondarribiko prediku guztian, batean izan ezik (*ezpada amazen*), ez dago inoiz *z*-rik kontsonante aurrean, *egusquia* eta *esguero* ere idazten baitu. Bonapartek berak ere ematen digu Hondarribiko joera honen berri, *dityuste* eta *aispa* adibideak aipatuz (1877a, 154), eta gauza bera gertatzen dela Donibane Lohizunen esaten digu (1991-I, 255). Bonaparteren ustea frogatzeko hainbat adibide bildu dugu XVII eta XVIII. mendeetako testuetan: Urruñatik Hondarribira bidalitako gutunetan, Donibanetik Bera-ra bidalietan, Gasteluçarrengan oso ugari, eta *Ixasoco Nabigacione*coa-n (1677). Fenomenoa, ordea, ez da inguru honetakoa bakarrik, Astarloak ere, adibidez, *gaste* eta *gusti* erabiltzen baititu.

Ez partikula Hondarribiko predikuan, askaturik idatziz gero *ez* dugu (2, 5, 8), baina batean *es* (7); loturik, *es-* (2, 2, 5, 5, 6, 8, 8, 12), baina *ezpada amazen* (6).

Morfema instrumentala ere *-s* idatzita dugu gehienetan predikuan: *guendiaz* (5), *naiagoz* (1), *neréz* (1) eta *dutenez* (7); baina *gustus* (1), *lozas* 'lotsaz' (7), *medios* (1, 6, 9), *dotrinas* (10), *ministrotas* (2), *modus* (10) eta *Caridadesco* (4). Honek ere badu kiderik Goi-Nafarroako idazleen artean, hainbatek adierazi duenez, Beryainengandik hasita, Joakin Lizarraga, Muruzabaleko predikuetan eta bestetan. Donibane inguruko lapurteraz ere agertzen da lehen aipatu ditugun testu beretan. Gasteluçar litzateke salbuespena, *-z* erabiltzen baitu.

Bestela ere, Hondarribiko predikuan *baisic(a)* (7, 8, 9, 10, 11, 12), *sempat* (6), *se(i)ñ-/sen-* (2, 3, 4, 7, 9, 10, 11, 11), *ser* (3, 3, 6) eta *serengatic* (4, 5, 9, 10, 11) partikulak beti *s*-ez idatziak datoz. Baita *gausa* (2, 2, 3, 3, 6, 11), *eguskia* (9), *laseriac* (11), *lendabiscua* (4), *(le)mixikua* egun arrunki, eta *sor* (4, 4) hitzak ere.

*/s/* fonema *s* grafemaz emana 116 aldiz gutxienez ikusten dugu platikan.

Ultrakorrekzioak ere badaude. "Esan", beti *ezan* dator (1, 2, 3, 3, 5, 5, 6, 7, 7, 7, 8, 8, 8, 10, 11)<sup>3</sup>; "ikusí" ere *ecuzi-* (6, 8, 12) edo *icuzi-* (8, 11), baina

3 Horren arrazoa hizketan dagoke, Hondarribian askotan *izan* [*es'an*] entzuten baita: *izan*, *izandu*, *izaten* formen ordez *esan*, *esandu*, *esaten*, e.a. Horren kontzientziak eragin du agian alderantzizko zuzenketa okerra. Hondarribian, bestalde, oso nabarmena da hitz hasierako *e-/i-* bokal alternantzia: *ibáki* 'ebaki', *ibátzi* 'ebatsi', *izautu* 'ezagutu', *ixtótu* 'estutu', *iziñ* 'ezin', *irúki* 'eduki', *ixía* 'etxea', *ixkúña* 'eskuina', e. a. *Izan > esan*-en kasuan alderantzizko aldaketa gense: *i- > e-*.

*ecusco* (9); era berean *Maizu-* (10, 12), *ózazunaren* (9) eta *zuba* (9). Hitz hau dela eta, Bordariren testigantza dugu ultzakorrekzioen lekuko:

Ese eta zéta ez díra beréxten géyegi. Zú átzetik sú, esáten zían neré ámak. Nik, hori apaiz bateri esan, Bidániko Don Luis Zufiriari, ta baietz, baietz, euskáراك ere ese [zeta?] bai zuela. Nik, ókiyago biárrez eta ustéz euskaldúnaguak zirelakoan, *zabéla*, *zúa*, *sartú* [sic], *zári*, ta *zagárra* eskribítzen hasi nitzén (1981. 302).

Predikuko hitz banaka batzuetan zalantza nabari da, bietara idatziak agertzen baitira: *zuben* [zuek + -en] (11), *zubén* (11) eta *zuequi* (1), baina *subec* (8, 11, 12); *predicazizaiela* (1) baina *gastarasi* (2); *predicacioareguiñ* (9) baina *predicasiuareguiñ* (10); *moteltasuna* (1) baina *mututazun* (12).

### 3.1.3.2 Bestelako berezitasunak

Kontsonantismoaren alorrean bada prediku honetan azterketan jarraitze-ko gairik. Hor gelditu da, besteak beste, *n/ñ*-ren bustidurarena zor zaion arretaz ikusteko. Dena den, kontsonantismotik atera gabe, ez genuke aipatu gabe utzi nahi gaitz pare bat.

Herskarietan, *k/g* belareen alternantzia dugu hainbatetan. Alde batetik, hitz hasieran, euskaraz ohi den neutralizazioa dugu batean: *quenzia* (7) eta *quenzen* (12), baina *guencia* (12). Philippe Andiaren heriotzeko kopletan (1666) *Turcoaren / Buru cruela guenzera!* dator; Mitxelenak dioenez nafartasunaren ezaugarri nabaria dugu berau (Mitx., 1964b, 137). Gaurko egunean ere *gendú* entzun daiteke Hondarribian. Sozietiboan *-quin* (-*quiñ*) eta *-guin* (-*guiñ*) formak ditugu. Gehienetan ahoskabeaz, 26 aldiz: *árequin* (4), *esperanzarequin* (2), *expecialidiarequin* (5), *ezanarequin* (1), *proposituarequin* (7), *predicatuarequin* (1), *virtutiarequin* (8); *actuaquiñ* (4), *bazubequiñ* (4), *eguiarequiñ* (6), *espirituarequiñ* (4, 4, 5, 5), *humildadiarequiñ* (5), *gorpusarequiñ* (4, 5), *espirituarequiñ* (4), *gustiarequiñ* (4), *Jaincoicuarenaquiñ* (6), *pecadoriarequiñ* (7), *podoriarequiñ* (8), *virtutearequiñ* (11, 11) eta *virtutiarequiñ* (11). Ahostunaz, berriz, 6 aldiz: *diaurrarenaguin* (8), *Belzeburenareguin* (12), *virtutiareguin* (11), *virtutiareguin* (12); *predicacioareguiñ* (9) eta *predicasiuareguiñ* (10). Genitibo pluralean ere *Demoniuaguen* (8, 9) dator, baina *personaquensat* (2).

Aski berezia dugu ere belare hauen alternantzia *Jainco* hitzean. Behin bakarrik agertzen da *Jangoico* formaz: *Jangoicuac* (1); 7 aldiz *Jaungoico*: *Jaungoicua* (1), *Jaungoicuac* (1, 1, 2), *Jaungoicuaren* (1, 2, 3); eta 23 aldiz *-nc-* idatzita: *Jaincoico* (6), *Jaincoicua* (3, 4, 4, 4, 4, 5, 5), *Jaincoicuac* (6, 4, 5, 3), *Jaincoicuari* (4, 4, 5, 5), *Jaincoicuaren* (10, 10, 12, 5, 6, 3), *Jaincoicuarenaquiñ* (6). Herskarien asimilazioa izan daiteke edota *Jainko* eta *Jaungoiko* aldaeren gurutzatzea.

*d/r* dela eta, predikuan, forma erabiliena *dire* izaki (5 aldiz, *dire-* 6) eta *dirade* behinere agertzen ez delarik, bi aldiz dugu *didare* metatesia: *biartu lau gausa*, *señ didaren fedea*, *esperanza*, *caridadia*, *eta obra onac* (2), eta *Munduco ámoriuac dominazen tuen gende aiec didare hipocritac*

*Jaincoicuaren aurrian jarriver direnian* (5). Joera arrunta, bestalde, Hondarribian, *pedióriku*a eta antzekoak entzun daitezkeelarik. Fonema bien nahasteka dugu sermoian *idequi* (2), normala euskalki askotan, eta *expeciali-dariarequin* (5) hitzetan ere. Hondarribian,  $r > d$  gertatzen da, *amaidu* 'hamairu', *edostera*, *eudíya*, e.a. eta  $d > r$  ere bai: *irúki* 'eduki', *irúri* 'iduri', *oríak* 'hodeiak', *erán* 'edan', *paréra* 'padera', *arítu* 'aditu', *motxokára*, *segara*, *erbiñúria*, *gobara* 'bogada', e.a. F. Artolaren hitzaldian honelakoak datoz: *bufára* (302), *biré* (302), *biríak* (298), *birían* (298, 299), *ero* (295, 295, 295, 299, 301), *erozeñ* (299), *estropáretan* (296), *komérierekin* (297), *lorí* (296), *soldáro* (296), *erárian* 'edadean' (303), *Birásua* (296), *mórukuak* (298), e.a.

Predikuko dardarkariekin jarraituz diogun hasierako *r*-ek bokal protetiko daramala batzuetan baina gehienetan ez. Lau aldiz dugu *erre-*: *errespetu* (4), *Erreguinarena* (9), *Erreguiña* (10), eta *erreinu* (10); behin *arra-*: *arrazoia* (4); eta zortzi *re-*, protesirik gabe: *respetua* (4), *reverencia* (4) eta *reuerencia* (5), *referizen* (7), *remedioric* (7), *responditu* (9, 10), eta *reprendiseco* (10).

### 3.2. Morfologia

Morfologiako testigantzak dira, gure iduriz, testuaren hondarribiartasuna, eta ondorioz, gipuzkera eta Iparraldeko goi nafarreraren arteko izaera, hobekien erakusten dutenak. Batez ere, datibo, genitibo eta destinatibo pluralako *-aki*, *-aken*, *-akentzat* kasu markak, eta aditzean bigarren pertsona pluralako *-zia* morfema. Bi ezaugarri horiek aski daitezke Hondarribiari lotzeko.

#### 3.2.1. Izenaren morfologia

##### 3.2.1.1. Deklinabidea

###### 3.2.1.1.1. Datibo eta genitibo pluralak: *-aki*, *-aken*

Bonapartek (1877a, 149) Irungo eta Hondarribiko hizkerak ezagutu nahi izateko arrazoi nagusia datibo eta genitibo pluralak izan omen ziren.

###### 3.2.1.1.1.1. *-aki*, *-aken* predikuan eta Bonaparteren aurreko beste zenbait testutan

Datiboan sei aldiz ageri da aipatu kasu-marka, eta gainera, egitura ezberdinetako izen sintagmetan: *Aguindu cionian Jangoicuac Moysesí predicazi zaiela Isrraelitaqui* (1); *sacerdotiaqui bidebaguiac eguiten zitien personatan* (2); *Aimbeste amorio Criaturaqui* (6); *vere Discipuluaqui eta gende seguizen ziotenaqui* (6); *burla eguiten zutenaqui* (2); *vere Discipuluaqui eta gende seguizen ziotenaqui* (6).

Genitibo, destinatibo eta motibatibo pluralei dagokienez, bederatzi adibide bildu ditugu. Horietarik hiruk dute *mug.* + *kasu marka* eskema: *Belzebu*

*Demoniuaguen Principiaren virtute eta podoriarequiñ* (8); *Belzebu Demoniuguen Pricipiaren virtutiaren medios* (9); *eta alaco personaquensat* (2). Genitiboaren adibideetan ez dugu horrelakorik: *gausa gustien gañian* (3); *non demonio basuec dauden bestien contra* (10); *zuben semeac* (11), *zuben naciocuac* (11), *zuben seme oriec* (11). Motibatiboari dagokionez, ez da genitiboan oinarrituriko forma: *emen iz eguiten du Apostuluacatic, señec ere botazen situsten Demoniuc* 11.

Hortaz, orohar, datiboaz kasu-marka mugatzaile pluralari erastea dela joera nagusia esan dezakegu, ez, ordea, genitiboaz; ditugun adibideek, behintzat, ez baitigute horretarako biderik eskaintzen.

Garai bertuko -XVIII. mendea eta Bonaparte bitarteko XIX.a- eta inguruko testuei begiratu bat emanez gero, ez dugu lekukotasun ugaririk. Aztertu testuetatik Irungo batean (1783) aurkitu dugu -*aki* datibo pluralaren adibide pareta, beste guztietan bestelako morfemak genituelarik. Genitiboari dagokionez, -*aken*-en aldaeratzat har dezakegun -*ekin*-en adibide zenbait izan ezik (Irun-Hendaia, 1831-1832), Bonapartek eta Vinsonek eragindako itzulpenak argitara bitartean ez dugu Salazarrenen moduko adibiderik. Ikus ditzagun, bada.

Sanzberro apaizak Etxalarko bataio liburuan idatzi otoiizetan (Satrustegi 1987, 78), ez dugu horrelako adibiderik, -*en* eta -*ei* baizik.

Irungo 1783.eko bi predikuetan (Ondarra 1987) bada Salazarrenen antzeko adibiderik. Ondarrak emandako adibideetan datibo pluralaren kasu-marka arrunta -*ei* da (*Anaiei* (1, 4, 2); *bezalacuei*, (1, 5, 2)), bitan bakarrik agertuko da -*aki* (*Juduaqui* (2, 11, 2); *Discipuluaqui*, (2, 12)), eta behin -*egi* (*duten egui*, (1, 2, 2)). Hortaz, Azcùeren erabilera ez dator bat Salazarrenarekin. Beste aldetik, genitiboaren adibideetan ez dago -*aken*-en etsenplurik. Arrunta -*en* egitea da (*Barbaroen ganaco* (1,1,5) edota geuk bildutako: *Christaben* (1, 3) (bitan) eta (2, 10); *obligacio gucien artean* (1, 3); *ceuren animen gaicen-zat* (1, 4); *erremedioen billa* (1, 5); *guztien escandalua* (2, 6); *adisquidien erreaguac* (2, 6); *Filisteoen contra* (2, 7); *umientzat* (2, 9); *Apostuluuen demboratik* (2, 9); *infielen artean*, (2, 11) ).

Irungo eta Hendaiako predikuak (1831-1832), datibo eta genitibo pluralei dagokienez ez datoz bat Salazarrekin: datiboa -*ei* da (*santubei* (1, 14, 3); *soldadubei* (H, 8, 2)), eta genitiboan -*en* da morfema nagusia (*humien*, 1, 15, 1), edota guk jasotako *zuben gloriyen manifestacera*, (...) *zuben familien*, eta *zuben Ichien titulu andiyen publicacera* (1, 1); *contrariyuen Exercittubaren contra* (1, 1); *Cristaben odolaz* (H, 1); *beccatariyen converticen* (H, 3) ). Hala ere, -*ekin* erabiltzen du: *crisabequin* (1, 10, 3); *burasuequinac* (1, 15, 1); *icigarriyequin* (H, 8, 2); *Gizonequinzat* (1, 4, 3); *naituztenequinzat* (1, 14, 1).

1854.eko Irungo sermoian (Satrustegi, 1987: 240), genitiboari dagokionez, -*en* bakarra da: *Asirioen* (240), *anayen* (240), *gucien* (242), *gurasoen*

(244), *ganaduen* (244), *jaquinzuensat* (240). Datiboari dagokionez, *-egui* epentesiduna ageri da (cf., Muruzabalgo 1751.eko bilduma eta Langarika (Satrustegi, 1987: 82 eta 140)), baina behin bakarrik: *angueruguei* (241). Beste hirutan *-ari* singularreko markaz ageri dira: *ondorengoari* (240), *semaeari* (242), *aurrecoari* (243).

1857.eko Lesakako sermoian (Satrustegi 1987, 247), genitiboa *-en* dugu: *izen guciyen gañecua* (248), *Santuben* (249), *Christaven* (249), *Turcuben*, *Yuduben edo Heregien artian*, *baiziq Christaven artian* (249), *humien artian* (251), *irriyen* (254), *gaisstuen desgraziya* (257), *berroqueyengatic* (258). Datiboa, *-ey*: *vere Apostulubey* (248), *Colosensiey* (249), *pecatuben illumbiey* (250), *gloriatzen direney* (250), *equin obrey* (251), *vi nagusiyey* (252), *devotuen* (252), *gauza santubey* (254), *verziey* (254), *Profeciyey* (254), *alferrey* (256).

Bonaparte Printzeak eragin *Canticum trium puerorum* delakoaren Irungo eta Berako bertsioen eskuizkribuetan (Arana Martija-González Echegaray: 1989, 38) ere badugu aztarrenik. Irungo bertsioan ez dugu datiboaren adibiderik, bai ordea, genitiboarenik: *guztiyeken*, (1) *-bokal armoniaz-*, (18), (19), (27), (28); *zerubaken*, (4); *gizonaken*, (26), *justubaken*, (30). Berako bertsioan, aldiz, ez dugu *-aken-en* arrastorik: *guziyen*, *zeruben*, *gizonen*, *yustuben*. Berako beste hiru bertsioetan (katal. 31 eta 57. zb.) ere *-en* dugu.

Vinsonek argitaraturiko San Mateoren Ebanjelioaren Irungo bertsioan (1876) bazetozen *apaizaken prinziipeaki*, *erakustzalleaki*. Bonapartek (1877a), bestelakoak zuzendu arren, horiek ez ditu ukituko, ez bada bokal eufoniak legera jartzeko (*prinziipiaki*, *erakustzalliaki*). Guztiarekin ere, kasu batean ez Vinsonen itzulpenak ez eta Bonaparteren zuzenketek ez dute *-aken* forma proposatuko: Vinsonen lehenbiziko bertsikuluan argitaratu *juduen* genitibo plurala, *juduben* proposatuko du Bonapartek: “*Non dago arestian jayo den juduen (juduben) erregea?*”. Ardura fonetikoa morfologikoari nagusitu zaiolako agian? Testuko *-en* bakarra izanik bai Bonaparte bai Vinson horretaz ez zirela ohartu uste izatekoa da.

### 3.2.1.1.1.2. *-aki*, *-aken*: historiarako datuak, interpretazioak, hedadura

Bonapartek (1877a, 149) 1857.ean ezagutu zituen aldaera horiek. Hala ere, Charencey (1866, 72) izan zen, Printzeak berak dioenez (Bonaparte 1866), *gizonaken*, *gizonaki* aldaeren berri eman zuen lehenbizikoa.

Bat datoz baieztapen horrekin Vinson (1876) eta Arana Martija (1991, 200).

Printzeak berak, beste aldetik, aipaturiko lanez landa Hondarribikotzat emanak ditu aldaera horiek beste eskuizkribu batean: *Contestaciones a cuestionarios dialectológicos referentes a Ainhoa... Fontarabie...*



Nolatan eman zien Bonapartek halako garrantzi berezia aldaera horiei? Bere iduriz zaharrak zirelako eta ondorioz, beste euskalkietakoak (*mendien*, *mendiai*) Irun eta Hondarribiko horietan gertaturiko sinkopen emaitza berriagoak. Beraz, beste irtenbide bat eskaini zien garai hartan kasuen teoriarik arrikatzen ziren proposamenei: euskarazko kasuak ez dira benetako kasuak, beste hizkuntzetako preposizio eta posposizioen parekoak baizik. Hedaturari dagokionez, berriz, Bonapartek Irunen eta Hondarribian jaso dituela adierazten du.

Vinson (1876, 4) bat dator Bonaparterekin: aldaerak egiaztatuak zituen Hondarribian eta Irunen, nahiz eta bi herriotako hizkera ezberdina dela azpimarratuko duen. Beste aldetik, bat dator ere euskaraz benetako kasurik ez delako iritziarekin.

Bonaparteren garaikoez eta ondotik etorriko direnez ez dute eztabaidatuko Printzeak jasotako datibo eta genitibo plural horien forma, ez zahartasuna, ez hedadura. Campiónek, esaterako, ontzat ematen ditu Bonaparteren aurkikuntza eta hipotesia, bai datiboari buruzkoak (1884, 198), bai genitiboari buruzkoak (1884, 200).

Azkuek Printzeak adierazitakoak zehaztuko ditu. Zehaztapen horiek hedaturaz egingo ditu bereziki -alegia Irun eta Hondarribitik ekialderago ere erabiltzen direla-, eta formen antzinatasunaz ere mintzatuko da.

Azkuarentzat (1923, 328), datibo eta genitibo pluraleko aldaeretan horiek dira zaharrenak, nahiz eta ez duen aho betez adieraziko:

*Gizonaki* a los hombres, usada hoy sólo en cierta variedad de AN, parece ser la forma más antigua.

Aldaera horien jatorriaz ez du dudarik: izena+ mug. pl.+ kasu-marka: *idi+ak+entzat*, edota (1923, 327) Hondarribikotzat emango duen (baina ergatibo pluralaren markari begiratuta teoriaren aldetik soilik onar daitekeen aldaera analogikoa) *gizonakek*.

MV-n emandako aldaeren artean Bonapartek aipatu ez zuen *-er-* epentetikoaz hornituriko datiboa ageri zaigu. Oker ez bagaude, aldaera horren lehenbiziko testigantza dugu. Azkuek lehenago (1905-6, 455) aztertua zuen auzia baina ez zuen aldaera horren adibiderik eman.

Azkuek aipatuz geroztik, aldaera epentesiduna oso arrunta da Hondarribiko lekukotasunetan: *EI* (Echaide 1984, 201), Artola (1981, 295, 303); Etxaburu (1981, 307) eta Hualde-Sagarzazu (1991, 141). Zenbaitetan aldaera bakarra da, beste zenbaitetan *-aki-*rekin batera ageri da, aurreraxeago ikusiko dugunez.

Antzinatasunari dagokionez, Azkueren iritzia aldaera hauen zahartasunaren aldekoa zen arren, ez da horrela izango Gavelez geroztiko ikusmoldean, Irigoyenek adierazten duenez (1987, 222 hh.).

Gavelek (1929-I, 53) Hondarribiko eta Irungo aldaera fonetikaz berriagoa zela erakutsi zuen, datiboari buruzko azalpenarekin forma horien berritasuna egiaztatuz, hortik aurrera ikertzaileak berarekin bat etorriko direlarik:

Le datif pluriel se présente dans la plupart des variétés dialectales du Pays basque espagnol sous la forme *-ai*. Il est vraisemblable que celle-ci provient de l'ancien suffixe *-ag* auquel nous venons de faire allusion, suivi de l'*i* habituel du datif. Le type primitif de la désinence était donc probablement *-agi*, devenu *-ai* par une de ces chutes de *g* intervocaliques qui sont si fréquentes en basque

Eta oin-oharreen:

Dans quelques variétés basques espagnoles on trouve des types en *-aki*; mais ce sont probablement des formes récentes obtenues en ajoutant directement au suffixe *-ak* du nominatif pluriel les caractéristiques casuelles ordinaires, par exemple au datif la désinence *-i*.

Lafon ere (1950, 306) iritzi berekoa da: "... *-aki* est une forme refaite sur la finale *-ak* de nominatif pluriel".

Mitxelena (1960) ere bat dator ikertzaile gehienekin genitibo pluraleko formaren berritasuna adieraztean, pentsatzekoa da datibokoaz ere gauza bera esan daitekeela.

Hedaduraz denaz bezanbatean, Bonapartek Irun eta Hondarribikotzat bakarrik jo bazituen ere, Ekialderantz zabalduko du Azkuek. Hiztegiaren (1905-6, 455) aurreko herriez gain Baztan, Lesaka eta zehaztugabeko beste herriren bat sartu zuen. MV-n (1923, 7) ez du, ordea, Baztanen aipamenik egingo.

Hortaz, Azkuek tasun honen arabera ere Bidasoaldeko hizkeren batasuna azpimarratuko du. Azkuek berak zuzenduriko *EI*-ren emaitzak (Echaide 1984, 201) datiboari dagokionez bat datoz orohar Azkuerekin: Bera, Irun eta Hondarribiko erantzunak ematen dira bertan -Etxarri Aranatzen *gizonaki* dakarrelarik-. Geroztiko lekukotasunak ere bide beretik joango dira.

Holmerren testigantza aztertzerakoan, dialektologian hainbatetan gertatzen den kontua dugu, alegia: gertakari konkretuen alorrean aldez aurretik zer bilatu nahi dugun aski zehatz finkatu ez badugu, nahiz eta ezaugarri arrunta edo ia-arrunta izan, bildu gabe gera gaitzkeela, mila arrazoi direla medio.

Hau da, Holmerrek, Hondarribiari dagokionez, ez du ez datibo ez genitibo pluralaren adibiderik ematen izenen deklinabidea jorratzen duenean (1964, 52-53). Emango ditu, ordea, erakusleen deklinabidea aztertzen duenean (1964, 67 hh.): *o'jeken (F)*, *o'jeki(FII)*, *a'jeken (F)*: *o'jeken eci'a (FII)*, *o'jekenca't (Fc)*, *ema'n nien o'jeki (FII)*.

Hedaduraz adibide jakingarriak ematen ditu, ostera, bai eta aldaerez ere (*giso'neken ecea (A4)*, *giso'neki'n ecea (A8)*, *bercieken (A4)*), Arantzako lekukotasunak emango baititu, isoglosa Bortzirietara doala garbi erakusten duelarik. Mitxelenak (1977, 390, 19. oharra) ere ematen du, Campiónen *Orreaga* baladaren Berako itzultzaileaz baliatuz, genitiboaren antzeko aldaera baten adibide pareta (*otsúbkin, ardiyekiñ*).

F. Artolaren lekukotasunean (Artola 1981) badira horrelako formak, baina ez beti eta kasu guztietan. Gainera, bada alderik idatzizko testutik hitzaldian ebaki zuenera.

Datibo pluralari dagokionez berezi beharko genituzke idatzia eta ahozkoa:

- idatzian -ohartuki egindako hautua, noski- kasu-marka mugatzaileari (edo lexemari, izenordainean) zuzenean erasten zaion forma da nagusi, zazpi aldiz agertzen delarik: *donijuanetárraki* (302), *karabinérokúmeaki* (301), *kontziliioaki* (295), *zárreki* (296), *Fueroak'i* (298), *dénaki* (296), *zueki* (301); bitan agertzen delarik mug. + -eri: *dénakeri* (295), (303); eta behin bakarrik -eri forma: *biyéri* (299);
- ahozkoan ere forma bera nagusi den arren, bada idatziarekiko desadostasunik: -aki bost aldiz ebakitzen du: *donijuántarraki*, *zárreki*, *dénaki* (296), (295), *zueki*; -keri, behin: *bíyekeri*; beste eratarata, hiru aldiz: *karabinérokúmiai*, *kontziliuari* [?], *fuérueri*; beste batean hitza ebaki ez zuelarik.

Hortaz, datibo pluralari dagokionez polimorfismoa izango da nagusi Artolaren erabileran (-aki / -akeri, beste formak idatzizko arauari lotuko zaizkiolarik); erabileraren portzentaia -aki formaren aldekoa da.

Genitibo eta destinatiboan formetan ez da alerik ere, ez idatzian ez ahozkoan, -k-dunen sailean sartzen dugunik. Gehien erabili duena -en da: *sémien áyua* (302), *zórren áyua* (302), *Karlísten* (298), *irundárren* (296), *sustráyen* (295), *txorí guzíyen* (299), *auen* (297), *begí háyen* (299), *zuéntzat* (297). Salbuespena erakusletik sorturiko *ókenekua* (301) da. Lehenengo graduko erakuslea ok denez, bertatik sortua dugu *oken* genitiboa. Beste guztietan, ordea, k-rik gabeko formak erabili ditu. Agian, idazteko garaian Artolak ez zuen erabilerara horren oharrenik eta, ondorioz, idatzizko arauetan arruntagoak zirenez baliatu zen. Alde honetatik, beraz, bere lekukotasuna ez dugu aipagarria.

Etxaburuk (1981 eta 1986) ere jasotzen ditu Hondarribiko datiboari, genitibo eta destinatiboari dagozkien formak. Deklinabide pluralaren paradigma labur batean (1981, 307), *gizonakeri gizonaken*, eta *gizonakentzat* ematen ditu, eta honako adibideok: *gizonakena gizonakentzat* eta *mutillakena mutillakentzat* (310); *denakeri begira egoten da* (310) (gip.: *deneri begira egoten da*); *danakeri begira egoten da* (1986, 181). Eta erakusleetan: *egun oketan gaizki ibilli gera* (311).

Irigoyenen ekarria gai honetaz, bi aldetara hartu behar da:

a. Testigantza mailan: lekukotasunak bildu (*gizonaken*, *gizonaki* (1987, 129) eta *aingúrakèn pátak* (1987, 222) ) eta forma eta hedadurari buruzko ohar interesgarriak egin dizkigu, erakusleen eta izenordainen adibideak ere emanez (*ókenà*, *ayékenà* (cf. *Erakusleak* atala); *zuékenà*, *guréna* (cf., Artola 1981, 301 eta Azkue 1923, 329 eta 1924, 438) ). Datiboaren aldaeren hedadu-

raz denaz bezanbatean, Irigoyenen arabera forma hauen erabilera Ekialdera zabaldu beharko dugu, Frantzisko Iñigoren Berako lekukotasuna (*itxiakeri*, *itxiokeri*) ere baitakarkigu (1987, 129).

Beste aldetik, Patxi Iñigok berak (1981, 43 hh.) Bortzirietako erakusleak aztertzean eskainiriko paradigmek adierazten digute, Hondarribian eta Bortzirietan, gutxienez, erabiltzen direla *-k-dun* formak, eta aldaera askotan bat datozela hizkera horiek.

b. Kasu-marka hauek sortu eztabaidaren nondik-norakoen berri biziki zuzena ematea, eta teori azalpena.

Teoriaz denaz bezanbatean, formaren berritasunarekin bat dator bokalar-tean mugatzailearen herskaria ahoskabea izateak, *-k-*, hala agertzen duelako (1987, 222), eta beste aldetik, Bonaparte, Campión, Azkue eta Gavelen jarrenen berri ematen du.

Hualdek eta Sagarzazuk deklinabideari buruzko zenbait argibide ematen dituzte. Argibide horietan mugatzailea eta kasu marka bereizteko erreztasuna azpimarratzen dute (1991, 140-141), paradigmaman honako adibide hauek emanez: dat., *árrakeri* (*árraki*, ez hain arrunta), *katúakeri*, *lagúnakeri*; genit., *árraken*, *katúaken*, *lagúnaken*; destinat., *árrakentzat*, *katúakentzat*, *lagúnakentzàt*.

Horko datuekin bat baldin bagatoz ere, orohar, bada, datiboaren inguruan, ordea, egin beharreko zehaztapen bat: gure *corpusaren* arabera ezinezkoa da bi aldaeratarik ugariena zein den jakitea, orekatuak ageri baitzaizkigu hala *-aki* nola *-akeri*.

### 3.2.1.1.1.3. Egungo erabilera: datu zenbait

Orain arteko testigantzekin bat datorren adibiderik entzuten da egun Hondarribian. Datuak berrogei urtetik gorako pertsonen artean bildu ditugu, eta Portuga, kalea eta baserrietakoak dira. Hala ere, eta baserriari dagokionez, ez dugu Jaizubiako testigantzarik. Ihardun librean, eta ez galdekizun bidez, bildu ditugu.

Forma horiek (*-aken*, *-aki* / *-akeri*) entzuten diren bakarrak ote diren auziari erantzuteko bada, gure datuen arabera, egin beharreko bereizketa :

- datiboari dagokionez, bestelako aldaeraren baten erabilera ezin ukatuzkoa bada ere, portzentaia oso urria da, beraz, bizi-bizirik daude *-aki* / *-akeri*;
- genitiboari (eta destinatiboari) dagokionez, *k-dun* forma da nagusi, baina *-en* aldaera ere entzuten da zenbaitetan. Maiztasunaz, zilegi bada erka-keta, ugariagoa da genitiboaren bigarren aldaera (*-en*) datiboaren hirugarrena baino.

Hala ere, eta azpimarratzekoa da kasu-marken erabilera anitza bapatean eta hitzun beraren ahoan entzuten dugula, Jose Luis Arbelaizti, hil kanpaiez

ari delarik, jaso diogun adibide mordoska honek erakusten duenez: **dénakentzat**, **senárrakentzat** irú... *bukayéran irú gólpe*, **emakúmezkontzat** bi. *Eta illé-ta aundíyak edo nagúsiyak zirénian, jénde aundíyantzat*, **aberátzakentzat** *eta-bar*, *o elízekogizónantzat*, *errégiak eta óla (...)* gérrartan murállatan *íltzién gízónentzàt(...)* *íltako guzíyeken egúnian, difúnto guzíyeken egúnian.*

Datiboaren aldaeretan ez dugu auzoen araberako *-keri / -ki* bereizketarik. Kopuruetan, kasu-marka zuzenean hartzen duena *-(a)ki* hamaika aldiz bildu dugu, eta epentetikoa duena *(-er-)* hamar aldiz. Horien arabera, beraz, polimorfismo orekatua dugu Hondarribian.

Hona datiboari dagozkion lekukotasunak:

- a. **-(a)ki**: *Ondárbiko bañísta gustíyaki déndako zéрак partítzen genítuén; Kontrabandístaki; Béste bárkueki jarri nión géro; laúnaki; izúrdiyeki; gatzí-aki laúndu; zárraki zéingo; txistuláryaki; oríyeki.*
- b. **-(a)keri**: *arrantzáliakeri; kaletárrakeri; neré úmiakerí; mixíko láu paréja-keri; dénakeri; lagúntzen genuén ango nekazáriakeri, baserritárrake(r)i; dénakeri; ezpáda laúntzen ókeri; zortzí mutill óyakeri; áyeki; itxúraz béude-ki prestátzia;*
- c. bestelakoak: *an etórri zién bátzu(r)i galdétu nión.*

Eta hona genitibo eta destinatiboari dagozkienak:

- a. **-(a)ken**: *karabinérukena; inyetória eta bónbaken asúntua; laúnaken billá ; kanpeonáto de mús bat, zárrakena, zárraken izénian; ezíntzen dénakentzat allátu; republikánuaken monéda; zárraken kóntuak, betí zárraken tártian; gástuakentzat bérík; batallói bat eótentzen, soldádukena; baserriyaken izenak; béste gáuzaken ártian; Pórtuk eztáki ainbéste kanpánaken berri; oríre dénakena duk; eta bíyeken ártian; Errázkintar óyeken izéba bátzukentzat; berókériya óyeken barrúan; áyeken típora jartzén bágera; Erremandádeko óken átta; óyeken atta; oríyeken izkuntza orí; Otxóa ta óyeken mártxa; gízón uráyeken tártian;*
- b. bestelakoak: *republikánuen dénboran; odólemáillien egúna; krupíérren jéfia; zár izánan ártian; lagúnen ártian; Ortíztárren ... itxían; Artólatárren famílitik; Rafaél Errázkin ta bíyen árte; gurásoen elkárren árteko artúemán urá; dánantzako lána [zazpi seme-alabentzat]; orí yá zuén gáñ; zwéna; oríyén díruakin; oríyén beldúrta;erréztasún óyén bidez.*

### 3.2.1.1.1.4. Laburbiltze aldera

Datibo, genitibo eta destinatibo pluralei dagokienez, predikuan ageri diren formen garrantzia azpimarratu dugu, Bonapartek eta aipatu zituztenetik gaur egunera arte erabili diren eta erabiltzen diren formak direlako, eta era berean, geografiaz eskualde batekin lotu izan direnez, dialektologiaren ikuspegitik aztertzeakoak direlako.

Forma horien berritasunaz ere erreferentzia aski zehatzak baditugu ere, gogoan hartzekoa da Hondarribiko testigantza Bonaparterengandik mende bete aurreratzeko aukera ematen digula predikua.

Kasu-marken aldaerei dagokienez -predikuan datiboaren forma bakarra ematen badu ere-, historian zehar eta egun ere polimorfismoa dela erabileraren ezaugarri nagusienetarik bat ikusi dugu.

Hedadurari dagokionez, ezaugarri hauen bidez isoglosa Hondarribitik Ekialdera zabaldu beharra dago, Bortzirietako hizkerak ere hartuz. Gainera, ez dirudi isoglosa mende honetakoa bakarrik denik, idatziz iritsi zaizkigun zenbait testu ere (genitiboaz eta ari gara) bat baitatuz testigantza horretan. Hala eta guztiz, hobekiago azertu beharreko puntua izan daiteke, *EI*-ren araberrako Etxarri-Aranazko lekukotasuna baztertuko ez badugu.

Beraz, eta hizkuntz ezaugarri honi jarraituz Hondarribiko hizkera ez dugu Gipuzkoakoekin batera, hurbilean dituen Nafarroako zenbaitekin baizik.

### 3.2.1.2. Erakusleak

Erakusleen aldaerak inguruko testuetan ere aurki daitezke. Gaur egungo erabilerarekin bat datoz zenbaitetan (*urá, oc, oriec*), baina bada egun bestelako joerarik ere (*óni-onéri, aien-áyeken/uráyeken*).

Hona predikuko aldaerak: *achaqui au ônelacoa (1), ónec ( au dá Christogure Jauna) botazen tu Demoniuac(8), obligacio óni (1), eliza onetaco (1); baisica hurá reprendiseco (10); noiz artian iraungo du erri edo familia arc? (11), zer gausa on izan alditaque familia artan? (11), escazen citiosten Ceruco Señaliac argan siñisteco (8), eta haren dotrinaz murmurazeco (10), juntatzen garenian árequin (4); oc dire Escribac (8), Vi adoracio otatic (5); zuben seme oriec (11); Munduco ámoriuac dominazen tuen gende aiec (5), aietatic bacuec (8), señac izango ziren Juiziuaz aien contra (9).*

Aldaera hauetan aipatzekoa da pluraleko lehenengo graduan gertatu den monoptongazioa (cf., Mitxelena 1977, 98), ondorioz *oc* dugula.

Inguruko testuetan (cf., Etxalar, 1749 (Satrustegi 1987); Irun, 1783 (Ondarra 1987); Irun-Hendaia (1831-32) (Ondarra 1990) ) ere aldaki hori erabili izan da.

Bonaparte ondoko testigantzetan ere aldaki hori bera dugu: *Erizkizundian o luzeaz (Bähr EI, 17); ôk. Artolak (1981) ere erabili zuen: ok ttuk maxínak, ok (299), ókenekua duk (301); eta Etxaburuk (1981) ere bai: Nok [sic] ekarri tu gastaiñ ok? (309).*

Salbuespena Holmer (1964) da: Hondarribiko lekukoen *abe`k* (F6), *abe(k) esti`ra* (F4) testigantza jaso du, gipuzkerari, batez ere, lotu izan zaion aldaera (cf. Mitxelena 1977, 177 eta Echaide 1984, 276). Beste zenbait ezaugarritan bezala euskalki horren eragina ikusten dugu oraingo honetan ere.

Egungo Hondarribiko erakusleetan monoingtutako aldakia entzun daiteke. Hona absolutuan singularrean nahiz pluralean erabiltzen diren formak: *áú, orí, urá; ók, óyek/oríyek, áyek/uráyek -oríyek eta uráyek* (cf. Artola 1981, 301) Portuan-.

Ergatibo singularrean *onék, orrék, arék* ditugu; eta datiboan ez dugu predikuko adibideak bezalakorik, *onéri, orréri, aréri* baizik. Lekuzko kasuetan joera nagusia *óntan* egitea den arren, *onétan* ere entzuten da.

Pluralei dagokienez, lekuzko kasuetan izan ezik (*óyetako, áyetan, óyeta-ra*, baina *óketan*), kasu markak forma osoei lotzen zaizkie (dat., *óki-ókeri; óyeki-óyeker* (Portuan *oríyeki-oríyeker*); *áyeki-áyeker* (Portuan, *uráyeki-uráyeker*); genit., *óken, óyeken* (eta *oríyeken*), *áyeken* (eta *uráyeken*)).

### 3.2.2. Aditzaren morfologia

Aditzaren ezaugarriak predikua geografiarekin lotzeko aukera ematen dute. Aditz tasunetik abiatuta testua Gipuzkoako goi nafarreran sar daiteke, adizki laguntzaileak, aspektu bai gertakizuna (*-ngo*, eta ez *-en*), eta azentuaren atalean aipatu *ecusco* sinkopa gogoan hartuz gero. Eta are gehiago, Hondarribiarekin lotuko dugu bigarren pertsona pluralari dagokion *-zia* (*duzia, diciat*) dela medio.

#### 3.2.2.1. Adizki jokatuak: *-zia*

Pluraleko bigarren pertsonaren morfema, bai *nork* bai *nori* denean, *-zia* dugu. Aditz laguntzailean ageri da, *nor-nork* sailean: *subec ezaten ducian bezala* (8), *zubec ezaten ducian bezala* (11), *zubec confesazen ducian bezala* (12); *Beguiac idequi nai baditucia, nic badaquit ecusco dituziala* (2); *nor-nori-nork* sailean: *Au gucia jaquiñic ezaten diciat orañ* (2); baita adizki trinko batean ere: *guciac daquizian bezala* (1). Hortaz, *-zia*, sermoiaren arabera, orainaldian *nork zuek* zenean erabiltzen zen, hala adizki laguntzaileetan nola trinkoetan, eta *nori* zenean *nor-nori-nork* sailean.

Beste aldetik, auziko paperen artean gorde lekuko adierazpenek gipuzkeraren eragina orduko ere bazela erakusten digute. Izan ere, testuan *edo subec ezaten ducian bezala* (8) zena, Francisco Antonio de Berrotarán lekukoaren hitzetan *zuec exaten desuten bécela* baita (50. folioa).

Garai horretako Irungo eta Bortzirietako testuetan *-zia* morfema ez da ageri. Bonapartek, ordea, jasoko du morfema hori Hondarribian, eta Bonapartez geroztik badugu horri buruzko berririk.

Bonapartek (1877a, 157) Hondarribiko aditzean nabarmen azpimarratuko du bigarren pertsona pluralari dagokion *-xia* morfema, eta, Hondarribiko hizkeraren aurkezpenean, orohar, morfema hori eta genitibo eta datibo pluralak dira Hondarribiko hizkeraren berezitasun nagusienak.

Bere ustez, aditz iragankorretako subjektuari dagokion marka da (1991, 249) eta adibide ugari emango ditu bere lanetan. *Observations-en jan dushia*,

*zashia, zichia, dezashian, dezakeshia* eta *badakishia*. *Contestaciones*-en, *du-sisia, zassia, dezašian, dezakešia* -egun subjuntibozkoa eta ahalezkoa ez dira erabiltzen-.

· Morfema horretako txistukaria transkribatzeko moduaz ere bada ohartxo bat: Bonapartek sabaikaria ematen du. Hala ere, nahiz gure predikuko grafiek, nahiz Bonaparteren ondoko testigantza gehienetako grafiek ez dute sabaikaririk ematen, bizkarralbeolarea baizik (cf., Bähr 1926, 105, 393 eta 1931, 264; Azkue 1932, 78; Artola 1981,301 eta Etxaburu 1981,309).

Irigoyenek (1987, 21), berriz, apikoalbeolareaz transkribatu du. Yrizarrek (1981-I, 70), aldiz, sabaikaridun adibiderik behin baizik ez du ematen.

Egungo ebakera nolakoa den aztertzeko izanagatik, eta palatogramek esango digutenaren zain, bizkarraurrekoaren neutralizazioa garbia da Hondarribian, hortik aurrerako baieztapenak ikertzeko daudelarik.

Marka honen fonetikazko kidetasunez Bonaparte bera mintzo zaigu (1877a, 157, 1. oharra), Ekialdeko behe nafarreraren xukako *zashie, deza-shien* aipatuz. 1869.ean halaber (1991, 248), bigarren pertsona pluraleko subjeto markei buruz ari delarik, ematen du *-zie* morfemaren hedadura: zuberera, Iparraldeko goi nafarrera, Hegoaldeko goi nafarrera, aezkera eta zaraitzua.

Irigoyenek (1987, 21) aipatu izan du *-zie* eta *-zia*-ren arteko harremana: Hondarribikoa aldaera zabalagoa den *-zie*-tik omen dator. Hondarribiko testigantzetan eskuarki bokal irekia dugu, *-zie*-ren arrasto bakarra Bährren (1926, 105) *ttuzie / ttuzia* ? delarik.

Egungo erabileran *-a* duen aldaera da nagusi Hondarribian, baina beste aldaera ere entzuten da, batez ere Portu auzoan: *Jakin dizien bezala* (Lazkanotegi 1991, 6). Beste aldetik, Portuan nor-nork-eko *dugú* eta *dusjá*-ren orde *digú* eta *disjá/disjé* (cf. Artola 1981,301 eta Irigoyen 1987, 21) erabiltzen direnez, *dusjá, dusjé, disjá, disjé* entzun daiteke. Baserrietan *duzuté, dusjá*-rekin batera.

Hedaturari dagokionez, Irigoyenek (1987, 21) adizki horietako gertakari fonetikoak garai batean egun baino zabalagoa izana dela dio:

Las flexiones verbales del tipo *badituzie* llegaban hasta las inmediaciones de Pamplona, en hablas que no comparten con el sul., b.-nav. y ronc. las formas del tipo *esku + -a > eskia*, a través de *eskuia*, y que, como el b.-nav., pertenecen al grupo que utiliza el pluralizador *-te*, por lo que hay que pensar en un fenómeno fonético que debió estar más o menos vigente en un área mayor que la actual y que fue rechazado en algún momento, dejando esta huella.

Zuazok (1989, 621) berrikiago aipatu du *ü + bok. > i* gertakari fonetikoaren hedadura Zuberoako eufonia bokalikoaritu delarik:

Zub. eta erron. ezezik, b-nafarreraz ere -ekialdeko b-naf. batipat (Amikuze, Bardoze, Garazi, Baigorri...) - izango dugu aldaketa hau eta, aztarnaren bat edo beste, baita Nafarroa Garaian bertan ere. Aezkeraz eta baztaneraz, esate baterako, zenbait aditzen pluraleko 2. pertsonan (*duzie* eta berdin Bonapartek (1877b, 157) Hondarribiko hizkeran bildutako



*duxia*, *zaxia* 'ezazue', *zixia* 'itzazue' horiek) eta beroni dagokion izenordainean (*ziek*) azalduko zaigu *u+bok*. > *i* aldaketa.

Lafonek (1965, 903-904) zuzen esan zuenez, ekialde osoan -eta ez zubereraz bakarrik betetzen da, bada, gehiago edo gutxiago, aipatu aldaketa, bizk., gip. eta lap. direlarik salbuespen bakarrak.

Beste aldetik, Hondarribian *-zia* / *-xia* erabiltzen dela garbi bada ere, auzo guztietakoa ala auzo bateko berezitasuna ote?

Bährrek (1926, 101) Portuarekin lotu zuen. Azkuek (1932, 117, 122) eta Yrizarrek (1981-1, 70) ere bai. Horrelako zerbait pentsa liteke, agian, Artolaren mintzaldiaren arabera (1981), *-zia*-dun adizkiak Portuko hizkeraz mintzo denean erabili baititu. Guztiarekin ere, eta hobekiago zehazteko kontua den arren, gaur egun Portu eta Portu inguruko baserrietan, gutxienez, aski arrunta da, beste auzoetan *duzute*-rekin batera entzun daitekeelarik.

Ondorio nagusi modura esan daiteke aski bereizgarria gertatzen dela ezaugarri hau Hondarribiko hizkeraz mintzatzerakoan, eta era berean, Ekialdeko hizkeretik kidetasuna adierazten duela.

### 3.2.2.2. Adizki laguntzaileak

Adizki laguntzaileak, orohar, Iparraldeko goi nafarreraz eta lapurteraz aski arruntak ditugu: *gara* (*bagara* (12), *garenian* (4)); *dire* (3, 8, 10) (eta *didare* (5), *didaren* (2)); *dut* (*estut* (2)) (eta *dudan* (*dudanian* (1))); *tut* (*batut* (11)) eta *ditut* (2) (*estitut* (12)); *tu* (2, 5, 8, 11); *tuste* (11) (*batuste* (11)); *zition* (7); *citiosten* (8). Nor-nori sailean-g-dunak dira nabarmen: *zaigolaric* (4); *zai-gon(a)* (4), (5), (5), *saigona* (4); eta *ezizaiguela* (9); baina *zizaion* (1). Nor-nork sailean, berriz, objektu pluralaren markaren aldatzea: badira pluralgilearen aldaera bakarra darabilten adizkiak, *tu* (2, 5, 8, 11), *tuen(a)* (3, 6); *tuste* (11), *batuste* (11); *baditucia* (2), *dituziala* (2); eta bi aldaerak daramatzatenak: *ditut* (2), *estitut* (12), *batut* (11). Egungo erabileratik begiratuta azpimarratzekoa da *niñ hubenian* (1), egun ez baita entzuten Hondarribian (*nawén*, *zi(d)án*). Beste aldetik, *-b*-dun adizkiez (*duben* (3, 5, 6, 7); *zuben* (5), *zubenian* (7), *ezubela* (8)) lehen aritu gara. Nor-nori-nork sailean aipagarria da *-it*-objektu pluralaren erabilera: *zition* (7), *citiosten* (8), *zitién* (2). Era berean, adibide bakarra izanagatik, *didate* (1), Bonaparteren *idiotisme marin* (Bonaparte 1877a, 155) delakoarekin eta egungo hizkerarekin bat ez datorrena.

Irun eta Bidasoaldeko testuetako adizki laguntzaileak, orohar, bat heldu dira Salazarren erabilerarekin, *-zia* morfema alde batera uzten badugu. Hala ere, badira adierazi beharreko zenbait ñabardura. Ondarrak (1987, 298, 313 hh.) Irungo Azcùeri bildutakoetan Salazarren antzeko erabilera ematen digu (*gara*, *dut*, *diu/tu*, *zition*), adizkiren bat edo beste gipuzkeraren gisara erabiltzen delarik (*dire* eta *dira*, *ziran* *ziren* baino maizago). 1831 eta 1832.eko Irun eta Hendaiaiko predikuak (Ondarra 1990) ere bat datoz, orohar, Salazarrekin, eta axola handiko datua eskaintzen digute: objektu plurala palatalizatuta ageri

da (*dittu/ttu, ttuzu, ttuzte, baina tuzube; ttigu, ttiozte, ttiozube, ttiyo, ttizu, zittion, zittien*). Irungo 1854.ekoan (Satrustegi 1987), aldiz, gipuzkerazko adizkiak dira nagusi (*guera* (242), *cerate* (244), *zan* (241) (*zen* (240) baino ugariago), *ciran* (242) (*ciren-en* (242) aldean nagusi); *det* (244) (eta *dedan* (241)), *dezu* (244) (baina *duzute* (241)); *disquiguna* (241), *zioscan* (241).

Bonaparte bat dator Salazarren erabilerarekin. Ez du, ordea, pluralgilearen lekukotasun handirik ematen. *dityuste* (1877a, 155) ez bada. Adibide horretan eta *Le verbe-n* (1991, 255) bustidura adierazia du, baina lehenengo silabari buruzko xehetasunik ez dakar. Dena den, *ttu* Iparraldeko goi nafarrearen aldaeratzat emana du. Bestalde, *nau* adizkiaren erabilera gehiegizkoa azpimarratzen du *Contestaciones a cuestionarios... en Fuenterrabía* eskuizkribuan eta *Observations...* lanean. Azken honetan kostaldeko 'idiotisme marin' (1877a, 155) deitura ematen dio, *dit-en* ordezt erabiltzen dela erakutsiz. Joera horren hedadura kostaldekoa bakarrik ez dela adierazten du Yrizarrek (1981-II, 359 hh) Bonaparteren datuak eta berriagoak erabiliz. Hala eta guztiz ere, Salazarren predikuan bestela dugu: *baño erri onetaco Capitulariac pleitu emanic ereguiten didate neréz predicazia* (1).

Bonaparteren ondoko testigantzetan badira azpimarratzeko hiru puntu:

- a. Bährrek (1926-35) eta Azkuek (1932) goinafarrerazko adizkiak ematen dituzte, baina Holmerrek (1964, 79 hh) gipuzkerazko adizki ugari ematen ditu, gehiegi, Artola (1981) irakurtzen bada. Egungo erabilera (*gerá/gará, zerá /zará, yaiz, zaté/zazté, diré/dié, zirén; dut*) hurbilago dago Artolak adierazitakotik.
- b. Objetu pluralean bustidura adierazita ageri da (cf., Bähr (*ttut* (1926, 105), *ttizut* (1926, 117), *nittizun* (1931, 260); Azkue (*ttut* (1932, 74), *ttiet* (1932, 104); Holmer (*dit'ut/t'ut* (1964, 83)); Artola (1981), *ttuk* (299), (301), *badíttu* (302)). Egun ere palatalizatua ebakitzen da: *ttut, ttuk/ttun, ttu; nittuen, zittuken/zittunen, zittuen; ttiet* ('dizkiat'), *ttiot* ('dizkiot', eta 'dizkiet'), *nittizun, zenittian*; baina baita *na(u)zki, na(u)zkité* ere.
- c. Sail ezberdinetako adizki nahastekaren nagusitasuna:
  - c.1. Nor-nori-nork sailean nor-nork-eko adizkien erabilera (cf., Bähr (*diak/nak* (1926, 373), *zian/nazun* (1934, 70); Holmer (*sir'an/ nawe'n* (1964, 87-88)); Yrizar (*dit/nau* (1981-I, 64 eta 1981-II, 359 hh)); Artola (*attak esan nau*) (1981, 300) eta Etxaburu (1981, 308-309)).
  - c.2. Nor-nork sailean nor-nori-nork-ekoen erabilera (cf., Bähr (*zattut/dizut* (1926, 393) eta *nizun* (1935, 27)); Yrizar (*zattu/dizu, dizia* 'zaituzte') (1981-I, 70); Artola (*ikusí dizut, zuri ikusi* (1981, 300)) eta Etxaburu (1981, 308 hh) (*ikusí diot*)).
  - c.3. Nor-nori sailean nor-nork eta nor-nori-nork-ekoen erabilera (cf., Holmer (1964, 87, 161. oh.) eta Etxaburu (*gustatzen nau, dio, dizu* (1981, 309)).

Egun Hondarribian indarrean daude joera horiek. Nor-nori-nork sailean berezko adizkien erabilera arrunta da (*diñét, dik, ttiót, ttigú, ttiziá, ttio(te)* ('dizkiet', eskuarki *-te-rik* gabe), *niri* denean izan ezik: *nak/nan, náu, nazú, naziá, nauté* eta *na(u)zkík/n̄, na(u)zki, na(u)zkizú, na(u)zkitté*, baina *nakén/zia-kén, nazún/zenián...* Eta *eman gattú, esan gattuzté* entzuten da, batez ere, hizkera dotoreagoa egin nahi denean. Nor-nork sailean, arrunta da nor-nori-nork-eko adizkiak erabiltzea osagarri zuzena zeharkakoa bilakatzen delarik: *nik íri emán nikén* ('nik hi eraman hindudan'). Nor-nori sailean eskuarki ez da berezko adizkirik erabiltzen: *nau, na(u)zki*; *etórri dió, gustátzen dizú, idurítu diziá/dizíé, gustátu dioté, etórri zían* ('zitzaidan'), *idurítu zitiión*.

### 3.2.2.3. Aspektu bai gertakizuna: -ngo

Predikuan, aspektu gertakizuna *-n-z* bukatu aditzetan ez dugu Larramendik (1745, XXX) Irun, Oiartzun eta Hondarribikotzat emandako *eguiñen dut* bezalakorik: *izango* (2, 2, 2, 10, 10), *eguingo* (7, 8), *emango* (9) eta *íraungo* (10, 11).

Inguruko testuetan *-en* agertzea normala da. Ondarrak (1987, 295) Irungo 1783.eko platikatik *esanen, erranen, emanen, egonen, eguiñen, eranzunen, egonen, juanen* aipatzen ditu, *-ngo-* hirutan ageri delarik (*emango, esango, izango*). Ondarrak berak (1990, 12) Irungo eta Hendaiako 1831 eta 1832.eko-etan ere *-en* atzizkia jaso du: *emanen, egonen*.

Bonapartek (1877a, 150) Larramendiren aipua dakar, baina bere garaian horrelakorik ez zela entzuten esanez. Hondarribiko ondoko testigantza guztiek *-ngo* besterik ez dakarte, eta gaur egun ere hala gertatzen da.

Hortaz, isoglosak aldatzen direla jakina bada ere, badirudi Hondarribian aspalditik erabiltzen dela *-ngo* atzizkia gertakizuna adierazteko. Hala ere, Larramendiren testigantzak bestela zioen, eta Irungo predikuek *-en-en* erabilera (*-ngo* zenbaitetan erabiltzen delarik) adierazten dute. Beraz, Salazarren erabilera fidagarria izatera *-eta* beste zenbait ezaugarriren arabera hala dirudi-, ez dago horren garbi XVIII. mendean eskualde osoan *-en* erabiltzen zenik. Hondarribian, behintzat, aspalditik erabiltzen da Mendebaleko usuarioari lotu izan zaion morfema.

## 4. Ondorioak

Gure asmoa, prediku honetan bestek aurkitutako ezaugarri batzuek sako-nago aztertzea izan da, testua Hondarribitik bertatik irakurrita. Bestalde fenomeno horien hedadura finkatzen saiatu gara, eremu hurbilenetan batez ere.

Lehen arazoa egilearen jatorria argitzea genuen, bi izan zitezkeelarik prediku idazleak: Roque Jazinto de Salazar eta Pedro Antonio Díaz Zamorano. Artxiboak arakaturik, eskuizkribuko letra, behintzat, lehenarena da gure ustez. Nolanahi den, hondarribiarrak genituen biak, bertan jaio eta bizi zirenak.

Testura gatzela ez dago gogoratu beharrik, predikua eta idatzia denez, hizkuntza mota nolabait jasoa eta arautuxea dugula, eta ezinbestean normala dela herri hizketaren ezaugarri asko bertan ez agertzea. Hala ere, honako hauek aipa daitezke:

1) Azentuaren azterketan, beti ere testuan datozenak urriegi direla ondorio sinesgarriak ateratzeko gogoan harturik, emaitza hauek ditugu:

- a) Azentuaren erabilerak ez du zeregin berezlerik.
- b) Izen eta adjetiboetan betetzen da Bidasoaldeko arau nagusia: azentuaren kokagunea lexema da.
- c) Predikuko hiru adibideetan (*ózazunaren, obligación* eta *âmoriuac*) ez da betetzen egungo hondarribierarako proposatzen den beste arau bat: “bi silabaz goitiko hitzetan, lexema kontsonantez bukatzen bada, azentua azken silaban joango da; bokalez bukatzen bada, azken aurrekoan”.
- d) Erakusleetan denetarik dago: egungoarekin bat datozen adibideak eta ez datozenak.
- e) *Ba-* baiezkoa (*badíre inorancia asco*) eta baldintzazkoa (*au bálizaque... izango lizaque*) gaur egun bezala bereizten dira azentuaz.

2) Bokalismoan, bokal berdinketak (*ereman, podore...*) eta armonizazioak gaur bezalatsu gertatzen dira predikuan, ez, ordea, hiatoetan datozen *-b* (*zuben*) eta *-g* (*zaigo*) epentesiak.

3) *-a* organikoak bere horretan irauten du predikuan, egun, berriz, kentzeko joera bortitza badago ere.

4) Predikuko datu ugarien arabera txistukarien neutralizazioa gertatua da Hondarribian XVIII. mendearen azken alderako.

5) Testuaren hizkera dialektologiaz sailkatzerakoan ezaugarri morfologikoak ditugu erabakiorrenak. Deklinabidean, genitibo eta datibo pluralek (*-aken, -aki*) Hondarribia, Irun eta Bortziriak aldean kokatzen digute predikua.

6) Aditzean, *-ngo* aspektu markak, garaiko eta inguruko hainbat lekukotasunekin bat ez datorrelarik, Mendebaleko usuarioari lotzen digu predikua.

7) Adizki laguntzaileak, berriz, lapurteraz eta goi nafarreraz bezala agertzen dira. Gaur egunean, ordea, gipuzkeraren eragina nabarmenagoa da.

8) Pluraleko bigarren pertsonari dagokion *-zia* morfema dugu, orain arteko datuen arabera behintzat, predikuaren hondarribiartasuna egiaztatzen digun ezaugarri nabariena.

9) Bai deklinabidean, bai aditzean aipatu berri ditugun aldaera hauek guztiz arruntak eta erabiliak ditugu gaurko egunean, predikuan bezala, bakarrik ez badira ere.

Beraz, esandako guztiak laburbilduz, XVIII. mendeko prediku hau hondarribiarrek eta hondarribieraz ondua dela baieztatu dezakegu. Hizkera honen lehen agerpena eta XX. mendera arte bakarrik denez gero, ezinbestekoa dugu

berau ezagutzeko. Orobat Gipuzkoako ipar-goinafarrera ezagutzeko, azpieuskalki honetan ere zaharranetarikoa dugularik.

## 5. Bibliografia: lanaren iturburuak

- ARANA MARTIJA, J.A., 1991, "Bibliografía Bonapartiana", *Euskera* XXXVI, 128-297.
- ARESTI, G., 1973, "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", *FLV* 13, 61-128.
- ARGAIÑARATZ, P., 1910, *Devoten Breviarioa*, Chalon-sur-Saône; fak. Hordago, 1978.
- ARTOLA, F., ("Bordari"), 1981, "Hondarrabiko mintzairan bertako berri", *Euskera* XXVI, 295-303, eta eskuizkribua.
- AXULAR, P., 1643, *Gvero*, Bordelen; fak. Euskaltzaindia, 1988.
- AZKUE, R.M., 1905-6, *Diccionario vasco-español-francés*, I, II, Bilbao, fak. LGEV 1969, Bilbao.
- 1923, 1924, 1925, "Morfología Vasca", *Euskera* IV, V eta VI.
- 1928, "Mendibururen adizkiak eta idaztankera", *Euskera* IX, 124-183.
- 1931-33, "Primer apéndice de la Morfología Vasca. Conjugación del Verbo Guipuzkoano", *Euskera* XII, 87-206; XIV, 197-223. LGEV 1969, Bilbao.
- BÄHR, G., 1926, "Estudio sobre el verbo guipuzcoano", *R/IEV* XVII, 98-122, 370-394; XVIII, 437-469; XIX, 287-312; XX, 325-349; XXI, 547-587; XXII, 245-269; XXV, 63-77; XVI, 122-136.
- EI: Erizkizundi Irukoitza: Ondarribi, Hondarribiari dagokion kuadernotxoa, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.
- BERIAYN, I., 1621, *Tratado de como se ha de oyr missa, escrito en Romance, y Bascuence*, lenguages de este Obispado de Pamplona, Pamplona; fak. Hordago, 1980.
- BONAPARTE, L.L., 1866, "Note sur les prétendus génitifs et datifs pluriels de la langue basque". [Orri soltea, urte pare batera, 1868.ean, "Notes sur les prétendus génitifs et datifs pluriels de la langue basque. Remarques", *RLPhC* 282-284].
- 1868, *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes, comprenant les règles de la prononciation, de l'accent tonique et du changement des lettres; suivie de la loi de l'affinité ou harmonie des voyelles, et précédée d'une nouvelle classification des dialectes, sous-dialectes et variétés de l'euscara. D'après de nombreux renseignements pris sur les lieux en 1856, 1857, 1866 et 1867. Par le Prince Louis-Lucien Bonaparte*. Eskuizkribua. Proc.: BDV m/s Bv-84. MICROFILM 2 C 2.
- 1877a, *Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun, etc.*, Paris.
- 1877b, *Note sur certaines remarques de M. A. Luchaire*, Londres.
- 1991, *Opera omnia vasconice*, I, II, III, IV, Euskaltzaindia, Bilbao.
- Contestaciones a cuestionarios dialectales en Fuenterrabía*. Proc.: BDV m/s Bv-66-d. MICROFILM 2 C 6.
